



Deba ibarreko euskeria

Koldo Zuazo

IZENBURUA: Deba ibarreko euskeria

EGILLIA: Koldo Zuazo

ARGITARATZAILLIAK: Antzuolako, Aramaioko, Aretxabaletako, Arrasateko, Bergarako, Eibarko, Elgoibarko, Eskoriatzako, Leintz-Gatzagako, Oñatiko eta Soraluzeko Udalak

DISEIÑUA ETA MAKETAZIÑUA: Koldo Mitxelena Zumaran

INPRIMATEGIXA: Gertu kooperatibia

TIRADIA: 2.125 ale

ISBN: 84-89696-14-4

LEGE GORDAILLUA: SS 1253/99

1999ko azarua

***Deba ibarreko
euskeria***

*Teknikan eta industrian legez,
euskeria aurrera ataratziarren be
ahalegiñian
diharduen
Deba ibarreko bizilagun guztieri
eskaintzen deutset
hau liburuau.*

Atarikua

Nork bere herriko berbetia erabili arren, Deba ibarran ez dogu bata bestiarri aitzeko eziñik izan. Sekula be ez dogu erderara jo biharrik izan. Baiña herri bateko euskeratik beste herrikora bada aldia. Gutariko bakoitxak badaki nor dan bere herrikua, eta nor auzokua. Berbetiak salatzen dau hori. Aldia txikixa da batzuetan, eta haundixagua bestietan. Aretxabaletatik Eskoriatzara, esate baterako, ez da gorabehera haundirik, baiña Aretxabaletatik Mendarora bada aldia.

Horixe da liburu honetan erakutsi nahi dana. Zeintzuk diran Deba ibarreko berbeten artian dagozan bardintasunak eta desbardintasunak. Helburua ez da, ba, Deba ibarreko berbeta bakoitxa goititik behera aztertzea. Herri batzuetan egindda dago hori biharri: Ermuan, Eibarren, Bergaran, Antzuolan eta Arrasaten. Aramaixon, Oñatin eta Mutrikun be egin dira saio batzuk, eta espero deigun gaiñerako herrixetan be holako ikerketak —eta ahal bada hobiak— lehenbailehen egittia.

Labur esanda, hauxe da hemen egin dana: Deba ibarreko berbetak banan-banan hartu, eta berbeta bakoitxian zeñ arau betetzen dan ikusi dot lehenengo. Ondoren, hórrek arauok zer eremu dauken begiratu dot, eta, azkenian, hórren eremuon arabera, Deba ibarreko berbetak sailkatu egin dittut.

Era guztietako arauak hartu dittut kontuan: fonologikuak, morfologikuak eta sintaktikuak. Hiztegixa be begiratu dot, nahiz eta oso arlo arriskutsua dala jakiñ. Kontua da berben kopurua amaiera bakua dala. Gutariko iñork ez dakiz bere herriko berba guzti-guztiak. Eibartar batek, esate baterako, bere herrixan ez dala *ezteguak* erabiltzen esango deutsu, eta beste batek, ostera, berak ezetz, baiña bere gurasueri-eta entzun deutsela esango deutsu. Bakoitxaren adiñak, bakoitxak euskeria zenbat eta zeñekiñ erabiltzen daben, bakoitxak euskeriarenganako zer zaletasun daukan... hor dago gorabeheria.

Dana dala, honen liburuonen asmua be ez da herri bakoitxeko berba guztiak jasotzia. Dialektologixia egittia da helburua: Deba ibarreko euskeria mendebalekua ala kiputxa dan erabagitzia, eta Deba ibar barruko berbeta multzuak zihaztia. Eta mendebalekua ala kiputxa dan jakittek, esate baterako, *izera* ala *maindire* esaten ete dan, *urriñ* ala *urruti* esaten ete dan begiratu biharko da. Deba ibar barruko multzuak zihazteko, berriz, *ariñe-ketan* ala *antxitxika* ala *takarraran* esaten ete dan, *amatau* ala *emendau* ala *itxungi* esaten ete dan begiratu biharko da. Eta, azken baten, hórretxek gauzok erakustia besterik ez da izan nire eginkizuna.

Deba ibarreko euskeria

Berbak dirala-eta, bada argittu biharreko beste kontu bat. Berba bat herri bateko zahar-rak bakarrik, edo herri bateko azken auzoko azken baserrikuak bakarrik erabiltzen dabean, hori berbiori *hilddakotzat* jo geinke. Gurasuak euren seme-alaberi erakusten deusezan berbak, eta herriko bizilagun gehixenen eguneroko jardunian erabiltzen diranak, hórretxek dira bizirik dagozanak. Eta hórretxek dira nik neuk be aintzakotzat hartu dittudanak.

Hala eta guztiz be, beti da interesekua adiñekuak zer erabiltzen dabean eta gaztiak zer erabiltzen dabean jakittia, berbete baten barruan dagozan inddarren barri emoten dabelako horrek. Eibarren, esate baterako, baserri auzuetan *udaguen* esaten bada eta kaletarren artian *udazken*, adiñekuak *begittandu* esaten badabe eta gaztiak *iruditu*, mendebaleko euskeria atzera, eta euskera kiputxa edo batua aurrera juatiaren erakusgarri izan leike hori. Eta Deba ibarreko gaurregungo euskeriaren azpitan diharduen in-ddarren barri emotia be bada honen liburuonen zeregiñetako bat.

Helburu nagusixak esandako hórrek diran arren, beste gauza batzuk argitzen be aha-leginddu naiz bide batez.

20. mende honetan mendebaleko euskeria bestien aldiran ziharo desbardiña dala esan izan da, hau da, euskera kiputxaren eta Bizkaikuaren artian daguan etena batera-baterakua eta garbixa dala esan izan da. Deba ibarreko euskeria aztertziak hori ustiori egixa ala ustela dan argitzeko aukera eziñ hobia emongo deusku, euskalki bixen tartian dagualako hau eskualdian.

Azken urtitan Arabako euskeria zelakua zan be eztabaidan dago. Deba ibarrak Arabarekin be mugia egitten dabenez, horri eztabaidiorri argixa egitteko be balixoko dau ibar honetako berbetak aztertziak.

Izan dittudan helburuak erakutsi ondoren, bittartekuen gaiñian be nahiko neuke zer edo zer esan. Lehenengo eta behiñ, hau liburuau Deba ibarreko bizilaguneri zuzenduta daguan, neure berbetia, Mallabia-Eibar aldekoa, erabilli dot. Hasieran be esan dot nork bere berbetia erabilli arren, baillara honetakuok sekula be ez dogula izan batak bestiari aitzeko eziñik. Eta ez dot ikusten zer dala-eta azken orduko moda barrixak betiko ohitturak hankaz gora ipiñi bihar dittuen. Danok ikusten dogu euskera batuaren premiñia, eta danok ikusten dogu euskera batuak ekarri dabean mesedia. Baiña alderdi bateko eta beste euskaldunak alkartzen giñenerako egin zan euskera batua; ez antzuolarrak bergararekin jarduteko.

Bigarrenik, Deba ibarreko ahalik eta bizilagun gehixenak irakurri deixen egin dot hau liburuau. Hori dala-eta, azalpen tekniko korapillotsuegixak alboratzen, eta gauzak argi eta erraz esaten ahaleginddu naiz. Dana dala, eta ahalegiñak ahalegiñ, berbeten arauen gaiñian jardungo dot, eta esaten dana jasotzeko, nahitaez jakin biharko da hórren arauon gaiñian zer edo zer.

Koldo Zuazo

Hau liburuau egitteko oso laguntza haundikuak izan dittut gure aurretikuen azterketak. Eta nahikua da azkenian ipiñi doten bibliografixiari begiratu bat emotia gure aurretikuok zenbat bihar egin daben ikusteko. Baiña, liburuetatik ez eze, bertatik bertako argibidiak be jaso bihar izan dittut, eta, horretarako, lankide eziñ hobiak subertau jataz neure inguruan. Ez da iñundik iñora be gauza bardiña euskeria hiltzorian dagan leku baten biharrian jardutia, edo bizi-bizi dagan leku baten jardutia. Euskeria bizi-bizi daganian, jentia estimatzen dabelako izan ohi da gehixenetan. Eta euskeria estimatzen dabenak, landu, ikasi eta erakutsi be egitten dau. Holakoxiak izan dira Deba ibarrian ezagutu ditudan lagunak, eta horrexegaittik erakutsi nahi deutset neure esker ona barriemolle izan ditudan guztieri:

Iñaki Alberdi mutrikuarrari,
Fernando Aranberri ermuarrari,
Iban Aranzabal elgetarrari,
Juan Andres Argoitia eibartarrari,
Manu Arrasate mutrikuarrari,
Ibon Arriola elgoibartarrari,
Begoña Azpiri eibartarrari,
Serafin Basauri eibartarrari,
Ander Epelde soraluzetarrari,
Amaia Erostarbe oñatiarrari,
Jon Errasti eskoriatzarrari,
Joseba Etxeberria mendaroarrari,
Nuria Fernandez Arroiabe gatzagarrari,
Eneritz Garro arrasatearrari,
Iñaki Larral oñatiarrari,
Jone Larrañaga antzuolarrari,
Ane Loidi aretxabaletarrari,
Imanol Lopez soraluzetarrari,
Larraitz Madinabeitia bergararrari,

Deba ibarreko euskeria

Jesus Mari Makazaga elgoibartarrari,

Leire Martinez de Gereñu arrasatearrari,

Amaia Olabarria antzuolarrari,

Amaia Olañeta uberarrari,

Txipi Ormaetxea aramaioarrari,

Arantza Ozaeta aramaioarrari,

Estepan Plazaola arrasatearrari,

Alberto Telleria elgetarrari,

Egoitz Unamuno soraluzetarrari,

Amaia Urzelai elgoibartarrari,

Aintzane Zabala debarrari,

Ander Zabaleta oñatiarrari.

Deba ibarrekua ez dan bat be izan dot laguntzaille: marrazkixak egin dittuan Andoni Elordui mungiarra. Berari be neure esker ona.

Dana dala, honek biharronek ez eban liburu itxurarik hartuko Fernando Muniozguren jaunaren ahalegiña izan ez balitz tarteko. Berbaz erakutsi ezin dan esker ona zor deusat berari.

Deba ibarra

Deba ibarreko hamabost herri izan dittut aztergai, Deba, Itziar eta Mallabia ez beste guztiak. Gaurregun behintzat, euskera kiputxian, edo *erdialdeko euskalkixa* deittu doten horren barruan, agertzen dira Deba eta Itziar, eta horrexegaittik laga dittut alde batera.

Zalantza haundixagua izan dot Mallabiarekiñ. Herri honetako auzorik gehixenak Deba ibarreakin batu leikezala uste dot, baiña ez danak. Batez be Zengotita eta Geria aldentzen dira eremu horretatik.

Honen errezoia aitzeko, kontuan izan bihar da txikixa izan dala, eta txikixa dala, Mallabiko hirigunia, eta ez daukala udalerriko urriñeko auzuak bereganatzeko inddar nahikua. Zengotita, esate baterako, Berrizi eta, batez be, Durangori begira bizi izan da, eta Durangora jo dabe, era berian, Geriako alderdi batekuak, eta Markiñara bestekuak. Ez dogu ahaztu bihar Bilbo-Ondarrua errepide ertzian dagozala Zengotita eta Geriako alderdi hori, eta erraztu egin dau horrek Durangorako joeria. Oso argibide esanguratsua da, hain zuzen, elixaz Berrizi dagokioxola Zengotita, eta Gollibari —oraiñ Markiñarekin bat egindda dago hau herrixau— Geria. Ostera, Mallabiko gaiñerako auzuak Eibarrerri begira —azken urtiotan Ermuari begira be bai— bizi izan dira. Hónek gertakari guztiok eragin zuzena izan dabe berbetan, eta Mallabiko euskeria nabar samarra danez, bereiz aztertzia hoba dala erabagi dot.

Aramaixoko Olaeta auzua be alde batera itxi dot. Lekuz be Aramaixoko gaiñerako auzuetatik bananduta, eta Otxandixori lotuta, dago Olaeta, eta berbetan be garbi ikusten da hori egoeriori.

Juan Martin Elexpuren (1996, xiii-xiv) esanetan, azkenik, Azkoitti aldeko berbetia egitten ei da Elosuko (Bergara) Aizpurutxo eta Elizalde auzuetan. Nik neuk ez dot hórrek auzuotako berbetia aztertu, baiña txikixa da, dana dala, bertako bizilagunen kopurua.

Aztertu dittudan hamabost herrixak hiru multzotan banandu dittut:

1. *Debagoiena*: Oñati, Leintz ibarreko lau herrixak (Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Arrasate), eta Arabako Aramaixo hartzen dittuana.

2. *Debaerdikua*: Antzuola eta Bergara, alde batetik, eta Soraluze, Eibar, Elgeta eta Bizkaiko Ermua eta Zaldibarko Eitzaga auzua hartzen dittuana, bestetik. Bigarren alderdi honetakoeri *Eibar aldeko berbetak* deittuko deutset saio honetan.

Deba ibarreko euskeria



3. *Debabarrena*: Elgoibar, Mendaro eta Mutriku hartzen ditтуana.

Izenak dirala-eta, ohartxo bat egin nahiko neuke. Juan dan urtiotan *Deba garaia* eta *Deba beherea* erabili dira gure artian, baiña hórrek izenok ez dira jatorriz guriak. Gure toponimixan *barren* eta *goien* tankerakuak erabili izan dittugu. Hor dira, Antzuolan bertan, *Irimobarrena* eta *Irimogoena* deitzen diran auzuak. Toponimixan ez eze, eguneroko jardunian be *prakabarrenak*, *gonabarrena* esaten dogu, eta euskalgaiztotzat hartuko gendukez **prakabehereak*, **gonabehera* esatia. Eta, hain zuzen be, euskalgaiztua dira, gure artian behintzat, *Deba garaia* eta *Deba beherea* hórrek. Esango dau baten batek hónek berbok oso zabalduta eta oso sartuta dagozala, eta *errezoi soziolinguistikuak* dirala-eta, hoba dala bazterrak ez nahastia eta gauzak bere horretan lagatzia. Baleike, baiña nik neuk uste dot errezoi soziolinguistikuak gorabehera, ezin dala euskalgaiztorik onartu eta, are gitxiago, bultzatu.

Koldo Zuazo

Beste alde batetik, Deba ibarra eremu administratibo bittan bananduta dago: *Debagoiena* eta *Debarrena* (edo, euskalgaiztoz, *Deba garaia* eta *Deba beheera*), baiña hizkuntziaren aldetik hiru eremu agertzen dira, eta horrexegaitik asmau bihar izan dot hirugarren izen bat: *Debaerdikua*.

Deba ibarreko euskeriari barriro helduaz, badira oso kontuan izan biharreko ezaugarriak. Bata, aspaldittik izan dala industrixagune esanguratsua: Arrasate, Bergara, Soraluze, Eibar eta Elgoibar, batez be. Herri hazi samarrak dira, eta inmigraziñogune be badira. Eta inmigraziñua ez da beti Espaiñiatik etorri; inguruko herri euskaldunetatik be iritsi da. Hori dala-eta, bateko eta besteko berbetak nahastau dira Deba ibarrían. Argi izan biharko dogu, ba, beste leku batzuetan baiño gatxagua dala hemen *Arrasateko euskeria*, *Begarako euskeria*, *Eibarko euskeria*, *Elgoibarko euskeria*... esatia, ohi baiño nabarraguak diralako hórrek euskerok. Dana dala, barriro diñot asmua ez dala berbeta bakoitxa zihatx aztertzia, euren kokagune dialektologikua erakustia baiño.

Herri hazixak, industrixaguniak eta inmigraziñoguniak izan arren, euskeriari —eta bertoko berbetiari— ondo samar eutsi jako Deba ibarrían, eta nahikua osasun ona dauka gaurregun be. Ermua da salbuespena, 1960ko hamarkadatik hona sekulako inmigraziño erdelduna hartu dabelako. Eta batera-batera etorrittako inmigraziñua izan da, gaiñera. 1960xan 3.029 bizilagun zittuan herri txixixak 10.089 zittuan 1965ian (Aranberri 1996: 26). Duda barik, honek inmigraziño itzalonek asko hondatu dau Ermuko euskeria.



Telesforo Monzon eta **Koldo Eleizalde**
Politikari eta idazle bergararrak

Deba ibarreko euseria

Hona hemen, jarraixan, aztergai izan dittudan hamabost herrixetako bizilagunen, euskaldunen eta euskalkildunen kopuruak (EUSTAT 1996):

Herrixa	Bizilagunak	Euskaldunak	%	Euskalkidunak¹	%
Antzuola	1.865	1.359	72,8	1.212	64,9
Aramaixo	1.282	1.121	87,4	1.075	83,8
Aretxabaleta	5.685	3.610	63,5	2.955	52
Arrasate	23.690	12.777	53,9	9.863	41,6
Bergara	14.700	10.098	68,7	8.638	58,8
Eibar	29.341	14.565	49,6	11.921	40,6
Elgeta	939	806	85,9	766	81,6
Elgoibar	10.610	6.271	59,1	5.344	50,4
Ermua	16.674	3.753	22,4	2.195	13,1
Eskoriatza	3.862	2.172	56,2	1.815	47
Gatzaga	239	189	79,1	178	74,5
Mendaro	1.269	980	77,2	908	71,5
Mutriku	4.554	3.895	85,5	3.689	81
Oñati	10.106	8.122	80,3	7.229	71,5
Soraluze	4.284	2.533	59,1	2.208	51,5
GUZTIRA	129.100	72.251	55,9	59.996	46,4

Atariko hau itxi baiño lehen, saio honetan erabiliko diran laburduren esanguria azalduko dot: *EH* ‘Euskal Herrixa’, *B* ‘Bizkaixa’, *gast.* ‘gastelania’, *mend.* ‘mendebal(eko)’, *a.e.* ‘ahoz esandakua’ (barriemoilleren batek emon deustan argibidia), *hh* ‘hurrengiak’, *orok.* ‘orokorra’, *EI* ‘Erizkizundi Irukoitza’ (Euskaltzaindixak 1920ko hamarkadan egindako galdekizun linguistikua), *EAEL* ‘Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa’ (Aranzadi Zientzia Elkartiak 1980ko hamarkadan egindako galdekizuna), *EHHA* ‘Euskal Herriko Hizkuntz Atlas’ (Euskaltzaindixak 1980ko hamarkadan hasitako galdekizuna).

¹EUSTAT-ek *euskaldun zaharrak* eta *jatorrizko elebidunak* deitzen dittuan hiztun multzuak batuta osatu dittut *euskalkidumen* kopuruak.

Saiuaren egitturia

Deba ibarrian betetzen diran ezaugarri edo arau mordua aurkeztuko da ondoren, eta irakurtzerakuan harixari albaitt erosuen jarraitu ahal dakixon, hórrek ezaugarrixok bederatzí multzotan antolatu dittut.

Deba ibarrian betetzen diran mendebaleko ezaugarri orokorrak erakutsiko dira lehenengo multzuan.

Deba ibarrian mendebaleko zeíñ ezaugarri betetzen ez dan esango da bigarrenian.

Euskera kiputxak Deba ibarrian daukan eragiña erakutsiko da hirugarrenian eta, ikusiko danez, hori eragiñori maillaz-maillakua da. Eragin txikixenekotik haundixenekora beste hiru saill egin dittut:

Debarrena eta Debaerdikua ezarri dittut lehenengo (4. multzua)

Debarrena eta Antzuola-Bergara alderdixa ondoren (5. multzua)

Debarrena hirugarren (6. multzua)

Euskera kiputxak Debagoienian izan daben eragiña oso txikixa da, Arrasaten eta, batez be, Oñatin hori eragiñori garbixago ikusten bada be.

7. multzuan, Deba ibarreko bertoko bereizgarri orokorrak azalduko dittut, baiña atzera barriro be ibar honetako euskeria ez dala bardiña agertu da.

Hori dala-eta, Debarrenian eta Debaerdikuan betetzen diran bereizgarrixak ezarri dittut 8. multzuan, eta Debagoienekuak bederatzigarrenian.

Ondorixuak eta mapa batzuk datoz saiuaeren amaieran.

Koldo Zuazo

Lehenengo Atala:
Deba ibarreko
euskeriaren
ezaugarrixak

DEBA IBARREKO EUSKERIAREN EZAUGARRIXAK²

1. Mendebaleko ezaugarri orokorrak Deba ibarrian

Aztergai ditudun hamabost herrixetan betetzen dira mendebaleko zenbait bereizgarri. Ikusiko denez, baiña, bereizgarri hórretariko batzuek ez dauke osasun berbera leku guztietan: indartsu dagoz alderdi batzuetan eta makalago bestietan.



² Ipiñiko diran adibidiak, bestelakorik esaten ez bada, Eibarko berbetakuak dira.

Deba ibarreko euskeria

1.1. Mendebaleko ezaugarriak Deba ibarrian

- (1) $-a + a \rightarrow -ia$ (> $-ie$) billakaeria.
- (2) $-e \rightarrow -a$ billakaeria.
- (3) $\langle z \rangle \rightarrow \langle s \rangle$ eta $\langle ts \rangle \rightarrow \langle tz \rangle$ billakaerak.
- (4) Erakusliak sustrai berbera singularrian eta pluralian.
- (5) Erakusliak izenaren ezkerretara eta eskumatara.
- (6) *neuk* tankerako izenordaiñ inddartuak aukera bakarra.
- (7) $-txo-$ txikigarria aukera bakarra.
- (8) *egin* sustraixa.
- (9) Nor-Nori iraganaldixa \rightarrow oraiña + N.
- (10) *ari izan* \rightarrow *ibilli, egon, jardun*.
- (11) Motibatibo eta helburu perpausetako $-t(z)iarren$.
- (12) Perpaus kontzesibuetako *arren*.
- (13) Perpaus konpletibuetako $-(e)na$.
- (14) *ala & edo* hautakarixak.
- (15) Orobatasuneko *zeiñ*.
- (16) Aldaera lexikuak.
- (17) Lexikua.

1. 2. Argibidiak

(1) $-a$ batekiñ amaitzen diran berberi a mugatzaillia gehitzerakuan $-a + a \rightarrow -ia$ (> $-ie$) gertatzen da. Emankorra da hau billakaeriau, hau da, gaurregun erderatik sartzen diharduen maillegetan be betetzen da:

koka-kola \rightarrow *koka-kolia*
SIDA (HIESA) \rightarrow *sídia*

(2) $-a + a \rightarrow -ia$ (> $-ie$) gertatu dalako, hain zuzen, hiztunok ez dogu beti argi izaten zeintzuk diran $-a$ batekiñ amaitzen diran berbak, eta zeintzuk $-e$ batekiñ amaitzen diranak. Izan be, *tabernia* moduan *loria* esaten dogu, eta *tabernia* hori *taberna* berbatik datorrela dakigunez, uste dogu *loria* be *lora* berbatik datorrela. Eta horretan, jakiña, oker gagoz, *lore* dalako jatorrizkua. Deba ibar osuan gertatzen da $-e \rightarrow -a$ nahaste hori, baiña oker esaten dittugun berbak ez dira leku guztietan berberak. Eibarkuak dira ondorengiak:

<i>agura</i>	‘agure’	<i>andra</i>	‘and[e]re’	<i>basurda</i>	‘basurde’
<i>bela</i>	‘bele’	<i>laba</i>	‘labe’	<i>lándara</i>	‘landare’
<i>lora</i>	‘lore’	<i>suba</i>	‘suge’	...	

Billakaeria beti betetzen da $-kume$ eta $-une$ osagarriak dittuen hitz elkartuetan:

Koldo Zuazo

txorikuma

báltzuna

(3) Euskaldun gehixenak lau txistukari erabiltzen dittuen bittartian, bi baiño ez dittugu esaten mendebal guztian³:

<z> eta <s> —> <s>

<tz> eta <ts> —> <tz>

(4) Erakusliak sustrai berbera dauke singularrian eta pluralian. Arrietak (1974) Mutrikun jasotakuak dira hónek:

orrek etorri dia ‘horiek etorri dira’ (32)

arek botatzeko ‘haiek botatzeko’ (35)

erletokixa esate sakue onei ‘erletokia esaten zaie hauei’ (51)

(5) Erakusliak eta erakuslietan oiñarritutako adberbixuak inddartu nahi diranian, izenaren esker eta eskuma ezarri ohi dira mendebalian⁴. Antzuolakuak dira adibidiak (Larrañaga 1998: 75):

au maixau noa erun bi da? ‘mahai hau nora eraman behar da?’

one(k) bentanok konpondu bierrian dae ‘leiho hauek konpondu beharrean daude’

Esan deixadan bide batez, erakusle bixak gradu berberekuak izan ohi dirala Deba ibarrian. Bizkaiko berbeta askotan, ostera, 3. gradukuak izaten dira eskumakuak:

Deba ibarrian B-ko berbeta batzuetan

órrek étxiok órrek étxiek

ori neskiori ori neskie

(6) Mendebalian *neuk* tankerako izenordaiñ inddartuak baiño ez dira erabiltzen; ez dago gaiñerako euskalkixetako *neronek* & *nihaurk* tankerakorik:

<i>neu</i>	<i>eu</i>	<i>geu</i>	<i>seu</i>	<i>seuek</i>
<i>neuk</i>	<i>euk</i>	<i>geuk</i>	<i>seuk</i>	<i>seuek</i>
<i>neuri</i>	<i>euri</i>	<i>geuri</i>	<i>seuri</i>	<i>seueri</i>
<i>neure</i>	<i>eu[re]kin</i>	<i>geu[re]tako</i>	<i>seu[re]gan</i>	<i>seue[n]gandik</i>
...

³ Lekukotasun zenbaitten arabera (UNED 1988: 10, 65; Elexpuru 1996: xxiv eta Isazelaia 1997: 94), <z> ez ei da ziharo galdu Bergarako Osintxu eta Elosu auzuetako adiñ haundiko hiztunen jardunian.

⁴ Dana dala, Debabarrenian eta Antzuola-Bergara aldeko berbetetan izenaren eskuman baiño ez dira ezarzen gehixenetan, batez be gazterixiaren jardunian.

Deba ibarreko euskeria

(7) Mendebalian *-txo-* da morfema txikigarri bakarra; arrotza da *-xe-* orokorra:

Mend.	Orok.
<i>áurreratxuago</i>	‘aurrera ^{xe} ago’
<i>léntxuago</i>	‘lehen ^{xe} ago’
<i>gerotxuago</i>	‘gero ^{xe} ago’

(8) *egin* sustraixa baiño ez dago aukeran; ez da erabiltzen **ezan*⁵. Horren adibide Arrietak (1974) Mutrikun jasotako hónek:

<i>arrixak jo estaixan</i>	‘harriak jo ez dezan’ (79)
<i>artu leike orrek</i>	‘har dezake horrek’ (82)
<i>atera isu kontua</i>	‘atera ezazu kontua’ (83)

(9) Nor-Nori sailleko adizkixen iraganaldixa ‘oraiña + N’ bidez egiñ ohi da⁶:

<i>jatan</i>	‘zitzaidan’
<i>jan / janan</i>	‘zitzaian / zitzainan’
<i>jakon</i>	‘zitzaion’
<i>jakun</i>	‘zitzaigun’
<i>jatzun</i>	‘zitzaizun’
<i>jatzen</i>	‘zitzaizuen’
<i>jakuen</i>	‘zitzaien’

(10) Ez dago Euskal Herri osoko *ari izan*. Ordezkuak *ibilli*, *egon* eta, berbeta batzuetan (Leintz ibarrían eta Aramaixon ez bestietan), *jardun* dira. Hau aditzau erabiltzen dan lekuetan, gaiñera, bizirik dagoz beronen adizki trinkuak be:

<i>diardut</i>	<i>niarduan</i>
<i>diarduk / n</i>	
<i>diardu</i>	<i>siarduan</i>
<i>diardugu</i>	
<i>diardusu</i>	
<i>diardusue</i>	

⁵ EHHA-k, dana dala, **ezan* sustraixaren adibide banaka batzuk jaso dittu Mendaron: *sesaken* ‘zezakeen’, *sasu* ‘ezazu’, *isasu* ‘itzazu’. Baita EAEL-k be Mutrikun: *arrautza orrek eraman zazue* ‘arraultza horiek eraman ezazue’ (243); *eran zazue* ‘edan ezazue’ (254).

⁶ Mutrikun ‘ZIT + oraiña + N’ dauken *sitzaten*, *sitzakon*, *sitzakun* tankerakuak be entzuten dira adiñeko hiztunen jardunian (ikus, esate baterako, Arrieta 1974) eta, ostera, *satén*, *sakon*, *sakun* modukuak dira gaztiaguen artian ohikuenak. Mendaron be \emptyset - & *zit-* lehián dira: *satan* & *sitzatan*, *sakon* & *sitzakon*...

Koldo Zuazo

diardue

siarduen

Mendaron eta Mutrikun, gaurregun behintzat, *ari izan* be bada aukeran, bestiak bezaiñ ohikua ez bada be.

(11) Motibatibo eta helburu perpausetan, Euskal Herri osoko *-t(z)eko* eta *-t(z)iagaittik* morfemekin batera *-t(z)iarren* be bada aukeran. Antzuolakua da adibidia (Larrañaga 1998: 171):

dantza ittearren be dirua pagatze san

‘dantza egitearren ere dirua ordaintzen zen’

(12) Perpaus kontzesibuetan, beste aukera batzuekin batera, *arren* morfemia be bada mendebalian⁷. Antzuolakua da adibidia (Larrañaga 1998: 229):

oiñ asko irabasten dala pentzau arren, pagakisun ueri dao

‘orain asko irabazten dela pentsatu arren, ordainkizun ugari dago’

(13) Perpaus kompletibo jakin batzuetan *-(e)na* morfemia da aukeran. Antzuolakua da adibidia (Larrañaga 1998: 163):

oniskeo bakixe, ba, Antzuolan, ni emen nauana

‘honezkero badakite, ba, Antzuolan, ni hemen nagoena’

(14) *ala* & *edo* hautakarixak bereizten dira⁸. Antzuolakua da adibidia (Larrañaga 1998: 157):

aura nik estaitt erok eruan seben kamioian aurrea ala desaparecidu in san

‘hura nik ez dakit eurok eraman zuten kamioian aurrera ala desagertu egin zen’

Bigarren aukeria ixiltzen dan galdera perpausetan erabiltzen da sarri *ala* mendebalian. Antzuolakua da adibidia (Larrañaga 1998: 157):

soatu in ga, ala?

‘zoratu egin gara, ala?’

(15) Berbeta gehixenetan ezaguna da orobatasuneko *zeiñ*, nahiz eta batzuetan atzeraka doian edo ziharo galdu dan:

⁷ Ipar EH-n be bada hau morfemiau, baiña Hego EH-ri dagokixonez, mendebalian eta Gipuzkuako ipar-mendebaleko berbeta batzuetan baiño ez da gorde.

⁸ Ipar EH-n be bereizten dira, baiña Hego EH-ri dagokixonez, mendebalian baiño ez dira bixak gorde. Dana dala, Deba ibarreko berbeta batzuetan be *edo* nagusituaz doia eta atzeraka *ala*; Debarrenian gehixenbat.

Deba ibarreko euskeria

orreri bardin detza surixa sein baltza isan
'horri berdin dio zuria nahiz beltza izan'

(16) Aldaera lexikuak⁹.

*-ani > -aiñ egin daben *arraiñ, usaiñ, saiñ* (eta *basosaiñ, umesaiñ* tankerako eratorrixak)¹⁰.

-d- dauken *bedar, edur, idar, sidar* (orok. 'belar', 'elur', 'ilar', 'zilar').

n- dauken *narru, nasai* (orok. 'larru', 'lasai').

baten (mugagabia) eta *batian* (mugatu singularra) bereizten dira; hau da: *taberna[re]n baten egongo da* [mgg] eta *bátian espada béstian egongo da* [mug. sg.].

Mendebalekuak dira Deba ibarreko hónek beste aldaerok be:

<i>ardau</i> 'ardo'	<i>asur</i> 'hezur'	<i>barre</i> 'parre'
<i>burdi</i> 'gurdi'	<i>burdiña</i> 'burdina'	<i>burruka</i> 'borroka'
<i>ete</i> 'ote'	<i>gastai</i> 'gazta'	<i>keixa</i> 'gerezi'
<i>kipula</i> 'tipula'	<i>matrailla</i> 'masaila'	<i>puxika</i> 'bixika'
<i>suiñ</i> 'suih'	<i>txarri</i> 'txerri'	<i>txixa</i> 'pixa'
<i>(ogixaren) mamiña</i> 'mamia'		

(17) Lexikua.

Mendebaleko berba asko dago Deba ibarran:

Asteke egunen izenak: *martitzen* 'astearte', *eguasten* 'asteazken', *éguen* 'ostegun', *bari(xa)ku* [eta leku batzuetan *eguakitiz* tankerako aldaerak] 'ostirale', *sápatu* 'larunbat', *dómeka* 'igande'.

seintzük, sertzük (eta leku batzuetan *nortzük*) pluraleko izenordaiñak (orok. 'zein', 'zer', 'nor', singularrian zein pluralian).

Mendebalian legez, *aran & oka[ra]n* bereizten dira, eta baita *bekoki* 'buruaren aurreko aldia' & *kopeta* 'nesken ule trentzia' be; baiña mendebalian legez, *ume* da aukera bakarra (ez dago *haur*).

⁹ Aurrera egin baiño lehen, *aldaera lexikua* zeri esaten deusadan argitu nahiko neuke: *laga & itxi, lan & bihar*, esate baterako, berba desbardiñak dira eta, holakuak, *lexikuan* erakutsiko dittut. Ostera, *irin & urun, tipula & kipula* ez dira berba bi; berba berberaren aldaerak baiño.

¹⁰ Ipar EH-n eta Baztanen be *-ani → -ain izan da billakaeria. Ostera, Hego EH-n *-ani → -ai gertatu da (*arrai, usai, zai*), mendebalian izan ezik.

Koldo Zuazo

Mendebalekuak dira ondorengiak be:

<i>abade</i> 'apaiz'	<i>apurtu</i> 'puskatu'	<i>armosu</i> 'gosari'	<i>batu</i> 'bildu'
<i>ei</i> 'omen'	<i>eskutau</i> 'gorde'	<i>gánora</i>	<i>isara</i> 'maindire'
<i>itzal</i> 'izugarri'	<i>kantzau</i> 'nekatu'	<i>kerizpe</i> 'itzal'	<i>odoloste</i> 'odolki'
<i>osatu</i> 'sendatu'	<i>óste</i> 'atze, ondoren'	<i>sela(n)</i> 'nola'	<i>soro</i> 'ero'
<i>sil</i> 'zilbor'	...		

Galbidian, eta leku batzuetan ziharo galduta, dagoz hónek bestiok:

<i>gomuta</i> 'oroitzapen'	<i>iseko</i> 'izeba'	<i>ja(ra)mon</i> 'kasu egin'
<i>ogerleko</i> 'duro'	<i>semendi</i> 'azaro'	...




Toribio Etxebarria (1887-1968)
Politikari, enpresari eta idazle eibartarra



Serafin Basauri
Idazle eibartarra



Imanol Laspiur
Idazle eibartarra



Juan San Martin
Idazle eibartarra

Deba ibarreko euskeria

2. Deba ibarrian betetzen ez diran mendebaleko ezaugarri orokorrak

Mendebaleko ezaugarri orokorren artian badira Deba ibarrian betetzen ez direnak.



Koldo Zuazo

2.1. Deba ibarrian ez diran mendebaleko ezaugarriak

- (1) *-au-* → *-eu-* billakaeria.
- (2) /i __ bokal/ arteko $z > s > x$ billakaeria.
- (3) ‘*edo* + izenordain galdetzaillia’ sail osua.
- (4) ‘izenordain galdetzaillia + *edo* + izenordain galdetzaillia’ sail osua.
- (5) ‘*nahi* + izenordain galdetzaillia’ saila.
- (6) Denpora perpausetako *-keran*.
- (7) Galdera eta baldintza perpausak nahastia.
- (8) Kausa eta modu perpausak nahastia.
- (9) Aldaera lexikuak.
- (10) Lexikua.

2. 2. Argibidiak

- (1) *-au-* → *-eu-* billakaeria. Bizkai gehixenian dago hau joeriau, baiña ez Deba ibarrian:

B	Deba ibarra
<i>eurrrera</i>	áurrera
<i>geur</i>	gaur
<i>geusa</i>	gausa

- (2) Bizkai gehixenian betetzen da /i __ bokal/ arteko $z > s > x$ billakaeria, baiña ez Deba ibarrian:

B	Deba ibarra	
<i>bixer</i>	bisar	‘bizar’
<i>ixer</i>	isar	‘izar’
<i>ixerdi</i>	iserdi	‘izerdi’

- (3) Bizkai gehixenian dago ‘*edo* + izenordain galdetzaillia’ sail osua, berbeta batzuetan atzera-ka egin badau be:

<i>edonun</i>	<i>edonundik</i>	<i>edonungo</i>
<i>edonora</i>	<i>edono(re)n</i>	<i>edonos</i> ...

Deba ibarrian, Euskal Herri osokua dan *edoseiñ*, eremu zabalekua dan *edoser*, eta euron eratorrixak (*edosertako*, *edoseiñekiñ*...) baiño ez dira erabiltzen¹¹.

¹¹ Berbeta batzuetan (Eibar, Elgeta, Bergara, Mutriku) *edosenbat* be bada, ‘asko’ esanguriarekiñ. Ermua eta Mutriku dira mendebalari lotuen agertzen diranak. Sail osua dago Ermuan (Aranberri 1996: 73), eta *eonora*, *eonun*, *eonundikan*, *eosela* izenordaiñak, behiñik behiñ, ezagunak dira Mutrikun. Toribio Etxebarriak (1965) *edonai* ‘edonon’, *edonola*, *edonor*, *edonora*, *edonun*, *edotarikua* ‘edozein motatakoa’, *edozela*, *edozelako* jaso zittuan bere hiztegixan, baiña gaurregun ez dira erabiltzen eibartarren jardunian.

Deba ibarreko euskeria

(4) Bizkai gehixenian dago ‘izenordain galdetzaillia + *edo* + izenordain galdetzaillia’ sail osua:

nónor ‘nor edo nor’ *nónoren* ‘nor edo noren’ *nónogas* ‘nor edo nogaz’
núnungo ‘non edo nongo’ *núnundik* ‘non edo nondik’ *nónora* ‘nora edo nora’ ...

Deba ibarrian, Euskal Herri osokuak diran *nois edo nois*, *nun edo nun*, *ser edo ser*, eta euron eratorri batzuk (*séosela*, *séosertan*, *séosekiñ*...) baiño ez dira erabiltzen¹².

(5) Bizkai gehixenian dago ‘*nahi* + izenordain galdetzaillia’ saila (orok. ‘izenordain galdetzaillia + *nahi*’), baiña ez Deba ibarrian:

naiñor ‘nornahi’ *naiño[re]n* ‘nornahiren’ *naiño[re]ngana* ‘nornahigana’
naiñora ‘noranahi’ *naiñun* ‘nonahi’ *naiñundik* ‘nonahitik’ ...

(6) Bizkai gehixenian dago denpora perpausetako *-keran* morfemia, baiña ez Deba ibarrian¹³:

argie ixotukeran ikusi dot

(7) Bizkai gehixenian zihar galdera eta baldintza perpausak nahastau egitten dira gaztelaniako *si* adverbixuak eragindda. Deba ibarrian, ostera, ez dira ohikuak tankera honetakuak:

esta(k)it etorriko bada

(8) Bizkai gehixenian nahastau egitten dira kausa eta modu perpausak gaztelaniako *como* adverbixuak eragindda. Deba ibarrian, ostera, arrotzak dira tankera honetakuak:

eurie dan le[ge]s seure automobile artuko dot

(9) Deba ibarrian arrotzak dira Bizkai gehixeneko hónek aldaerok:

B	Deba ibarra
<i>uger</i>	<i>igari</i>
<i>gan(e)</i>	<i>gaiñ</i>
<i>garri</i>	<i>gerri</i>

¹² Berbeta batzuetan (Elgeta, Bergara, Elgoibar, Mutriku) *nora-nora* & *nonoa* esaten da, eta *nunundik* be bai Mutriku. T. Etxebarriak (1965) *nuonor*, *nuonora* jaso zittuan Eibarren, baiña arrotzak dira gaurrengungo eibartarren jardunian.

¹³ Arrasaten hónek adibidiok jaso zittuen J.M. Garaik eta E. Plazaolak (1999: 181-247): *Uribarriko kurtze paretik pasaukeran or nun sometan dauen ume baten negarra* (185); *Billerleko Miradorera allegaukeran asi jatek autobusoi tar-tar-tar eta kieto parau* (191). Dana dala, gaurrengungo arrasatearren jardunian arrotza da hau morfemiau

Koldo Zuazo

(10) Deba ibarrian ez dira ohikuak, edo ziharo arrotzak dira, Bizkaiko berba batzuk:

B	Deba ibarra
<i>enparauak</i>	<i>béstiak (& gáñerakuak, gáñontzekuak)</i>
<i>neba</i>	<i>anaia</i>
<i>olgau</i>	<i>jolas egiñ</i>
<i>udaguena</i>	<i>udaskena & udatzena</i>

Salbuespen bi dira: Aramaixon erabiltzen da *neba*, eta Ermuan *olgau*¹⁴.



Ezequiel Etxebarria Irusta (1852-1925)
Eibarren jaiotako eta Ermuan izan zan abade.
*Etimologías vascongadas*en egillia.



Guillermo Bengoetxea "Txindurri" (1878-1966)
Bertsolarixa eta kantu zaharren batzaille
ermuarra



Idazle mutrikuarra

¹⁴ Juan dan hiru mendiotan euskera kiputxak bereganatu daberen prestijixua dala-eta, euskalki horretako berbak zabaldu dira Deba ibarrian, eta bertoko betikuak galdu. Esate baterako, Deba ibarreko lanabesak begiratuz gero, *olgau* berbia ezaguna izan dala ikusten da. Isazelaiak (1997: s.u. *arilketa*) *goruetia olgetia*, *arilketia neketia* jaso eban Bergaran, eta Izagirrek (1956: 182) *zerraittia olgaittia*, *arilketia nekaittia* Oñatin eta Eskoriatzako Marin auzuan. Izagirrek berak (1970) gaurregungo oñatiarren jardunian nekez entzuten diran *marti* 'martxo', *garagarri* 'uztail' eta *semendi* 'azaro' hillabete izenak, eta *enpárauak*, *gomuta*, *neba*, *sama* 'lepo' jaso zittuan. Juan San Martinek (1990: s.u. *udaguena*) diñuanez, berriz, Eibarko baserri auzuetan ezaguna ei da *udaguena* berbia, eta T. Etxebarriak (1965) *enparaua* eta *olgetan* jaso zittuan. Niri neuri be *enparauak* eta *neba* ezagunak (izan) dirala Eskoriatzan esan deuste, eta baita *enparaukuak* Gatzagan eta *olgau* Mutrikun be.

Atarikuan esan doten legez, lan nekeza da herri bateko lexikua zihatzen batzia eta gaintitu egiten dittu, gáñera, honen saiunonen mugak, baiña, hala eta guztiz be, ezinbestekua eritxi deusatu hau moduko dialektologixa lan baten hori arluori be aittatziari. Etorikizuneko herriz herriko azterketak zuzenduko al dittu honetan diran hutsuniak eta akatsak!

Deba ibarreko euskeria

3. Ezaugarri kiputzak edo orokorrak Deba ibarrian

Gipuzkoa da administraziñoz Deba ibarra, eta euskera kiputzarekiñ egitten dau muga. Agiri-agirixan dago horren kokaguniorren eragiña ibar honetako berbetan. Bestalde, euskera kiputzaren bereizgarrixez gaiñera, Euskal Herri osuan edo gehixenian zabaldu diran beste batzuk be iritsi dira Deba ibarrera, baiña ez Bizkaira. Hona, lehenengo eta behiñ, Deba ibar osuan aurkittu dittudan ezaugarri kiputzak edo orokorrak.



3.1. Deba ibarreko ezaugarri kiputzak edo orokorrak

- (1) Aldaera lexikuak.
- (2) Lexikua.

3.2. Argibidiak

- (1) Aldaera lexikuak.

Koldo Zuazo

Mendebalian saihestu egiñ ohi dira erakuslietako *-rt-* eta *-rk-* konsonante multzuak: edo *-e-* tartekatzen da edo *-r-* galtzen da:

hartan → *aretan & atan*
hark → *arek & ak*

Deba ibarrian be ez dago *-rk-*, baiña bai *-rt-*. Horren adibide Antzuolako hónek (Larrañaga 1998: 72):

artan *artako*
artara *artatik*

Dana dala, *aretan* tankerakuak be badira, eta berbeta gehixenak (Eibar aldekuak, Elgoibar, Gatzaga eta Aramaixo, batez be), mendebaleko joeriari jarraituaz, *-rt-* multzua saihestu egitten dabe.

Deba ibarreko berbeta batzuetan *barkatu* erabiltzen da (mend. ‘parkatu’), eta *bekatu & pekatu, pake & bake* lehia be bada (mend. ‘pekatu, bake’).

Bestalde, Debarrenian eta Debagoienian ez dago *-n- esan* aditzaren trinkuetan; Debaerdikuan baiño ez dira erabiltzen mendebaleko *diñot, diño, diñosu* tankerakuak¹⁵.

Mendebaletik aldentzen diran beste aldaera batzuk be badira Deba ibarrian:

jaiki (eta *jaiki & mend. ja(g)i* Debagoienian¹⁶)
legatz & leatz mend. ‘lebatz’
mutur mend. ‘mustur’
olixo mend. ‘ori(x)o’

Elgetan, Bergaran, Antzuolan eta Debagoienian *gutxi* ‘mend. gitxi’ esaten da¹⁷.

(2) Lexikua.

Euskera kiputxian legez, *zein* galdetzailiak ixa guztiz baztertu dau *nor*. Antzuolakua da adibidia (Larrañaga 1998: 68):

¹⁵ Esan deixadan bide batez, Leintzen eta Aramaixon gaurregun ez dirala bat be ohikuak *esan*-en adizki trinkuak. Aramaixon, esate baterako, *dixo* ‘dio’ eta *dixue* ‘diote’ baiño ez dira erabiltzen.

¹⁶ Aramaixon egiñ ohi dan hitz jokua aittatu deusta A. Ozaetak: *Ser, bixer jai? -Bai, jái in bier! ‘Zer, bihar jai? -Bai, ja[g]i egin behar!’*

¹⁷ Esan deixadan, dana dala, *lebatz* be badala Arrasaten, Gatzagan eta Aramaixon, baitta *mustur* be Eibarren eta Gatzagan, eta *orixo* be bai Eibarren. Soraluzen be ezaguna da *gutxi*, eta, aldi berian, *gutxi & gitxi* erabiltzen dittue Mendaron eta, adiñekuak, Antzuolan (*gutxi* baiño ez Antzuolako gaztiak).

Deba ibarreko euskeria

seiñek inddau au? ‘nork egin du hau?’

Dana dala, *nor* eta beronen eratorrixak be bizirik dagoz Debagoienian eta Eibar aldeko berbetetan, batez be adiñeko hitzunen jardunian.

Bizkaixan arrotzak diran berbak be badira Deba ibar gehixenian:

bela(xe) ‘berehala(xe)’
isugarri
puska (eta *puskatu*, *pusketa* eratorrixak)

Deba ibarreko herririk gehixenetan erabiltzen dira Bizkaixan arrotzak diran hónek berbok:

arkakuso (eta *arkakuso* & mend. *ardi* Mutrikun, Eibar aldeko berbetetan eta Leintzen, eta *ardi* bera bakarrik Aramaixon).

erdoi & *ordai*. Eibar aldeko berbetetan baiño ez da erabiltzen mend. *ugar*, eta *erdoi* & *uar* lehia da Antzuolan, eta *ordai* & *uger* Aramaixon.

estaiak, baiña mend. *esteguak* Eibar aldeko berbetetan. Bergaran bixak izan dira ezagunak, gurregun —berbeta guztietan moduan— bixak galbidian badira be.

itz, *izketa* ezagunak dira, nahiz eta Mendaron eta Mutrikun ez beste herrixetan mend. *berba*, *berbeta* diran ohikuaguak.

lan (eta *lan* & mend. *biar* Elgetan, Arrasaten eta Elgoibarren, eta *biar* bera bakarrik Ermuan, Eibarren eta Soraluzen).

lepo. Eibar aldeko berbetetan baiño ez da erabiltzen mend. *sama*, nahiz eta Aramaixon, Oñatin eta Bergaran be ezaguna dan.

txar & *gaisto* bereizten dira Deba ibar osuan —Aramaixon eta Arrasaten izan ezik— (Bizkaixan *txar* baiño ez da erabiltzen).

urdaiaspiko (eta *urdaiaspiko* & mend. *pernil* Eibar aldeko berbetetan, Gatzagan, Arrasaten eta Aramaixon).

Mendebaletik aldentzen diran beste berba batzuk be badira Deba ibarreko zenbait lekutan:

artzaiñ (& mend. *pastore*) Debabarrenian, Antzuolan eta Oñatin.

bukatu (Mendaro, Elgoibar, Bergara, Antzuola, Oñati), nahiz eta mend. *amaittu* eta *akabau* maillegua lehiakide dittuan lekurik gehientsuenetan.

Koldo Zuazo

fabores (& mend. *mesedes*) Mutrikun, Mendaron, Bergaran eta Oñatin.

nola —Elgoibarren *nolatan*— (& mend. *sela*) Debararrenian, Antzuolan eta Oñatin.

Deba ibar osuan *bekoki* esaten dan arren, *kopéta baltza* jaso eban Izagirrek (1970: s.u. *kopéta*) Oñatin¹⁸.

Hillabetien izenak gehixenbat erderazkuak erabiltzen diran arren, euskerazkuak be ezagutzen dittue adiñeko hiztunak, eta hórren artian badira mendebaletik aldentzen diran bi Deba ibarreko berbeta batzuetan (Oñati, Antzuola, Bergara, Elgeta, Elgoibar, Mendaro):

<i>ilbaltza & ilbeltza</i>	mend. ‘urtarrilla’
<i>otzailla</i>	mend. ‘zezeilla’

4. Ezaugarri kiputzak edo orokorrak Debararrenian eta Debaerdikuan



¹⁸ Aramaixon be behiñik behiñ, erabiltzen da *kopeta* esangura horrekiñ: *kopeta illune dauketzu* (A. Ozaetak a.e.)

Deba ibarreko euskeria

Euskera kiputxaren eragiñak ez dauka inddar bardiña Deba ibar osuan. Mendebalari lotua-gua agertzen da Debagoiena, Leintz ibarra eta Aramaixo batez be. Ostera, euskera kiputxaren eta, oro har, gaiñerako euskalkixen eragiña haundixagua da Debabarrenian eta Debaerdikuan. Oñati, berriz, bixen tartian agertzen da.

4.1. Debabarreneko eta Debaerdiko ezaugarri kiputxak edo orokorrak

- (1) 'Vj + z & tz'.
- (2) Soziatiboko *-kin*.
- (3) Iraganaldiko 3. personetako *z-*.
- (4) Aditzizenetako morfema bakarrak: *-tzen* & *-ten*.
- (5) Mugimenduzko aditzekiñ aditzizenak adlatibuan.
- (6) Aldaera lexikuak.
- (7) Lexikua.

4.2. Argibidiak

(1) 'Vj + z & tz' bere horretan gorde da; ez da mendebaleko 'Vj + z & tz' → 'V + x & tx' billa-kaeria bete. Hau da:

haize	→ aixe	→ axe
hareitz	→ areitx	→ aretx

Eremu barruan dago Oñati. Ostera, erdibidian dagoz Eibar, Elgeta eta Ermua. Eibarko eus-keria hartzen badogu adibide, batzuetan ez da bustidurarik:

nais
ais
nois

Beste batzuetan, ostera, bai:

<i>a(i)xe</i>	<i>aixkora</i>	<i>urritx</i>
<i>elixa</i>	<i>lixar</i>	

Aldaera bixen lehia dago bestietan:

aritx & aritz
atx & aitz
bakotx & bakoitz
gatx & gaitz
goix & gois

Koldo Zuazo

Dana dala, Deba ibar osuan erabiltzen dira *atxur* ‘aitzur’ eta *keixa* ‘gerezi’ (baiña *keisa* Soraluzen eta Oñatin, eta baita bergarar batzuen jardunian be).

(2) *-kin* da soziatiboko morfema bakarra, bai singularrian eta bai pluralian. Debagoienian *-kin* dago pluralian, baiña *-kin* & mend. *-az* lehia singularrian. Ermuan eta Eibarren be ezaguna da singularrian *-az*, ohikuen *-kin* dan arren¹⁹.

(3) Iraganaldiko 3. personetako adizkixetan *z-* dago Debarrenian (mend. \emptyset - gehixenetan). Elgoibarkuak dira hónek:

<i>sauan & saban</i>	mend. eban	‘zuen’
<i>satorren</i>	mend. etorren	‘zetorren’
<i>sakixan</i>	mend. ekien	‘zekien’

Debaerdikuan be (Ermuan izan ezik) oso zabaldua dago, gazterixiaren jardunian gehixenbat. Arrasateko kalia be gero eta sarrixago erabiltzen da, eta lehia horren adibide dira hónek bikotiek:

Adiñekuak	Gazterixiak	
<i>auen</i>	<i>sauen</i>	‘zuten’
<i>ostan</i>	<i>sostan</i>	‘zidan’

Hau dala-eta, ‘*ez + z-*’ \rightarrow <tz> ebakeria be entzuten da iñoiz berbeta batzuetan. Antzuolan, esate baterako (Larrañaga 1998: 43):

<i>etzan</i>	‘ez zen’
<i>etzebillen</i>	‘ez zebilen’
<i>etzeuan</i>	‘ez zegoen’

Deba ibar osoko gazterixiak, dana dala, <s> ebakitzen dau sarrixen, mendebalian moduan:

<i>esan</i>
<i>esebillen</i>
<i>eseuan</i>

(4) Aditzizenak osatzeko *-tzen* & *-ten* baiño ez dagoz aukeran, eta aldaera hónetako bakoitxa erabiltzeko arauak be Euskal Herriko erdiguneko berbetetan dagozan berberak dira:

¹⁹ Adiñeko eibartarrak pluralian be erabiltzen dabe iñoiz *-az*: sg. *lagunáas* / pl. *lagúneas*. T. Etxebarriaren hiztegixan be (s.u. *gaz, kin*) singularreko zein pluraleko hainbat adibide daukaguz, ziurrenera aspaldi ohi-kuagua zan seiñale. Estepan Plazaolak (a.e.) *egumokas estot ikusi* esapidian jaso dau pluraleko *-kaz* Arrasateko Udala auzuan, eta Jon Errastik (a.e.) *urtiokas pasau dittuk danok* esapidian Eskoriatzan.

Deba ibarreko euskeria

Partizipixua <i>-tu</i>	—> <i>-tzen</i> (<i>apurtzen</i>)
Partizipixua <i>-au</i>	—> <i>-tzen</i> (<i>pentzatzzen</i>)
Partizipixua <i>-(r, l, n, g, k)i</i>	—> <i>-tzen</i> (<i>ekartzzen, ibiltzen, ipintzen, erabagitzzen, eukitzzen</i>)
Partizipixua <i>-a, -e, -o</i>	—> <i>-tzen</i> (<i>botatzzen, gordetzzen, jasotzen</i>)

Dana dala, Debaerdikuan *joten* ‘jotzen’ esaten da, eta *iltten* ‘hiltzen’ be bada berbeta batzuetan. Eremu zabalaguan erabiltzen dira *ebaten* & *ebaitzen* ‘ebakitzzen’.

Nabarmentzekua da Eibar aldeko berbetetan eta Debabarrenian *-n* batekiñ amaitzen diran partizipixoa batzuek be *-tzen* egitten dabela aditzizena. Eibarkuak dira hónek:

<i>ekitzzen</i>	<i>entzutzzen</i>	<i>erantzutzzen</i>
<i>etetzzen</i>	<i>jakitzen</i>	<i>jardutzzen</i>

Antzuolan be badira *jakitzen, jardutzzen*, eta berbeta gehixagotan be bai *urtetzzen* & *ertetzzen*²⁰.

(5) Aditzizenak, mugimenduzko aditzen osagarri diranian, eta norabidia edo helburua adierazten dabenian, adlatibuan erabiltzen dira (mend. inesibuan):

pelikula bat ikustera noia (mend. *ikusten noa*)

Eremu barruan dago Oñati, eta Ermuan, ostera, inesibua be ez da ziharo arrotza (Aranberri 1996: 138).

(6) Aldaera lexikuak.

Partizipixoa orokorrak erabiltzen dira: *ustu* ‘mend. utzitu’ (baita Oñatin be, baiña *utzitxu* be bai Mutrikun), *ostu* (& mend. *otzixu* Eibar aldeko berbeta batzuetan eta Mutrikun), eta Debabarrenian *belstu* (Eibar aldeko berbetetan be *balstu* & *baltzitu* lehia).

nere tankerako izenordaiñak ‘mend. nire’ (baita Oñatin be).

gisur ‘mend. guzur’ (baita Oñatin be, eta *gusur* —sarrixen— & *gisur* lehia Eibarren, eta *gisur* & *gesur* Mendaron eta Elgoibarren).

intz (eta *intz* & mend. *iruntz, iñuntz* lehia Elgetan eta Arrasaten, hurrenez hurren).

²⁰ T. Etxebarriaren hiztegitan era honetako aditzizen gehixago agiri dira: *eraintzen* ‘ereiten’, *eraitzen* ‘eragiten’, *etzintzen* ‘etzaten’, *irakintzen*, *irauntzen*, *itxaintzen* ‘itxaroten’, baiña gaurregun ez dira erabiltzen eibartarren jardunian.

Koldo Zuazo

kerten (eta *kerten* & mend. *kirten* Eibarren).

sapai (baita Oñatin be, baiña mend. *sabai* sarrixago Eibarren).

(7) Lexikua.

esnatu (Elgetan mend. *etxartu* be ezaguna da²¹).

gaiski (baiña mend. *txarto* & *txarki* be badira Debaerdikuan. Lehia berbera dago Oñatin eta Arrasaten).

laga ‘mend. itxi (utzi)’.

nai (eta *nai* & mend. *gura* Ermuan, Eibarren eta Elgetan).

sukalde (baita Oñatin be, eta *sukalde* & mend. *eskatz* lehia Ermuan eta Elgetan. Leintzen be bada *sukalde*, baiña *eskatz* da ohikuagua hemen)²².

berris & *barris* erabiltzen da ‘mend. barriro’ esanguriarekin (baita Oñatin be).

5. Ezaugarri kiputxak edo orokorrak Debarrenian eta Antzuola-Bergara aldian

Debaerdikuan, Antzuola eta Bergara dira ezaugarri kiputx eta orokor gehixen dittuenak. Soroluzek eta Oñatik be sarri egitten dabe eurekin bat. Elgeta, Eibar eta Ermua, ostera, mende-balari lotuago agertzen dira.

5.1. Debarreneneko eta Antzuola-Bergara aldeko ezaugarri kiputxak edo orokorrak

- (1) $f \rightarrow p$ billakaeria.
- (2) *aura* erakuslia.
- (3) Modu adberbixuetan $-\emptyset$.
- (4) Aditzen pluralgillietan aukera zabala.
- (5) Iragangaitzen 2. persona pluraleko *-te* aldaeria.
- (6) Modu eta konparaziño perpausetako *bezela* & *bezelako*.
- (7) Kausa-esplikaziño perpausetako *nola*.
- (8) Baldintza perpausetako *baldin*.
- (9) *bi* zenbatzaillia izenaren ezkerretara.
- (10) Aldaera lexikuak.
- (11) Lexikua.

²¹ Antzuolan be jaso dau Larrañagak (1998: 210) *itxarri*.

²² Elexpuruk (1996: s.u. *eskatz*) diñuanez, Bergaran be bazan antziña.

Deba ibarreko euskeria



5. 2. Argibidiak

(1) Euskera kiputxian garatu dan $f \rightarrow p$ billakaeria gaurregun ez da emankorra, baiña Antzuolako adiñeko hiztunen jardunian, esate baterako, badira zenbait azterna (Larrañaga 1998):

<i>aparixa</i> 'afaria'	<i>panparreixa</i> 'fanfarrera'
<i>Paustiño</i> 'Faustino'	<i>Praixko</i> 'Franzisko'
<i>perixia</i> 'feria'	<i>prekillo</i> 'flekillo'
<i>preskura</i> 'freskura'	<i>puera</i> 'fuera'

Hónekiñ aldaerokin batera, eremu zabalaguan ezagunak diranak be badira:

<i>alper</i>	<i>ipar</i>	<i>pattal</i> 'gazt. fatal'
<i>napar</i>	<i>piku</i>	<i>paxa</i> 'gazt. faja' (galbidian)
<i>poxpolo</i>	<i>prejidu</i>	...

Koldo Zuazo

Debabarreneko adiñekuen jardunian be badira holako adibide batzuk: *apaixa*, *périx*a, *prekillo*, *preskura*...

Aurkako joeria ikusten da Debagoienian eta Debaerdiko berbeta batzuetan, hau da, *p* & *b* ordeztu *f* esatekoa. Eibarkuak dira hónek:

<i>ifar</i>	<i>ifñi</i>
<i>frakak</i>	<i>frístixa</i> ‘piztia’

Zenbait berbetatan *fratela* ‘platera’ be bada, eta *afixa* be esaten da Debagoienian (eta *afexia* Soraluzean) (orok. ‘habia’).

(2) *aura* ‘hura’ da 3. graduko erakuslia (mend. *a*). Eremu barruan dago Soraluze.

(3) Modu adberbixuetan \emptyset erabiltzen da gehixenbat (mend. *-n*):

<i>sela</i> mend. ‘zelan’	<i>esela</i> mend. ‘ezelan’
<i>óla(xe)</i> mend. ‘olan(txe)’	<i>ála(xe)</i> mend. ‘alan(txe)’
<i>edosela</i> mend. ‘edozelan’	<i>séosela</i> mend. ‘zeozelan’

Deba ibarreko gaiñerako berbetetan be badira \emptyset dauken aldaerak, Eibar aldekuetan —Ermuan izan ezik— eta Oñatin gehixenbat.

(4) Aditzen pluralgillietan mendebalian baiño aukera zabalagoa dago Antzuolan eta Bergaran (mend. *-z* ixa beti: *dogus* ‘ditugu’, *jakus* ‘zaizkigu’, *deskus* ‘dizkigu’...). Horren adibide Antzuolako hónek (Larrañaga 1998):

<i>eduki</i> -ren adizkixak:	<i>dauskat</i>
* <i>ediñ</i> -en eta <i>egiñ</i> -en adizkixak:	<i>leiske</i> ‘ditzake / litzake / daitezke / litezke’
<i>egon</i> -en adizkixak:	<i>da(r)e</i> ‘daude’

Eibar aldeko berbetetan —Ermuan izan ezik— eta Debabarrenian be bada *egon*-en adizkixetan *-de* (> *-re*) pluralgillia, ohikuagoa *-z* dan arren²³.

Ostera, *-z* pluralgillia dago *edun* aditzaren iraganaldiko adizki batzuetan Debabarrenian eta Debaerdikuan²⁴:

<i>gendusen</i> & <i>giñusen</i>	‘genituen’
----------------------------------	------------

²³ Gerhard Bähr-ek (1929: 336) *gooz* & *gaurez*, *zooz* & *zaurez*, *dooz* & *daurez* jaso zittuan oraiñ hamar-kada batzuk Mutrikun, baiña gaurregun *gos*, *sos*, *dos* dira nagusi.

²⁴ Dana dala, mendebaletik oso urriñeko berbetetan be badira *genduzen*, *zenduzen* tankerako adizkixak.

Deba ibarreko euskeria

sendusen & siñusen ‘zenituen’
senduesen & siñusten & siñuesen ‘zenituzten’

Nabarmentzekua da Debarrenian eta Deban bertan N-N-N sailleko sustraixa Euskal Herriko erdiguneko *-i- dan arren, pluralgillia mendebaleko -z dala. Mutrikukuak dira hónek:

diasus ‘dizkidazu’
dios ‘dizkio’
niosen ‘nizkion’

Pluralgille berbera dago Nor-Nori sailleko adizkixetan be:

sakos ‘zaizkio’

(5) Euskal Herriko erdiguneko oso eremu zabalian legez, irangaitzetako 2. persona pluralian -te aldaeria dago (mend. -(i)e). Horren adibide Antzuolako hónek (Larrañaga 1998: 132hh):

sate mend. ‘za(r)ie’ *siñaten* mend. ‘ziñ(i)en’
saiste mend. ‘zaitt(i)e’ *saete* mend. ‘zagoz(i)e’
sabiste mend. ‘zabiz(i)e’ *soiaste* mend. ‘zoaz(i)e’

Eremu barruan dago Soraluze.

Dana dala, -te aldaeria ez da adizki guztietara zabaldu. Bergaran, esate baterako, mend. -ie dago baldintzen ondorixuan, ahaleran eta subjuntibuan (UNED 1988):

siñakie ‘zinateke’
seinkie ‘zaitezketekete’
seinkien ‘zintezketen’
saittesen ‘zaitezten’

(6) Modu eta konparaziño perpausetan aukeran dira *bezela & bezelako*. Mendebalian, berriz, bertako bereizgarri diran *le[ge]z & lako*, eta orokorrak diran *moduan & moduko* baiño ez dira erabiltzen. Antzuolakua da adibidia (Larrañaga 1998: 210):

isurramena euki du aurten patatiakiñ; estou bi dan besela artu
‘izorramena eduki dugu aurten patatarekin; ez dugu behar den bezala hartu’

(7) Kausa-esplikaziño perpausak osatzeko *nola* be erabiltzen da. Olañeta & Urkiola (1998) liburuan Bergaran jaso ziran adibidiak dira ondorengiak:

eta nola egurra batu in biar izete zan... (54)
emen orbela nola euen abundante... (54-5)

Koldo Zuazo

geo batzia nola lan aundixa dan... (55)

Eremu barruan da Oñati.

(8) Baldintza perpausetan, Euskal Herri osuan (mendebalian izan ezik) erabili ohi dan *baldin*, Debarrenian, Antzuolan, Bergaran eta Oñatin be bada. Antzuolakua da adibidia (Larrañaga 1998: 166):

atzea krixixa baldin badator, orduntxe geiski
'atzera krisisa baldin badator, orduantxe gaizki'

(9) *bi* zenbatzaillia izenaren ezkerretara erabiltzeko joeria dago (mend. eskumatara beti). Eremu barruan dago Oñati, eta ezkerrian zein eskuman ezarri ohi da Soroluzen, Arrasaten eta Elgetan. Deba ibarreko gaiñerako berbetetan be zabalduaz doia ezkerretara ezartzeko joeria. Dana dala, ezkerrian ipintzia ez da aukera bakarra. Bergarakuak dira adibidiak:

<i>anka bixak apurtu sosten</i>	'hanka biak apurtu zidaten'
<i>pelukerixa bi dare</i>	'ileapaindegi bi daude'
<i>errial bikuak</i>	'erreal bikoak (aspaldiko txanponak)'

(10) Aldaera lexikuak.

i- dauken aldaerak: *irin* —Soroluzen be bada— 'mend. urun', *ille* 'mend. ule', (*g*)*iltza* 'mend. untza'. Baiña eremu osuan dagoz mend. *urten* (& *erten*, *irten* lehian) eta *ugarixo* tankerakuak²⁵.

-e- dauken *berri* 'mend. barri', *berdiñ* 'mend. bardin', *beltz* 'mend. baltz'.

Lehian dira *altara* & *aldara*, *dénpora* & *dénbora*, *jente* & *jende* (mend. 'altara, denpora, jente').

nasai (jantzixak, esate baterako) & *lasai* (personiaren izaeria) bereizten dira (mend. *nasai* baiño ez).

sentzuna & *sentzua* lehia dago Bergaran, *sentzua*, *prémixa* esaten dira Mendaron, eta *prémixa* Elgoibarren eta Mutrikun (mend. 'zentzuna, premiña').

Berbeta batzuetan (Eibar, Bergara, Antzuola, Mutriku) ezaguna da *illargi*, nahiz eta mend. *idargi* & *illetargi* tankerakuak izan ohikuenak²⁶.

²⁵ Oñati da salbuespena, *txantxiku* esaten dalako herri honetan, eta berba berezi hori erabiltzetik hartu dabe oñatiarrak euren gatzizena. Mendaron be (*g*)*el* jaso dot, baiña oraintsu sartutako aldaeria izan leike, *igarixo* jaso ebalako *EI-k* (1927: 30).

²⁶ Elxapururen (1996: s.u. *illárgi*) esanetan, *iretargi* esaten dabe bergarar gehixenak, baiña orokorra da *illargi betia* esapidia. Eibarren be *illargi barrixa*, *illargi betia* esaten dira.

Deba ibarreko euskeria

-*ki* atzizkixa dago adberbixuetan (mend. -*to*). Horren adibide Larrañagak (1998) Antzuolan jasotako *ederki, gaiski, galanki, poliki, satarki, txarki*. Oñatin be bada, eta -*ki* & -*to* lehian dira Arrasaten, Soraluzen eta Elgetan²⁷.

Mendebaletik aldentzen diran beste aldaera batzuk be badira:

eskumutur Debabarrenian eta Bergaran (baiña mend. *eskutur* be bada, eta berau da ohikua Bergaran).

so(r)o ‘mend. solo’ (baita Oñatin be, eta *sogua* [< soroa] Soraluzen, baiña *solo* Mutriku).

(11) Lexikua.

eskale (baiña Antzuolan eta Bergaran mend. *eskeko* da ohikua).

garo ‘mend. ira’ (Soraluzen be bada).

guraisiak tankerako aldaerak (Oñatin *guraise* & mend. *artasi* lehian).

mingaiña (Antzuolan, Bergaran eta Soraluzen mend. *miña* be bada, eta, oster, Oñatin ezaguna da *mingaiña*).

otz egiñ ‘mend. diar egin’ (Oñatin be bada).

pareta (sendua) & *orma* (mehia) bereizten dira (baita Eibar aldeko berbeta batzuetan eta Oñatin be) (mend. *orma* baiño ez).

Ez dira bereizten *atzamar* & *biatz*, eta modu berberian —*biatz* batzuek, *atzapar* bestiak— deittu ohi jakue eskuetakueri zein oiñetakueri. Soraluzen, Oñatin eta Arrasaten be ez dira bereizten.

6. Ezaugarri kiputxak edo orokorrak Debabarrenian

Zalantza barik, Debabarrena da mendebaletik gehixen aldentzen dana eta, aldi berian, euskerak kiputxari gehixen hurreratzen jakona. Batez be Mutriku da mendebaletik urriñen eta erdialdetik hurren daguana.

²⁷ Inguruko beste herri batzuetan be ezaguna da -*ki*. Horren adibide Eibarko *ederki, gaiski, poliki*, Aretxabaletako *poliki*... baiña -*to* da hónnek berbetotan ohikua. Oñatin sarriren -*ki* erabiltzen dan arren, Izagirrek (1970) *politto* eta *siésto* ‘zehatz’ –Antzuolan be bada hau berbiau (Larrañaga 1998: 234)– jaso zittuan. Jakiña, Deba ibar osuan esaten dira *ondo* eta *obeto*; ez *ongi, obeki*.

Koldo Zuazo

6.1. Debabarreneko ezaugarri kiputzak edo orokorrak

- (1) *n, l, r* osteko <tz> ebakeria berbak batzerakuan.
- (2) *-ción* → *-zio* eta *-ión* → *-ixo* billakaerak.
- (3) Ablatiboko eta motibatiboko *-tikan* & *gandikan, gantikan* aldaerak.
- (4) *edun* aditzeko *-e-* sustraixa.
- (5) *izan* aditzeko *-e-* sustraixa.
- (6) N-N-N sailleko **-i-* sustraixa.
- (7) *juan* aditzeko *dijua* tankerako adizkixak.
- (8) Nor-Nori sailleko *z-*.
- (9) *edun*-en hitanoko *d-*.
- (10) N-N-N sailleko eta trinkuen hitanuetako 3. personetan *d-*.
- (11) Partizipixuetan *-ado*, bai mailleguetan eta bai euskal aditzetan.
- (12) Partizipixuetan *-ido* → *-itu*.
- (13) *al* galdera partikulia.
- (14) Aurkaritzako *baño* eza.
- (15) Perpaus konparatibuetako *lako* eza.
- (16) Modu perpausetako *le(ge)z* eza.
- (17) *etorri dator* tankerako egitura eza.
- (18) Aldaera lexikuak.
- (19) Lexikua.



Deba ibarreko euskeria

6. 2. Argibidiak

(1) Euskal Herri osuan legez, mendebalian be <tz> esaten da *n*, *l* eta *r* ostian sarri:

gazt.	—>	eusk.
salsa	—>	<i>saltzia</i>
pensar	—>	<i>pentzau</i>
verso	—>	<i>bértzua</i>

Berba bi batzerakuan be Euskal Herri gehixenian dago <tz> eta <ts> esateko joeria (<esantzun, esan altzion?, esan biartzun>), baiña honetan mendebala da salbuespena, <s> esaten dalako hemen. Debabarrenak mendebalarekiñ egitten dau bat gehixenetan, baiña <tz> be esaten da, adiñekuen jardunian batez be. Mutrikun da indartsuena hori joeriori (Arrieta 1974):

<i>iltzan</i> ‘hil zen’	<i>etortzentzea</i> ‘etortzen zara’
<i>biartzoala</i> ‘behar zuela’	<i>beiantzauala</i> ‘behean zegoela’
<i>antzabiltzen</i> ‘han zebiltzan’	<i>sartzentzianai</i> ‘sartzen zirenei’

(2) Erdal *-ción* —> *-zio* eta *-ión* —> *-ixo* billakatu dira (mend. *-(z)ñño*). Mutrikukuak dira adibidiak (Arrieta 1974):

<i>esplikasio</i>	mend. ‘esplikasiño’
<i>reunixo</i>	mend. ‘reuniño’

Dana dala, Deba ibar osuan —Aramaixon izan ezik— erabiltzen da *komuni(x)o* aldaeria (mend. *komuniño*).

(3) Euskal Herriko erdiguneko oso eremu zabalien legez, ablatiboko *-tikan* & *-gandikan*, eta motibatiboko *-gatican* aldaerak erabiltzen dira Debabarrenian eta Soraluzen. Antzuolako adiñekuen jardunian be badira (Larrañaga 1998: 57):

<i>ausotikan ekarri sittuen oilluak</i>	‘auzotik ekarri zituzten oiloak’
---	----------------------------------

(4) Euskera kiputxian legez, *-e-* da *edun*-en sustraixa Mutrikun eta Mendaron (mend. *-o-*). Mutrikukuak dira adibidiak (Arrieta 1974: 55):

<i>det</i>
<i>dek / n</i>
<i>deu</i> ‘du & dugu’
<i>desu</i>
<i>desue</i>

Koldo Zuazo

(5) Euskera kiputxian legez, *-e-* da *izan*-en sustraixa (mend. eta orok. *-a-*). Elgoibarkuak dira hónek:

ge(r)a
se(r)a
seate

(6) Euskal Herriko erdiguneko oso eremu zabalian legez, N-N-N saillian **-i-* sustraixa dago (mend. **eutsi*). Elgoibarkuak dira ondorenguak:

diot
disu
diasu ‘didazu’

(7) Euskera kiputxian garatu diran *juan*-en adizki berezixak erabiltzen dira Mutrikun:

nijua ‘noa’
dijua ‘doa’
dijuas ‘doaz’

Adizki kiputxetatik gertu dagoz Mendarokuak eta Elgoibarkuak be:

nixe
dixe
dixes

(8) Nor-Nori saillian *z-* orokorra dago Mutrikun, eta *z-* & mend. *j-* lehia Mendaron. Mutrikukuak dira hónek (Arrieta 1974):

Mutriku	Mend.
<i>sat</i>	jat(a)
<i>sako</i>	jako
<i>saku</i>	jaku
<i>satzu</i>	jatzu
<i>satzue</i>	jatzue
<i>sakue</i>	jak(u)e

Hau dala-eta, ‘*ez + z-*’ —> <tz> ebakera orokorra be badago: *etzako* ‘etzaio’ (mend. ‘*ez + j-*’ —> <tx>: *etxako*).

(9) *edun*-en hitanoko adizkixetan *d-* orokorra (*izan*) da Mutrikun (mend. *j-* tankerakuak)²⁸:

²⁸ Gaurregun oso galduta dago hitanua Mutrikun (Arrieta 1974: 44).

Deba ibarreko euseria

<i>diat</i>	mend. 'juat'
<i>dik</i>	mend. 'jok'

Hau dala-eta, 'ez + d-' → *estiat, estik* orokorrak esaten dira (mend. 'ez + j-' → <tx>: *etxuat, etxok*).

(10) N-N-N sailleko eta trinkuen hitanoko 3. personetan *d-* (izan) da Mutrikun (mend. *j-*). Arrietak (1974) jasotakuak dira ondorengiak:

Mutriku	Mend.
<i>diok</i> 'ziok & zagok'	jeutsak & jagok
<i>diakiat</i> 'zakiat'	jaki(x)at
<i>diatorrek</i> 'zatorrek'	jatok
<i>diaukat</i> 'zaukaat'	jaukat
<i>dijuak</i> 'zoak'	jo(i)ak

Hau dala-eta, 'ez + d-' → *estiok, estijuak* orokorrak esaten dira (mend. 'ez + j-' → <tx>: *etxeutsak, etxoak*).

(11) Partizipixuetako mend. *-ado* → *-au* billakaeria maillegetan ez eze euskal jatorriko aditzetan be gauzatu da. Mutrikukuak dira h6nek:

<i>asarrau</i>	<i>aukerau</i>
<i>beirau</i>	<i>eskau</i>
<i>sorau</i>	...

Mendebalian, ostera, maillegetan bai6o ez da betetzen: *kantzau, komunikau*; bai6a *-atu* dauke (*aukeratu, eskatu*) jatorriz euskaldunak diranak²⁹.

(12) Partizipixuetako mend. *-ido* → *-idu* billakaeria galduaz doia Debarrenian eta, batez be, Mutrikun³⁰. Herri honetakuak dira adibidiak (Arrieta 1974):

<i>eskribitxu</i>	mend. 'eskribidu'
<i>kabitxu</i>	mend. 'kabidu'
<i>kunplixu</i>	mend. 'kunplidu'

(13) Erdialdeko euskalkixan garatu dan *al* galdera partikulua ezaguna da berbeta h6netan. Baita Antzuolako adi6ekuen jardunian be (Larra6aga 1998: 157):

²⁹ Mutrikun, dana dala, aukerakua da *-atu* & *-au* dauken partizipixuak erabiltzia.

³⁰ Mutrikun baserri auzuetan eta adi6eko hitzunen jardunian gorde da mend. *-idu*.

Koldo Zuazo

suk gu ikusi al gaittusu alako lekutati?

(14) Ez da ezaguna aurkaritza adierazten daben *baiño* mendebalekua (orok. ‘baizik’):

Mend.	Orok.
<i>ori estot nik esan, Itziarre(k) paiño</i>	‘hori ez dut nik esan, Itziarrek baizik’

Antzuolan, Bergaran eta Soraluzen be ez da ohikua³¹.

(15) Ez da ezaguna perpaus konparatibuetako *lako* mendebalekua (orok. ‘bezalako’):

Mend.	<i>uda gustian estau ein gaur lako egun berorik</i>
Orok.	‘uda guztian ez du egin gaur bezalako egun berorik’

Antzuolan, Bergaran eta Soraluzen be ez da ohikua³².

(16) Ez da ezaguna modu perpausetako *le(ge)z* mendebalekua (orok. ‘bezala’). Deba ibarreko gaiñerako berbetetan *letxe* aldaeria da ohikua; ez *le(t)z*³³. Antzuolakua da hau (Larrañaga 1998: 176):

erlojua letxe ibiltze suan ‘erlojua legetxe ibiltzen zuan’

(17) Galdegaixa aditza bera darian, ez dira ezagunak mendebaleko *joan doa, ibilli dabiz, etorri gatoz* tankerako esapidiak. Debaerdikuan be ez dira ohikuak, baiña hona hemen Laspiurrek (1999: 73) Eibarkotzat dakarren adibidia:

es itxurak bakarrik, orrek txintxiña be euki dauka
‘ez itxurak bakarrik, horrek dirua ere eduki dauka’

(18) Aldaera lexikuak.

Ez da *-ain > -an* billakatu: *espaiñ* ‘mend. espan’, *labaiñ* ‘mend. laban [= irrist egin]’, *saiñ* ‘mend. san’

³¹ Bergaran *baiño* ‘besterik’ esanguriarekiñ erabiltzen dala diño Elexpuruk (1996: s.u. *baiño*): *neurekin egon nai bozu eztaukazu geurera etorri baño*. Elexpuruk esandakuaren zulentasuna iñundik iñora be ezbaian ipintzen ez doten arren (errezoia dauka-eta), Elexpuruk berak dakar ‘baizik’ esanguria daukan adibide bat (s.u. *téma*): *umiak eztau jan nai, ez goseik eztaukalako, temia daukalako baiño*.

³² Ziharo ezezaguna be ez da hónek berbetotan. Bergaran, esate baterako, *perkala lakotxia* jaso eban Isazelaiak (1997: s.u. *trobalko*). Eibarren ohikua da *lakotxe*, baiña ez *lako*.

³³ Baiña *letz* ez da ziharo arrotza. Antzuolan, esate baterako, *ipintze siñuan kamiñuan, da goitti bera kotxia letz* (Larrañaga 1998: 176). Elexpuruk (1996: s.u. *lez*) be jaso dau Bergaran, eta Oñatin be bada.

Dana dala, ‘gitxi gorabehera’ esanguria daukanean, ohikua da *le(t)z*. Aramaixokua da adibidia: *senbat urte letz eukiko’ttu Juanitok?* ‘zenbat urte inguru edukiko ditu Juanitok?’ (A. Ozaetak a.e.)

Deba ibarreko euskeria

(Debaerdikuan be *erraiñ* ‘mend. erran’ dago).

-*ki* dago *iriki* ‘mend. ire(g)i’ partizipixuan, eta Mutrikun baita *ebaki* ‘mend. eba(g)i’, *erabaki* ‘mend. eraba(g)i’ partizipixuetan be, baiña, mend. legez, *ixigi* ‘esekei’ esaten da herri honetan³⁴.

Debabarreneko aldaerak dira hónek bestioak be:

aispa (Oñatin be bada, baiña mend. *aista* Mutrikun, eta *aispa* & *aista* lehia Elgoibarren eta Bergaran).

eman ‘mend. emon’.

ere ‘mend. be(re)’ (Begarako Osintxu eta Elosu auzuetan eta Antzuolako adiñekuen jardunian be bada).

etzan ‘mend. etzun’ (eta *etzin* —sarrixen— & *etzun* & *etzan* lehia Eibarren, *etzin* —sarrixen— & *etzan* Oñatin, eta *etzan* & *etzun* Ermuan eta Elgoibarren).

gabe Mutrikun ‘mend. barik, bare’ (baiña *lotsagabe* hitz elkartua Elgoibarren eta Bergaran be, behiñik behiñ, bada).

itzaiñ ‘mend. usen [izain]’ Elgoibarren eta Mendaron (eta *ustena* & *isaiñ* lehia Soraluzen).

(19) Lexikua.

Hona, lehenengo, Debabarrenian erabiltzen diran eta mendebalian arrotzak diran berba batzuk:

aurrena Mutrikun, Mendaron eta Antzuolan (baiña mend. *lenengua* & *lelengua* da ohikuena).

babia ‘mend. adur’.

eraman Mutrikun eta Mendaron (& mend. *eruan* lehian).

eskubi (& mend. *eskuma* Mendaron eta Elgoibarren, baiña *eskumiña* Mutrikun).

galtzerdi ‘mend. galtza’.

lapurtu Elgoibarren eta Mendaron (eta *lapurtu* & mend. *ostu* Elgoibarren).

mami Mendaron (& mend. *gatzatu*, baiña *gatzatu* baiño ez Mutrikun).

(*hegatzixen*) *mokua* Mutrikun eta Mendaron (baiña mend. *piku* da ohikuagua).

musu ‘mend. sur [sudur]’.

naskau ‘mend. iguindu’.

saltaka ‘mend. ariñeketan’.

triku Elgoibarren eta Mendaron (eta *triku* & mend. *kirikixo* Elgoibarren).

urruti ‘mend. urrin [urrun]’.

³⁴ Mendebalian —Deba ibarra barruan dala— *eralgi* ‘eralki’ eta *jaurti* ‘jaurtiki’ be badira; baiña Mutrikun, nunbait, ez dittue ezagutzen hónek berba bixok.

Koldo Zuazo

Bestalde, *ortz* & *agin* bereizten dira Mendaron, Bergaran eta Antzuolan (mendebalian *agin* da aukera bakarra³⁵).

Mendebaleko berba jakin batzuk ez dirudi eremu honetan ezagunak diranik:

aratuzteak 'inauteriak' Elgoibarren eta Mendaron
gaitz (Mutrikun eta Elgoibarren *sail* baiño ez, eta Mendaron *gaisto*)
larregi 'gehiegi' (ezta Antzuolan eta Bergaran be)
(arbola) orria 'hostoa' (ezta Soraluzen be)
ortozik 'oinutsik'
sats 'simaur' (ezta Soraluzen be)
ugazaba 'jabe, nagusi' Mendaron eta Mutrikun

Mutriku aldentzen da gehixen mendebaletik. Horren adibide ondorengo berbok:

Mutriku	Mend.
<i>amillu</i> (< <i>amildu</i>)	jausi
<i>aitxona</i> & <i>amona</i>	aitita & amama
<i>baratz</i> (& <i>ortu</i>)	ortu
<i>bautzixa</i> (< <i>baratxuria</i>)	berakatza
<i>galtzak</i>	prakak
<i>pistu</i>	ixotu

Era berian:

Mutriku	Mend.
<i>adar</i>	adar & arrama
<i>bota</i>	bota & jaurti

³⁵ Mendebalian *ortz* berbia tresna batzuk izentatzeko erabiltzen da (*lauortza, bostortza...*); ez ahokueri deitzeko.

Deba ibarreko euskeria

7. Deba ibarreko bereizgarrixak

Deba ibarreko berbeten bereizgarri orokorrak aurkeztuko dittut jarraixan. Argitu deixadan dana dala, ez dotela esan nahi hónek ezaugarrixok Deba ibarrekuak *bakarrik* diranik, Deba ibarrekuak *be* badirala baiño.

7.1. Deba ibarreko bereizgarrixak

- (1) Bokal luziak.
- (2) *juan & eruan* aditzetako *a + a* → *ia* (> *ie*).
- (3) /i ___ + bokal/ arteko <x> epentesia.
- (4) *e* + bokal → *i* eta *o* + bokal → *u*.
- (5) <j> ebakeria.
- (6) *d* → *r* billakaeria.
- (7) Hurbiltze adlatiboko *-rutz(e)*.
- (8) Destinatiboko *-endako*.
- (9) Ablatibo singularreko *-ti* eta motibatiboko *-gati* aldaerak.
- (10) Inesiboko bizidunak → soziatibuan.
- (11) Trinkuen iraganaldiko *-a-* sustraixa.
- (12) Zenbaitt aditzen jokamolde berezixa.
- (13) Aldaera lexikuak.
- (14) Lexikua.

7.2. Argibidiak

(1) Aldiak alde, Deba ibarreko berbete guztietan dagoz bokal luziak, gazterixiaren jardunian galduaz doiazten arren. Oñatin gorde dira onduen. Horren lekuko, Izagirrek (1970) jasotako hónek:

a. *bokal + *h* + bokal → bokal + bokal:

<i>aal</i> ‘ahal’	<i>aárdi</i> ‘ahardi’	<i>aári</i> ‘ahari’
<i>aástu</i> ‘ahaztu’	<i>aáta</i> ‘ahate’	<i>bee</i> ‘behe’
<i>leénengua</i> ‘lehenengoa’	<i>maátza</i> ‘mahatsa’	<i>míña</i> ‘mihia’
<i>náar</i> ‘lahar’	<i>naastu</i> ‘nahastu’	<i>oóstu</i> ‘ohostu’
<i>saar</i> ‘zahar’	<i>saátza</i> ‘sahatsa’	<i>txaal</i> ‘txahal’
<i>xeétu</i> ‘xehetu’

b. bokal + konsonante + bokal → bokal + bokal:

<i>ataa</i> ‘atera’	<i>baarik</i> ‘gabe(rik)’	<i>daátulu</i> ‘daratulu’
<i>gaa</i> ‘gara’	<i>kootz</i> ‘gorotz’	<i>leéna</i> ‘legena’
<i>maátillia</i> ‘maratila’	<i>okaan</i> ‘okaran’	<i>saata</i> ‘zarata’

Koldo Zuazo



DEBA IBARRA

Análisis Morfol

Deba ibarreko euskeria

Ohiko samarra da -ada —> -aa:

surrútaa ‘zurrutada’

c. Hitz elkartu eta eratorrixak:

<i>albáadarrak</i>	<i>aldéerdixa</i>	<i>astáarra</i>
<i>besáartekaa</i>	<i>jorraaldi</i>	<i>luséera</i>
<i>mugáarrixa</i>

Eratortxien artian, berriz, -ari eta -atu atzizkixenak dira ohikuenak:

<i>agíntaarixa</i> ‘agintaria’	<i>agínkaatu</i> ‘haginkatu’
<i>eráari</i> ‘edari’	<i>uxaatu</i> ‘uxatu’

Jatorriz hitz elkartuak dira, nunbait, bokal luzia dauken hónek be:

artáasixak
beláarri
garráasi
goráantziak
orráatza

d. -a berezkua dauken berben absolutibo pluralak:

abárkaak
kipúlaak
frákaak

e. -a berezkua dauken berben inesibo singularrak:

<i>máillaan</i>	‘mailan’
<i>mixkínkeixaan</i>	‘mizkinkerian’

f. Jatorri illuneko beste batzuk:

<i>aábixa</i> & <i>aápixa</i> ‘habia’	<i>áar</i> ‘har (zizare)’	<i>eraatzi</i>
<i>jaárixua</i>	<i>jaáteko</i>	<i>jaátorri</i>
<i>jaatzi</i>	<i>saátorra</i>	<i>txaárra</i>

Bokalaren iraupenaren arabera bereizten diran berba pariak dagoz. Izagirrek berak jaso zittuan *aárdi* ‘txერი emea’ & *ardi* eta *múña* ‘mingaina’ & *miña* ‘oinazea’. Holako adibide gehixago jaso ditu Mugarzak (1998) Mallabian:

Koldo Zuazo

<i>beera</i> ‘behera’	/	<i>bera</i> ‘hura’
<i>beeratu</i> ‘beheratu’	/	<i>beratu</i> ‘bigundu’
<i>beraana</i> ‘berarengana’	/	<i>berana</i> ‘berarena’
<i>gorra</i> ‘gogorra’	/	<i>gorra</i> ‘entzun ezina’
<i>laarra</i> ‘laharra’	/	<i>larra</i> ‘larrea’
<i>laatza</i> ‘laratza’	/	<i>latza</i> ‘zakarra’
<i>lauuna</i> ‘lautada’	/	<i>launa</i> ‘bakoitzari lau’
<i>leena</i> ‘legena’	/	<i>lena</i> ‘antzina’
<i>miiñe</i> ‘mihia’	/	<i>miñe</i> ‘mina’
<i>saartu</i> ‘zahartu’	/	<i>sartu</i> (vs. irten)
<i>saatza</i> ‘sahatsa’	/	<i>satza</i> ‘simaurra’
<i>seena</i> ‘zerrena’	/	<i>sena</i> ‘berezko joera’
<i>suurre</i> ‘zuhurra’	/	<i>surre</i> ‘sudurra’

(2) Izenetako *a + a* → *ia* (> *ie*) (*tabernia* & *tabernie*) *juan* eta *eruan* aditzetara be zabaldu da:

<i>noia</i>	‘noa’	<i>daroiat</i>	‘daroat’
<i>doia</i>	‘doa’	<i>daroia</i>	‘daroa’
<i>goias</i>	‘goaz’	<i>daroiaagus</i>	‘daroaguz’

Eremutik kanpo dago Debabarrena. Aramaixon *juan*-en adizkixetan betetzen da (*noie*, *doie*), baiña ez *eruan*-enetan (*darueta*, *darue*).

(3) Deba ibar osuan dago /i__ + bokal/ arteko <x> epentesia, eta emankorra da. Hau da, gaztelaniatik eten barik sartzen diran maillegetan be betetzen da:

<i>konbokatorixia</i>	‘konbokatoria [deialdia]’
<i>rádixua</i>	‘radioa [irratia]’

(4) Deba ibar osuan betetzen dira *e* + bokal → *i* eta *o* + bokal → *u*. Emankorrek dira hónek billakaerok be:

<i>debatia</i> ‘debatea [eztabaida]’	<i>moskeua</i> ‘gazt. mosqueo [susmo txarra]’
<i>potentia</i> ‘potentea [indartsua]’	<i>pífua</i> ‘gazt. pufo [iruzurra]’

(5) Berba hasieran <j> ebakeria dago Deba ibar osuan, Gipuzkuan, Bizkaiko sortaldian eta Naparruako sartaldian legez:

<i>jai</i>	<i>jan</i>	<i>jantzi</i>
<i>jakiñ</i>	<i>jarri</i>	<i>jo</i>
<i>joko</i>	<i>josi</i>	...

Deba ibarreko euskeria

Ebakera berbera dago, gaiñera, Nor-Nori sailleko adizkixetan, *edun*-en hitanokuetan, eta N-N sailleko eta trinkuen hitanoko 3. personetan:

a.	<i>jako</i>	‘zaio’
b.	<i>juat</i>	‘diat’
c.	<i>jetzat</i>	‘zioat’
d.	<i>jaukat</i>	‘zeukat’

Salbuespenak Oñati eta Mutriku dira. Oñatin *x-* dago (*xako*, *xuat*, *xoskuk* ‘ziguk’, *xatok* ‘zatorrek’)³⁶. Mutrikun, berriz, *z-* & *d-* dagoz, adizkixen arabera [ikusi gorago, 6. multzoko (8), (9) eta (10) ezaugarrixak].

(6) Aldiak alde, berbeta guztietan betetzen da *d* → *r* billakaeria. Ermuan, esate baterako (Aranberri 1996):

<i>aixkire</i> ‘adiskide’	<i>bire</i> ‘bide’	<i>eran</i> ‘edan’
<i>ero</i> ‘edo’	<i>iri</i> ‘idi’	<i>meriku</i> ‘mediku’
<i>moruko</i> ‘moduko’	<i>partirua</i> ‘partidua’	<i>segiruan</i> ‘segiduan’
<i>ura</i> ‘uda’

Deba ibar osuan dira ohiko samarrak *-ada* → *-ara* (*basokara*), *-di* → *-ri* (*pagari*), partizipixuetako *-idu* → *-iru* (*dibertiru*), *-dade* → *-dare* (*bakardare*), eta adizkixetako 1. personako morfeman *-da-* → *-ra-* (*dixuras* ‘ditudaz [ditut]’, *deiran* ‘dagidan [dezadan]’, *emoiran* ‘emaidan’). Baitta hónek bestioek be: *abare* ‘abade [apaiz]’, *inbirixa* ‘gazt. envidia’, aginterako *ari* ‘hadi’...

Billakaera hau batez be Mutrikun eta Aramaixon da indartsua, eta Arrasaten bertan be sarri gauzatzen da. Mutrikukuak dira hónek (Arrieta 1974):

<i>asi ra</i> ‘hasi da’	<i>lau urte rakas</i> ‘dakaz [dauzka]’
<i>eindda ros</i> ‘dagoz [daude]’	<i>ekarri rau</i> ‘dau [du]’
<i>ibilli ria</i> ‘dira’	...

Dana dala, gehixenbat adiñekuen jardunian nabari da, eta erderaz diharduenian be gauzatu ohi da³⁷.

³⁶ Oñatiarren ebakera berezi hau ezaguna da inguruko herrixetan. Horren lekukotasuna jaso eban, esate baterako, Elexpuruk (1996: s.u. *txantxikuar*): *bajiarduek txantxikuarrak xik eta xok*.

³⁷ Antzuolan *dericao* ‘dedicado’; *he estaró* ‘he estado’ jaso dittu Larrañagak (1998: 31). Eibarren, berriz, *le ha mordiro el perro; no tengo ninguna dura; no he poriro venir* Laspiurrek (1999: 33), eta Aramaixon *he cogiro la rucha* A. Ozaetak (a.e.)

Koldo Zuazo

(7) Hurbiltze adlatiboko morfemiaren aldaeria *-rutz(e)* da Deba ibar gehixenian:

<i>barrurutz</i>	<i>eskerrerutz</i>
<i>(amarrak) alderutz</i>	<i>goixalderutz</i>
<i>Fransialderutz</i>	...

Oñati, Antzuola, Elgoibar eta Mendaro dagoz eremutik kanpo. Hónek herrixotan adizlagu-netan (*onutz, orrutz, arutz*), eta *be(e)rutz, gorutz* lako adibide banaka batzuetan baiño ez da erabiltzen hau morfemiau. Dana dala, hónek lau herrixotako gazterixiaren jardunian be zabalduaz doia *-rutz* erabiltzeko ohitturia.

(8) Destinatibuan *-endako* morfemia erabilli ohi da eremu gehixenian, gaurregun *-entzat* & *-entzako* be lehian diran arren. Antzuolakuak dira hónek (Larrañaga 1998: 52):

<i>andrendako sillak</i>	‘andreentzako aulkiak’
<i>mutillendako gabeko eskolia</i>	‘mutilentzako gaueko eskola’

Debabarreneko hiru herrixak dagoz eremutik kanpo.

(9) Ablatibo singularreko *-ti* eta motibatiboko *-gati* aldaerak (orok. *-tik, -gatik*) ez dira ziharo galdu eremu honetako berbeta batzuetan: Leintz ibarrarian, Oñatin, Elgetan, Bergarako Osintxu eta Elosu auzuetan, Antzuolan eta, batez be, Aramaixon gorde dira, baiña adiñekuen jardunian beti. Horren adibide Antzuolako hónek (Larrañaga 1998: 56):

<i>kaleti erute giñuan</i>	‘kaletik eramaten genuen’
<i>Elorrixoti etorritakua</i>	‘Elorriotik etorritakoa’

(10) Eremu honetako berbetetan ez da ohikua inesiboko bizidunen morfemia (*-[en]gan*). Beraren ordezt, sozietibuarena erabiltzen da gehixenetan. Horren adibide Antzuolako hónek (Larrañaga 1998: 54-5):

<i>konfiantzaik etxaukan arekin</i>	‘konfiantzarik ez zeukan harekin’
<i>surekiñ pentzatze nao</i>	‘zurekin pentsatzen nago’

Dana dala, ezaguna da *-gan*, eta erabilli be egitten da iñoiz (*Jangoikuan siñistu*). Adlatibuan (*-gana*) eta ablatibuan (*-gandik*) hobeto gorde dira bizidunen morfemak.

(11) Deba ibarreko berbeta batzuetan sarri erabiltzen da *-a-* sustraixa trinkuen iraganaldixan. Horren lekuko J.M. Garaik eta E. Plazaolak (1999: 181-247) Arrasaten jasotakuak:

<i>nakixen</i> ‘nenkien’	<i>gakixen</i> ‘genekien’
<i>nabillen</i> ‘nenbilen’	<i>abitzen</i> ‘zebiltzan’

Deba ibarreko euskeria

nauken ‘neukan’
auen ‘zegoen’

auken ‘zeukan’
ausen ‘zeuden’

Batez be Debabarrenian da *-a-* ugarixa, eta Leintz-Aramaixo aldian be sarri erabiltzen da. Antzuolan eta Bergaran *-e-* (sarrixen) & *-a-* lehia dago, eta *-e-* da Eibar aldeko berbetetan eta Oñatin nagusi.

(12) Jokamolde berezixa dauke aditz batzuek:

a. *hasarratu* & *ernegau* Nor ez eze Nor-Nori erara be jokutzen dira berbeta gehixenetan:

asarratu ein jako ‘haserratu egin zaio’

Jokabide berbera dauke *amorratu* eta *berotu* aditzak ‘haserratu’ esanguriarekiñ erabiltzen diranian.

b. *pentsau* be Nor-Nori erara jokatu leike berbeta batzuetan. Horren adibide Antzuolako hau (Larrañaga 1998: 66):

seuri ontzat pentzatzen bajatzu, artu ‘zeuri ontzat pentsatzen bazaizu, hartu’

c. Baita *akordau* be. Antzuolakua da adibidia (Larrañaga 1998: 102):

etxat akordatzen sela san ‘ez zait akordatzen nola zen’

d. Nor-Nori erara jokutzen dira beti *damutu* & *garbatu* aditzak:

sarritxan damutu jata suekiñ Arratera es juatia
‘sarri damutu zait zuekin Arratera ez joatea’

e. *entendidu* aditzak be Nor-Nori eria onartzen dau berbeta batzuetan. Horren adibide Bergarako hónek (Elexpuru 1996: s.u. *entendídu*):

ta guri euskera batua ta ba ia etxaku entenditzen
‘eta guri euskara batua ta, ba, ia ez zaigu entenditzen’

orri politikian gaiñian asko entenditzen jako
‘horri politikaren gainean asko entenditzen zaio’

se, neska asuntuan iri be entenditzen jak, ala?
‘zer, neska kontuan hiri ere entenditzen zaik, ala?’

f. Antzuolan, Bergaran eta Oñatin behiñik behiñ, *kunplidu* aditzak be onartzen dau Nor-Nori

Koldo Zuazo

eria. Bergarakua da hau (Elexpuru 1996: s.u. *kunplídu*):

Kortatxon dauke tio sar bat, larogetamar urte kunplidu jakon

‘Kortatxon daukate osaba zahar bat, laurogeita hamar urte kunplitu zitzaion’

g. *ekin* Nor erara be jokutzen da berbeta gehixenetan. Horren adibide Antzuolako hónek (Larrañaga 1998: 103):

taller baten ekin nitzan lanian

maionesia gausa goson bat dalakuan ekin die jaten kutxarilliakiñ

‘mahonesa gauza gozoren bat delakoan ekin dira jaten kutxarillarekin’

h. Mendebal osuan legez, iragankorrak dira *urten*, *igon*, *jardun* eta *jarraitu*. Elgoibarren, baiña, iragankor zeñ iragangaitz erara jokatu ohi dira *igon* eta *urten*, eta Antzuolako gazteriaren jardunian be iragangaitza da *urten* (Larrañaga 1998: 242).

(13) Aldaera lexikuak.

artatixak ‘artaziak’ (Aramaixo, Aretxabaleta, Arrasate, Oñati, Soraluze eta Elgeta).

enda ‘eta’ (Eibarko, Soraluzeko eta Debagoieneko adifiekuen jardunian³⁸).

etzin ‘etzan’ (Deba ibar osuan, Mendaron eta Elgoibarren izan ezik).

Eremu txikixaguetan erabiltzen diran aldaera berezixak be badira: Oñatiko eta Antzuolako *baikotz* ‘bakoitz’; Antzuolako eta Oñatiko *aiper* ‘alfer’, eta Antzuolako eta Bergarako *giltza* ‘iltze’.

(14) Lexikua.

aittapuntako & *amapuntako* ‘aitabitxi & amabitxi’ (Debaerdikuan eta Debagoienian, baiña *aitxabe-suetakua* & *amabesuetakua* Ermuan).

amandre ‘amona’ (Deba ibar osuan, Debararrenian izan ezik. Gaurregun atzeraka doia).

begittandu ‘iruditu’ (berbeta batzuetan galbidian edo ziharo galduta).

garbatu ‘damutu’ (Elgetan, Leintzen eta Aramaixon dago bizien, eta galbidian, edo ziharo galduta, gaiñerako berbetetan).

³⁸ Atzeraka doia hau aldaeriau. Eibarri dagokixonez, esate baterako, T. Etxebarriak (1965: s.u. *enda*) “en Eibar tiene bastante uso” esan eban, baiña gaurregun ez da ohikua.

Deba ibarreko euskeria

garratz ‘sendo, handi’ esanguriarekin (lekurik gehixenetan atzeraka doia edo ziharo galdu da).

katuil ‘otsail’ (Mendaro, Elgeta, Bergara, Debagoieneko berbeta batzuk).

puntapaixa (untza mota bat, dirudien gazt. ‘punta de París’) (Elgoibar, Elgeta, Soraluze, Bergara, Antzuola, Oñati, Gatzaga, Aramaixo).

Deba ibarreko beste berba batzuk:

<i>demasa(ko)</i> ‘egundoko’	<i>itxuria</i> ‘antza, nonbait’
<i>mailluka</i> ‘mailu’	<i>satar</i> ‘itsusi’ (& <i>sakar</i> Oñatin)
<i>siaro</i> ‘zeharo’	

8. Debabarreneko eta Debaerdiko bereizgarriak

Hónek eremu bixotan betetzen diran ezaugarriak aurkeztuko dira sail honetan.

8.1. Debabarreneko eta Debaerdiko bereizgarriak

- (1) $a \rightarrow e$ billakaera eza.
- (2) $\langle tt \rangle \rightarrow \langle tx \rangle$ billakaeria.
- (3) $\langle ts \rangle \rightarrow \langle tx \rangle$ eta $\langle tz \rangle$ & $\langle ts \rangle \rightarrow \langle s \rangle$ billakaerak.
- (4) N-N-N saillian *jao* ‘dio’ tankerako adizkixak.
- (5) Aditz trinko iragangaitzetako oraiñaldixan *d-* hitanoko 3. personetan.
- (6) 2. persona pluralian $-zu = -zue$.
- (7) $-t(z)eke$ & $-t(z)eka$ aditz atzizkixak.
- (8) Aurkaritzako *barren*.
- (9) Lexikua.

8.2. Argibidiak

(1) Hego Euskal Herriko oso eremu zabalian eta (ixa) Bizkai osuan *i* eta *u* bokal ostian $a \rightarrow e$ billakatu da. Debabarrenian, Debaerdikuan eta Oñatin, ostera, ez da gertatu:

Eibar	Mend. (gehixena)
<i>dirua</i>	‘dirue’
<i>ogixa</i>	‘ogie’
<i>ikatza</i>	‘iketza’
<i>ugari</i>	‘ugeri’

Koldo Zuazo



Deba ibarreko euskeria

Zabalduez doia, gaiñera, hau billakaeriau saihesteko joeria. Elexpuruk (1996: xiv) diñuanez, Bergarako Angiozar eta, batez be, Elosu auzuetako adiñekuen jardunian betetzen da, baiña ez belaunaldi gaztiaguen berbetan. Leintz ibarrari dagokixonez be, aspaldi esan eban Izagirrek (1970: s.u. *Leniz*) *a* esateko ohitturia eguala kaletarren jardunian, inguruko auzuetan *e* esaten zan —eta esaten dan— bittartian. Leintz ibarrari dagokixonez, gaurregun Arrasateko eta Aretxabaletako kalia eta Gatzagan dago inddartsuen *a* esateko joeria³⁹.

(2) <tt> —> <tx> billakaeria ixa erabatekoa da, batez be kaletarren jardunian. Adiñ haundiko hiztunak, eta baserri auzuetan bizi diranak, hobeto gorde dabe <tt> ebakeria. Debagoienera be zabaldu da, Arrasateko kaletarren jardunera batez be:

aitta	—>	<i>aitxa</i>
dittu	—>	<i>ditxu</i>
etorritta	—>	<i>etorritxa</i>

(3) Soraluzeke kaletarren jardunian, eta Bergarako Osintxu auzuan, <ts> —> <tx> billakaeria bete ohi da⁴⁰. Horren adibide Soraluzeke hónek:

<i>atxalde</i> ‘arratsalde’	<i>atxo</i> ‘atso’	<i>autx</i> ‘hauts’
<i>bitx</i> ‘bits’	<i>matx</i> ‘mahats’	<i>utx</i> ‘huts’

Erabat betetzen da N-N-N sailleko adizkixetan:

<i>dotxa</i>	‘deutsa [dio]’
<i>notxan</i>	‘neutsan [nion]’

Soraluzen, gaiñera, <tz> & <ts> —> <s> esateko joeria dago⁴¹:

³⁹ Gatzagari dagokixonez, baleike *a* —> *e* billakaeria sekula be gauzatu ez izana. Halan izatera, betiko ezaugarrixari eutsi besterik ez jako egiñ herri horretan. Arrasateko eta Aretxabaletako kalealdian, ostera, *a* —> *e* —> *a* gertatu dala emoten dau.

⁴⁰ Inguruetako herrixetan be ezaguna da Soraluzeke hau joeria, eta hortik jatorko *autx errixa* ‘hauts herria’ deituria. Hona hemen T. Etxebarriaren (1965: s.u. *autx-errixa*) lekukotasuna: “En las viejas competencias de vecindades, los *autx-erris* eran los vecinos de Placencia de las Armas, la antigua Soraluze, por silbar las eses y pegar al paladar las *tza, tze*. Como los Efraimitas que eran probados por la palabra *shiboleth*, así nuestros vecinos eran probados con el famoso *autz*, que decían *autx*”.

⁴¹ Honen billakaerionen oihartzuna be bada inguruko herrixetan. Elexpuruk (1996: s.u. *lótza*) bergararrek soraluzetarren ahuan adar soiñuan ipintzen daben *eseukan ilseko losaik* ‘etzeukan hiltzeko lotsarik’ esapidia jaso eban, eta Elexpuruk berak *Arrasate Press* aldizkarixan (1990.01.27) *arrausak, legasa salsan eta gasatua jan genduan aso* aittatu eban soraluzetarren gaiñian ziharduala.

A. Narbaizak be (1998: 52 (71) oiñoharra) jaso dau eibartarrak soraluzetarren kontura egiñ ohi daben txistia. Txirindulari lasterketa baten ikusle batek bestiari: *-Nun datok, baiña, guria? -Asian dator [asian = atzian ‘atzean’]*.

Koldo Zuazo

<i>aisa</i> ‘haitza’	<i>arosa</i> ‘arotza’	<i>bakoisa</i> ‘bakoitza’
<i>basuk</i> ‘batzuk’	<i>biosa</i> ‘bihotza’	<i>ilunsixan</i> ‘iluntzean’
<i>maiasa</i> ‘maiatza’	<i>okosa</i> ‘kokotsa’	<i>seinsuk</i> ‘zeintzuk’
<i>urtesia</i> ‘urtetzia (irtetea)’	...	

(4) N-N-N sailleko oraiñaldixan, datibua 3. personia danian, adizki berezixak erabiltzen dira Bergaran, Antzuolan eta Oñatin. Antzuolakuak dira hónek (Larrañaga 1998: 123):

<i>jat</i>	‘diot’	<i>jet</i>	‘diet’
<i>jao</i>	‘dio’	<i>jaue</i>	‘die & diete & diote’
<i>jatzu</i>	‘diozu’	<i>jetzu</i>	‘diezu’
<i>jau</i>	‘diogu’	<i>jeu</i>	‘diegu’

Oñatin datibua ‘hari’ danian baiño ez dira erabiltzen. Datibua ‘hareri’ danian, mendebaleko ohikuak erabiltzen dira:

Hari	Hareri
<i>xat</i>	<i>dostet</i>
<i>xak / n</i>	<i>dostek / n</i>
<i>xau</i>	<i>doste</i>
<i>xau</i>	<i>dosteu</i>
<i>xatzu</i>	<i>dostetzu</i>
<i>xatzue</i>	<i>dostetzue</i>
<i>xaue</i>	<i>dostei</i>

(5) Aditz trinko iragangaitzen oraiñaldiko 3. personako hitanuetan *d-* (& mend. *j-*) esaten da Ermuan, Eibarren, Soraluzen, Elgoibarren eta Mendaron. Horren adibide Ermuko hónek (Aranberri 1996: 106):

<i>daok / n</i>	‘zagok / n’	<i>daosak / daonas</i>	‘zaudek / n’
<i>datok / n</i>	‘zatorrek / n’	<i>datosak / datonas</i>	‘zatozek / n’
<i>dabik / ñ</i>	‘zabilek / n’	<i>dabixak / dabiñas</i>	‘zabiltzak / n’

Salbuespena *juan*-en adizkixak dira:

<i>joiak / n</i>	‘zihoak / n’	<i>joiasak / joianas</i>	‘zihoazek / n’
------------------	--------------	--------------------------	----------------

(6) 2. persona pluralian *-zu = -zue* dago Ermuko, Eibarko eta Soraluzeko adiñ haundiko hiztunen jardunian. Horren adibide Ermuko hónek (Aranberri 1996: 106):

<i>saos</i>	‘zaude & zaudete’
<i>satos</i>	‘zatoz & zatozte’

Deba ibarreko euskeria

<i>sabis</i>	‘zabiltza & zabiltzate’
<i>soias</i>	‘zoaz & zoazte’

Irizarrek (1992-2) eta Gamindek (1984-1) be jaso dittue (*suek*) sara tankerakuak hónek hiru herrixotan eta Mallabian⁴².

(7) *-t(z)eke* & *-t(z)eka* aditz atzizkixa erabiltzen da Antzuolan, Bergaran, Elgetan eta Soraluzen. Horren adibide Antzuolako hónek (Larrañaga 1998: 177):

<i>ori nik entzuteke neukan</i>	‘hori nik entzun gabe neukan’
<i>sela eon leike dantza itteke</i>	‘nola egon daiteke dantza egin gabe’

Oñatin aditz birekin baiño ez eban jaso Izagirrek (1970):

<i>akórdatzaka</i>	‘akordatu gabe’
<i>eltzáka</i>	‘heldu gabe’

(8) *barren* aurkaritzako lokaillua. Sarri erabiltzen da Mendaron, Elgoibarren, Soraluzen, Eibarren eta Ermuan⁴³. Eibarko adibidiak dira hurrengiak (Laspiur 1999: 42):

erlojuan billa sabis?, eskuturrian dakasu, barren!
‘erlojuaren bila zabiltza?, eskumuturrean daukazu eta!’

nora soias ain gois, oindiok seirak dira barren!
‘nora zoaz hain goiz, oraindik seiak dira eta!’

(9) Lexikua.

aittu ‘ulertu’ (Ermua, Eibar, Elgeta).

⁴² Oraintsu arte iraun dau bizirik honek arkaismuonek. Bähr-ek (1926hh) Elgoibarren jaso zittuan adizkixen artian (*zuek*) *zaure*, *zatoz*, *zabiz*, *ziguzun* ‘zeniguten’, *nindduzun* ‘ninduzuten’ agiri dira. Beste batzuetan, parentesi artian ipiñi ohi eban *-e*, aukerakua zala erakutsi nahirik-edo: (*zuek*) *daruazu(e)*, *daukazu(e)*, *dozu(e)*, *gaittuzu(e)*, *dakazu(e)*. T. Etxebarriaren (1963-64) Eibarko aditz bilduman be badira honen adibidiak. S. Altubek (1960: 63), era berian, ezaugarri hauxe aittatu eban Eibar, Elgoibar, Soraluze eta inguruetak berbeten bereizgarrixen artian.

Orañaldixa ez dan aldixetan (iraganaldixa, baldintzia...) beste berbeta batzuetan be berberak dira ‘zu’ eta ‘zuek’ personeri dagokixezan adizkixak. Horren adibide Leinzko eta Aramaixoko *sue(i)k siñen* & *sitzen*.

⁴³ J. San Martinek (1958b: 152) esan ebanez, inguruetak auzuak be ezagun dabe hau bereizgarrixau, eta hortik eibartarrerri, esate baterako, adar soñuan esan ohi jakuen *eibartarrak dituk*, *barren!* Elgoibarren, berriz, *ElgoiBARREN* izena ipiñi deutse herriko aldizkarixari, euren berbetako hori ezaugarrixori aldarrikatu nahirik-edo.

Koldo Zuazo

antxitxika ‘lasterka’ (Eibar aldeko berbetak, Antzuola, Bergara, Elgoibar, Oñati).

asarre ‘sendo, handi’ esanguriarekiñ (Antzuola, Bergara).

emendau ‘itzali’ (Mendaro, Elgoibar, Elgeta, Soraluze, Antzuola, Bergara, Oñati).

satandera ‘mend. ogigaztai [erbinude]’ (Mendaro, Elgoibar, Eibar aldeko berbetak, Bergara, Antzuola).

u(g)ez-en elkartuak (*ugesaitta*, *ugesama*, *ugesalaba* tankerakuak [orok. ‘aitorde...’]) (Soraluze, Bergara, Antzuola, Oñati).

Eremu honetan (Mutriku, Eibar, Elgeta, Bergara, Antzuola) ‘*zela* + Nor-Nori adizkixa + *izena*’ erabili ohi da (orok. ‘nola deitzen zara? / zein da zure izena?’). Larrañagak (1998) Antzuolan jasotakuak dira hónek:

<i>sela jatzu isena?</i>	‘nola zaizu izena?’ (106)
<i>Amari Braulia jakon isena</i>	‘Amari Braulia zitzaion izena’ (106)
<i>ari jakon isena pittarra</i>	‘hari zitzaion izena <i>pittarra</i> ’ (339)

9. Debagoieneko bereizgarrixak

9.1. Debagoieneko bereizgarrixak

- (1) Singularra & plurala bereizten daben azentu eza.
- (2) Esangura banako berba bikotiak bereizten dittuan azentu eza.
- (3) *-tza + a* → *-tzaia* & *-tzaie*.
- (4) Erakusle pluraletako *-i-*.
- (5) *-dui* atzizkixa.
- (6) Aditzizenak osatzeko aukera zabala.
- (7) **erautsi* sustraixa.
- (8) Objektu pluralarekingo komunztadura eza.
- (9) Nor-Nork sailleko *-it-* pluralgille eza.
- (10) *edun*-en iraganaldixan bokalarteko *-u-* → *-b-* (> *-ø-*).
- (11) Aditzetako 2. eta 3. personetako *-ai* & *-ei* aldaerak.
- (12) Aldaera lexikuak.
- (13) Lexikua.

Deba ibarreko euskeria



Koldo Zuazo

9. 2. Argibidiak

(1) Ez dago singularra eta plurala bereizten daben azenturik. Aldiak alde, Deba ibarreko gaiñerako berbetetan azentuak bereizten dau singularra eta plurala. Antzuolan, esate baterako, holan egitten da (Larrañaga 1998: 50):

dat. sg.	<i>txarrixái</i>	/	pl.	<i>txárrixei</i>
ines. sg.	<i>etxían</i>	/	pl.	<i>étxetan</i>
soziat. sg.	<i>umiákiñ</i>	/	pl.	<i>úmiekiñ</i>
destinat. sg.	<i>amandáko</i>	/	pl.	<i>ámendako</i>

Mutrikun be galdutzat jo leike hau azentu bereizgarrixau⁴⁴.

(2) Ez dago esangura banako berba bikotiak bereizten dittuan azenturik. Ostera, Deba ibarreko gaiñerako berbetetan bada hori azentu bereizgarrixori. Eibarren, esate baterako (adibide gehiago in Laspiur 1979: 252hh):

<i>astía</i>	‘7 egunekoa’	/	<i>ástia</i>	‘abiatzea’
<i>botía</i>	‘zahatoa’	/	<i>bótia</i>	‘pilotek-eta egin ohi dutena’
<i>otía</i>	‘otea (landarea)’	/	<i>ótia</i>	‘O.T.A. aparkalekuetakoa’
<i>serúa</i>	‘goikoa’	/	<i>sérua</i>	‘0 zenbakia’

Mutrikun be ez dago hau azentu bereizgarrixau⁴⁵.

(3) *-tza + a* → *-tzaia* & *-tzaie* billakaeria bete ohi da Debagoieneko berbeta batzuetan. Horren adibide Oñatiko hónek (Izagirre 1965: 197-8 eta 1970):

- bizibide balixodunak: *agíntaaritzaia*, *argíntzaia*, *artzaintzaia* & *pastoretzaia*...
- landara multzuak: *bedártzaia*, *urkítzaia*...
- ostianguak: *askótzaia*, *bisítzaia*, *eskóntzaia*...

Oñatin, gaiñera, erdal *-antza* → *tzaia* be gauzatu da:

alégrantzaia
labrantzaia
segúrantzaia

(4) Mendebalian legez, erakuslien sustraixa singularrian eta pluralian berbera dan arren, *-i-* agertzen da pluralian (nunbait be *ee* → *ei* gertatu da: *oneek* → *oneik*). Horren adibide Oñatiko hónek:

⁴⁴ Arrietak (1974: 35), dana dala, jaso zittuan azentu bereizgarrixa euken zenbait adibide.

⁴⁵ Oñatin berba jakin batzuetan bada: *basúa* ‘oihana’ / *básua* ‘edalontzia’.

Deba ibarreko euskeria

<i>oneik</i>	<i>orreik</i>	<i>areik</i>
<i>oneiri</i>	<i>orreiri</i>	<i>areiri</i>
<i>oneiñ</i>	<i>orreñ</i>	<i>areñ</i>
<i>oneikiñ</i>	<i>orreikiñ</i>	<i>areikiñ</i>
<i>oneittan</i>	<i>orreittan</i>	<i>areittan</i>
<i>oneittara</i>	<i>orreittara</i>	<i>areittara</i>
...

(5) Atzizkixetan bizirik dago *-dui* aldaeria (orok. *-di*). Horren adibide Izagirrek (1965, 1970) Oñatin jasotako hónek:

<i>askárduixa</i>	<i>egurduixa</i>	<i>gastáñuixa</i>
<i>intxaurduixa</i>	<i>koostaduixa</i>	<i>lisárduixa</i>
<i>urkíduixa</i>	...	

Arrasaten eta Aramaixon *-doi* aldaeria dago.

(6) Mendebalian legez, aditzizenak osatzeko aukera zabala dago:

a. Mendebaleko gaiñerako berbetetan bezain zabala da *-ten* aldaeriaren esparrua, eta bera da partizipixua $\{-r, l, n, g, k\}i, -e, -a$ eta *-o* danian erabiltzen dana. Horren adibide Oñatiko hónek (Elortza 1994: 472hh, Erostarbe 1994: 508hh eta Izagirre 1970):

ekarri	→	<i>ekarten</i>
ibili	→	<i>ibiltten</i>
ifini	→	<i>ifintten</i>
eralgi	→	<i>eralgitten</i>
eduki	→	<i>eukitten</i>
bete	→	<i>beteten</i>
bota	→	<i>botaten</i>
jaso	→	<i>jasoten</i>

Bergarako Osintxu eta Elorregi auzuetan, Antzuolan, Elgetan eta Ermuan be badira honen aztarnak, nahiz eta *-tzen* tankerakuak diran ohikuenak eta gazterixiak erabiltzen dittuan bakarrak.

b. Aditzizena *-ketan* da partizipixuak silaba bittik gora eta *-atu, -itu, -tu* amaieria daukanean⁴⁶. Horren adibide Arrasateko hónek:

⁴⁶ Esandako baldintzak ez dira zihatzen betetzen. Arrasaten, esate baterako, *deiketan* ‘deitzen’, *lanketan* ‘lantzen’, *minketan* ‘mintzen’, *sainketan* ‘zaintzen’ be badira, nahiz eta silaba bikuak izan. Ostera, *gorrituten* (& *gorriketan*) esaten da, aditza hiru silabakua izan arren. Oso zabaldua dago *sorketan* ‘sortzen’ aldaeria be, eta *-ztu* → *-zketan* egितten dabe Leinzko eta Aramaixoko hiztunik gehixenak: *mosketan* ‘mozten’, *posketan* ‘pozten’ (Elortza 1994: 470-1).

Koldo Zuazo

eskatu → *eskaketan* ‘eskatzten’
gorritu → *gorriketan* ‘gorritzen’
bigundu → *bigunketan* ‘biguntzen’

c. Leintzen eta Aramaixon *-etan* erabiltzen da partizipixua *-au* batekiñ amaitzen darian:

gustau → *gustetan* ‘gustatzen’

Aramaixon eta Eskoriatzako Marin auzuan partizipixua *-e* batekiñ amaitzen darian be *-tan* erabiltzen da (Elortza 1994: 474 eta Ormaetxea 1998):

erre → *erretan* ‘erretzen’
gorde → *gordetan* ‘gordetzen’

d. Partizipixua *-idu* darian, aditzizena *-iduten* da Araotzen (Oñati), Leintzen eta Aramaixon. Horren adibide Araozko hónek (Erostarbe 1994: 508):

eskribidu → *eskribiuten* ‘eskribitzen’
sentidu → *sentíuten* ‘sentitzen’

e. Oñatiko aldaera berezixa da *-itten*. Partizipixua *-au*, *-idu* darian erabiltzen da (Erostarbe 1994: 508):

faltau → *faltáitten* ‘faltatzen’
sentidu → *sentítitten* ‘sentitzen’

f. Oñatin *-t(z)éen* be erabiltzen da partizipixua silaba bikua eta *-tu* edo *-i* amaierakua darian:

hartu → *artzéen* ‘hartzen’ hasi → *astéen* ‘hasten’
batu → *batzéen* ‘batzen’ hautsi → *austzéen* ‘hausten’

Absolutibo singularrian be *artzéia* ‘hartzea’, *astéia* ‘hastea’ tankerakua erabiltzen dira Oñatin eta Leintz aldeko auzo batzuetan (Elortza 1994: 469-70, Erostarbe 1994: 498-9 eta Izagirre 1965: 198-9).

(7) Leintz ibarrian eta Aramaixon oso galduta dagoz *jardun*-en adizki trinkuak, baiña, ostera, Aramaixon eta Arrasaten behiñik behiñ, **erautsi* tankerako adizkixak erabiltzen dittue adiñeko hiztunak esangura berberarekiñ⁴⁷. Horren adibide J.M. Garaik eta E. Plazaolak (1999: 181-247) Arrasaten jasotakuak:

⁴⁷ Azkue be (1924: 699) jabetu zan hónekiñ adizkixokiñ, eta *jaten derautsagu* ipiñi eban adibide.

Deba ibarreko euskeria

badarautzie santaarrok jaten

'badihardute santaagedatarrok jaten' (232)

i, Paula, gure andrak bajarautziene fin asko

'hi, Paula, gure andreek baziharduten fin asko' (233)

J.L. Ormaetxearen (1998) arabera, hónetxek dira adizkixak:

darutzet

darutzek / n

darutzo

darutzau

darutzesu

darutzesue

darutzie

(8) Objektu pluralarekingo komunztadura eza dago Bergaran, Antzuolan eta Debagoienian. Komunztadura eza N-N-N eta Nor-Nori sailletako adizkixetan eta trinko guztietan gertatzen da. Larrañagak (1998) Antzuolan jasotakuak dira hónek:

gísonak etorri jaku

'gizonak etorri zaigu' (51)

astian-astian gisur aundixauak esaten dosku

'astean-astean gezur handiagoak esaten digu' (86)

erosittako gausa danak doiat poltzan

'erositako gauza denak doat [= daramat] poltsan' (101)

besapian botillak dakat

'besapean botilak dakart' (108)

arek jakixan bidiok

'hark zakian bideok' (52)

Bergaran eta Antzuolan *eduki*-ren eta **ediñ*-en adizkixak egitten dabe komunztaduria (*dauska, leiske*), eta gaiñerako trinkuak be bai iñoiz. Ostera, ez dabe beti egitten *edun*-enak (batez be objektua 3. persona plurala danian). Horren adibide Antzuolako hónek (Larrañaga 1998):

orduan bailabliak jote seben danak

'orduan bailableak jotzen zuten denak'

Koldo Zuazo

are(k) porruak gordiñik jate seben
'haiek porruak gordinik jaten zuten'

Oñatiarren eta Arrasateko kaletarren jardunian be antzera jokatzeko dabe *edun*-en adizkizak.

Bergarako Angiozar auzua berbetaz Elgetarekin bat datorren arren, auzi honetan saihestu egiten da: N-N-N sailleko adizkizetan, batez be iraganaldikuetan, ez da betetzen komunztaduria (Irizar 1992-2: 379hh).

(9) Nor-Nork adizkizetan *-it-* pluralgillerik eza da Oñatiko eta Leinzko berbeten bereizgarria. Oñatikuak dira hók (Irizar 1992-2: 465hh):

<i>saut</i>	'zaitut'	<i>gau</i>	'gaitu'
<i>sau</i>	'zaitu'	<i>gaue</i>	'gaituzte'
<i>saugu</i>	'zaitugu'	<i>gausak / n</i>	'gaituk / n'
<i>sauet</i>	'zaituztet'	<i>gaisu</i>	'gaituzu'
<i>saue</i>	'zaituzte'	<i>gaisue</i>	'gaituzue'

Aramaixon bixen lehia dago: *saut* & *saittut*. Jakiña, objektua 3. personia darian, *-it-* da beti pluralgillia: *dittut, dittu...*

(10) *edun*-en iraganaldiko adizki batzuetan bokalarteko *-u-* → *-b-* (> *-ø-*) billakutzen da. Nunbait be beste adizki batzuen ereduari jarraituaz (*daue* 'dute' → *dabe*, *neuan* 'nuen' → *neban*, *euan* 'zuen' → *eban*) sortu dira Debagoieneko *geben* & *gen* 'genuen' eta *seben* & *sen* 'zenuen' tankerako adizkizak.

(11) Aditzen 2. eta 3. persona pluraleko *-ai* & *-ei* aldaeria da Oñatiko bereizgarria (Irizar 1992-2: 465hh):

<i>sarai</i>	'zarete'	<i>siñain</i>	'zineten'
<i>saosai</i>	'zaudete'	<i>sabitzai</i>	'zabiltzate'
<i>dostai</i>	'didate'	<i>otzaiñ</i>	'zioten'
<i>sebeiñ</i>	'zenuten'	<i>ebeiñ</i>	'zuten'

Datibo pluraleko morfeman be *-airi* aldaeria dago Oñatin: *lagunairi* 'lagunei'.

(12) Aldaera lexikuak.

afixa (eta *afixa* —sarrixen— & *apixa* & *abixa* lehia Oñatin, eta *aferixia* Soraluzen [orok. 'habia']⁴⁸).

betik 'beti' (Bergaran be bada).

⁴⁸ Antzuolan, Bergaran eta Elgetan *apixa* esaten da, eta *apixa* & *abixa* Eibarren.

Deba ibarreko euskeria

egogi ‘egoki’ (Bergarako adiñekuen jardunian be bada).

emun (& *emon*) ‘eman’ (baita Antzuolan eta Bergaran be).

fan (& *fuen*, *fuan*) ‘joan’ (baita Elgetan eta Bergarako Elorregi eta Angiozar auzuetan, eta ezaguna da Antzuolan be)⁴⁹.

na(a)r ‘lahar’.

puxkat ‘pixkat’ (baita Antzuolan eta Bergaran be).

(13) Lexikua.

aittajauna ‘aitona’ (baita Elgetan, Soraluzen, Bergaran eta Antzuolan be, atzeraka doian arren).

amarratza (baita Bergaran be, baiña *amarratza* & *armiarma* Oñatin).

eguakitx tankerakuak ‘ostirale’ (baita Antzuolan eta Bergaran be).

garranga ‘izotz kandela’ (Bergaran eta Antzuolan be bada).

itxungi ‘itzali’ (& *atxingi* Arrasaten).

jarein ‘utzi’, ‘askatu’ (Aramaixon, esate baterako: *komuneko bonbiei jarein* ‘tiratu’; *itturrixei jarein* ‘ireki’; *txakurrei jarein* ‘askatu’; *persona jareñe* ‘narrasa’; *lanai jarein* ‘utzi’ [A. Ozaetak a.e.]) (Antzuolan eta Bergaran be bada)⁵⁰.

laru ‘kolore horixka’.

samur ‘erraz’ esanguriarekiñ (Elgetan, Bergaran eta Antzuolan be bada).

takarraran (& *postaka* & mend. *ariñeketan*) ‘lasterka’.

txu ‘tu’ (Deba ibarreko gaiñerako berbetetan *txistu*).

Berba zahar banaka bat be gorde da alderdi honetan:

belegi ‘kolore horixka’ (Oñati; Izagirre 1970)

⁴⁹ Eibarren bertan be ezaguna izan da. Horren lekuko oraindik oraiñ *EAEL*-k (62 etnotestua) jaso ebana: *da fa(n) za(n) la(g)unákin, zerera, itxera (...)*. Ikusi, gaiñera, San Martin 1990: s.u. *ifñi*.

⁵⁰ Eibarren *amaiñ* erabiltzen da ‘askatu’ esanguriarekiñ. Hona hemen Laspiurrek (1999: 41) dakarren adibide bat: *kaixolan zeukan txorixari amaiñ emon detsa* ‘kaiolan zeukan txoriari amain eman dio’.

Koldo Zuazo

egusari 'jai' (Bergara, Oñati)
unaiña 'behizaina' (Oñati)

Mendebaleko berba orokor batzuk arrotzak dira Debagoienian:

lantzean (bein) 'noizean (behin)' (Leintzen —Arrasaten izan ezik— eta Aramaixon).
ostian(go) 'bestela(ko)'.



Jon Ezenarro (1906-1970)
Euskal kantu tradizionalak batzen eta
zabaltzen jardun eban soraluzetarra



Kandido Izagirre (1913-1967)
Oñatiko hiztegixa egin eban.



Pedro Migel Urruzuno (1844-1928)
Idazle elgoibartarra



Juakin Arana "Loramendi"
Idazle elgoibartarra

Koldo Zuazo

Bigarren Atala: Ondorixuak

Koldo Zuazo

ONDORIXUAK

1. Deba ibarreko euskeriaren nortasuna

Saio honetan, guztira, 85 arau fonologiko eta morfosintaktiko —gehixago be bai ziharka—, 64 aldaera lexiko eta 133 berba aurkeztu dira. Horri guztiorri esker, Deba ibarreko berbeten barri zabal eta zihatzen samarra daukagu oraiñ.

Ez neuke esango Deba ibarreko euskera bestien aldira ziharo berezixa danik, ez dagualako gaiñerakuengandik aldentzen daben ezaugarri multzo hazirik. Baiña badira, horraittio, beraren jatorrixa argiro salatzen daben ezaugarri batzuk, nahiz eta hónetariko asko inguruetako berbetetan be badiran: Lea-Artibai eskualdian gehixenbat. Hona hemen Deba ibarreko euskeriaren bereizgarri nagusixak:

(1) /i ___ + bokal/ arteko <x> epentesia: *mendixa* ‘mendia’ (Lea-Artibaiko eta Durangaldeko berbeta batzuetan, Deban eta Itziarren be bada, eta oso antzekua da Azkoittiko ebakeria).

(2) <j> ebakeria berba hasieran ez eze (*jakiñ*), zenbait adizkittan be agertzen da (baita Lea-Artibaiko berbeta batzuetan eta Naparruako Burundan be):

- a. Nor-Nori sailleko adizkixetan: *jako* ‘zaio’, *jakon* ‘zizaion’.
- b. *edun*-en hitanuan: *juat* ‘diat’, *najuan* ‘nian’.
- c. N-N-N sailleko hitanuan: *jetsat* ‘zioat’, *najetsan* ‘nioan’.
- d. Trinkuen hitanuan: *jaukat* ‘zaukat’, *najeukan* ‘neukaan’.

(3) Hurbiltze adlatiboko *-rutz* morfemia ziharo emankorra da: *diskotekarutz goias* (Lea-Artibaiko eta Durangaldeko berbeta batzuetan be bada, baiña ez, ostera, Deba ibarreko herri guzti-guztietan).

Orokorrak-edo diran hónek hiru ezaugarrixokin batera, eremu txikixaguan erabiltzen diran beste batzuk nabarmenduko nittuke:

(1) *aura* ‘hura’ erakuslia. Deba ibarrari dagokixonez, Debarrenian, Soraluzen, Bergaran eta Antzuolan erabiltzen da. Handik kanpo, berriz, Deban, Zestuan, Azkoittian eta Azpeittian (baita Urretxuko eta Zumarragako auzo batzuetan be) jaso dittut tankera horretakuak.

(2) Destinatiboko *-endako* morfemia: *etxequendako* ‘etxequentzat’. Deba ibarrari dagokixonez, Debarreneko berbetetan ez beste guztietan erabiltzen da. Deba ibarretik kanpo, berriz, Goierriko batzuetan eta Durangaldeko beste batzuetan dago bizirik (baita, *jakiña*, Naparrua Garaian, Naparrua Beherian eta Zuberuan be).

(3) N-N-N sailleko *jao* & *xao* ‘dio’ tankerako adizkixak. Antzuolan, Bergaran eta Oñatin baiño

Deba ibarreko euskeria

ez dira erabiltzen holakuak.

(4) *-t(z)eke & -t(z)eka* ‘gabe’ aditz atzizkixa: *egitteke* ‘egin gabe’. Deba ibarrari dagokixonez, Antzuolan, Bergaran, Elgetan eta Soraluzen baiño ez da erabiltzen. Handik kanpo, berriz, Azkoittian jaso dot.

(5) *barren* lokaillua. Deba ibarrari dagokixonez, Mendaron, Elgoibarren, Soraluze, Eibarren eta Ermuan erabiltzen da. Handik kanpo, berriz, Mallabian (eta Azkoittian?) baiño ez dot jaso.

(6) *ekin* NOR erara jokatzia. Deba ibar gehixenian egiñ ohi da.

(7) Aldaera lexikuen artian, Deba ibar gehixeneko *etzin* ‘etzan’ (Naparruako eremu zabalian be bada), eta Debagoieneko *fan* ‘joan’ (hau, han-hemen, EH-ko leku askotan esaten da), *emun* ‘eman’ nabarmenduko nittuke.

(7) Berba berezirik aittatzekotan, Deba ibar osokuak diran *itxuria* ‘itxura denez’, *satar* ‘itsusi’ jarriko nittuke lehenengo eta, hōnekin batera, eremu txikixaguetan erabiltzen diran *aittajauna & amandre* ‘aitona & amona’, *antxitxika & takarraran & postaka* ‘lasterka’, *emendau & itxungi* ‘itzali’, *eguakitz* tankerakuak ‘ostirale’, *garbatu* ‘damutu’, *jarein* ‘utzi, askatu’, *katuill* ‘otsail’...

2. Deba ibarreko hizkuntza eremuak

Ibar honetako euskeria ez dala bardiña erakutsi deuskue azaldu diran ezaugarriak. Hiru hizkuntza eremu nagusi agiri dira:

1. *Debagoiena:*

1.a. *Leintz-Aramaixokua:* Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate eta Aramaixo (Olaeta auzua izan ezik).

1.b. *Oñatikua.*

2. *Debaerdikua:*

2.a. *Antzuola-Bergarakua.*

2.b. *Eibar aldekoa:* Eibar, Zaldibarko Eitzaga auzua, Ermua, Soraluze eta Elgeta (Bergarari dagokixozan Ubera eta Angiozar auzuak barruan dirala)⁵¹.

⁵¹ Goguan izan bihar da gaurregun Bergarakuak diran Angiozar eta Ubera Elgetarenak izan zirala 1928xa arte, eta berbetan be igartzen da antziñako hori loturiori. Dana dala, Uberako euskeria ez da ziharo bardiña. Aldia dago Bergaratik gertu dagozan baserrixetatik Elgetatik gertuago dagozanetara.

Koldo Zuazo



DEBA IBARREKO HIZKERAK

Fig. 1a: KOLDO ZUAZO (1999)

Materia: Antso Etxe

Deba ibarreko euskeria

3. *Debabarrena*: Elgoibar, Mendaro eta Mutriku.

Eremu batetik besterako bidia, dana dala, pixkanaka egitten da; ez dago inon batera-batera-ko etenik. Debagoienetik Debaerdikora bittartian Oñati dago, eta Soraluzek egitten dau Antzuola-Bergara aldeko berbeten eta Eibar aldekuen arteko loturia. Elgoibar, era berian, Debaerdiko berbeten eta Debabarrenekuen arteko zubixa da. Mutriku da, berriz, hōnen berbeton artian kiputxena.

3. Deba ibarraren lekua euskalkixen artian

Deba ibarreko euskeran ez dala ezaugarri berezi eta aparteko askorik esan dot goratuago, baiña zehaztasun bat egin biharra daukat oraiñ. Beraren kokaguniak, hau da, Gipuzkuaren, Bizkaixaren eta Arabaren artian egotiak emoten deutsa nortasun berezixa. Naparrua be ez dau urriñ. Bide zuzenez, oso gertu dira Oñati eta Altsasu, eta Burundako euskeran agiri-agirixan da gertutasun hori.

Deba ibarran euskera kiputxa ala Bizkaikua egitten ete dan izan da zalantzan. Leku batzuetan, behintzat, argi egon da gauzia. Villasantek (1968: 85) jaso eban oñatiarren eritzixa:

Legazpia, Zegama ta alde oietakoari kiputza deitzen diote oñatiarrak. Kiputza au da, gipuzkoar dialektua.

Oñatiarrendako, nunbait, Aizkorri mendixaz beste aldekoa da *kiputx herrixa*, hau da, euskera kiputxa egitten dan eremua. Eibarren be bada *Kiputxanekua* toponimua (EHP: 289). Nunbait be, kiputx herritik Eibarrera bizitzera etorritakoren bati deitzen eutsen holan.

Euskeria aztertzen jardun dabenak be bat etorri dira gauza batzuetan. Larramendirena da aipurik zaharrena. Berak inuanez, Bizkaiko euskeriaren antzekua egitten zan Bizkaittik gertuko herri gipuzkuarretan, hōrrek herrixok zeintzuk ziran argittu ez eban arren. Euskera kiputxa Azkoittian hasitta egitten zala esan eban, baiña Elgoibar be ez eban hortik eremuorretatik ziharo baztertu. Hauxe esan eban hitzez hitz (Larramendi 1745: xxx):

Los lugares rayanos de Bizcaya usan mas del dialecto de Bizcaya: los interiores, empezando desde Elgoybar, ó desde Azcoitia por el lado Septentrional, y desde Cegama, y Segura por el lado de Navarra hasta Irun, y Fuenterrabía, usan el dialecto de Guipuzcoa.

Zihatzagua izan zan Bonaparte (1863, 1869). Euskera kiputxian sartu zittuan Itziar, Deba, Mutriku eta Mendaro, eta Bizkaikuaren barruan Deba ibarreko gaiñerako berbetak.

Aldakuntza txiki bat egiñ eban Azkuek (1905: xxix): euskera kiputxian sartu eban Altzola (baiña Bizkaikuan Elgoibar). Irizarrek (1991-1), oraindik oraiñ, Altzola ez eze, Elgoibar osua

Koldo Zuazo

be euskera kiputxian sartu dau.

Bonapartek, Azkuek eta Irizarrek legez, neuk be garbi ikusten dittut Mutriku, Mendaro eta Elgoibar euskera kiputxian sartzeko errezoiak. Batez be euskera kiputxaren barrikuntza guztiak iritsi diralako hónek hiru herrixotara nengoke horren alde. Hona hemen euskera kiputxaren hórrek barrikuntzok:

(1) *edun*-en *-e-* sustraixa (Elgoibarren izan ezik): *det* ‘dut’.

(2) *izan*-en *-e-* sustraixa: *zera* ‘zara’.

(3) *juan*-en *dijua* & *dixe* tankerako adizkixak.

(4) *al* galdera partikulia.

(5) *arkakuso*, *bukatu*, *eskubi*, *esnatu*, *faborez*, *garo*, *ilbaltz* & *ilbeltz*, *izketa*, *laga*, *lapurtu*, *mami*, *nor* & *zein* —> *zein*, *triku*, *urruti* berbak, eta *pake* aldaeria.

Bereizgarri kiputxak alde batera lagata be, asko dira hónek hiru herrixotara —eta baitta Deba ibarreko beste batzuetara be— iritsi diran Euskal Herriko erdiguneko edo Euskal Herri osoko (baiña ez mendebaleko) ezaugarriak. Ikusi besterik ez dago 3, 4, 5 eta 6. ataletan erakutsi diran guztiak.

Baiña euskera kiputxaren eragiña ukaeziña dan arren, ez da ahaztu bihar, era berian, mendebaleko euskeriarekin dauken lotura estua, hain zuzen be 1go atalian erakutsi dana. Hori dala-eta, eta bateko eta besteko ezaugarriak dittuela kontuan izanda, Debabarrenekuak *tarteko hizkeratzat* jotia erabagi dot⁵².

Antzuola eta Bergara, berriz, mendebalian sartu dittut, nahiz eta erdialdeko euskalkira hurreratzen eta mendebaletik urrintzen dittuen hainbat ezaugarri izan.

⁵² “Euskalkiak, gaur” saiuan (Zuazo 1998) Mutriku jo neban bakar-bakarrik tarteko hizkeratzat, eta mendebalaren barruan sartu nittuan Elgoibar eta Mendaro. Hónek berbetok sakonago aztertziak, orduko erabagixa aldatu biharra ekarri dau.

Deba ibarreko euskeria



Koldo Zuazo

4. Debabarreneko berbeten kokagunia errezoitze aldera

Hartara, ba, Debabarreneko berbetak *tarteko eremuan* sartu dittut; ez mendebalaren eta ez euskera kiputxaren barruan, oraiñ arte egin dan moduan. Horretarako izan dittudan errezoiak erakutsiko dittut, eta bide batez, berbeta bat sailkatzeko zeintzuk eta zenbat ezaugarri hartu bihar diran kontuan be erakutsiko dot. Euskal dialektologixiaren tradiziñuan, hain zuzen, oso ezaugarri gitxittan oiñarritu izan gara berbeta jakin bat euskalki honen edo haren barruan sailkatzeko. Eta nik uste dot, ostera, berbeta bat egoki sailkatu ahal izateko, hori berbetiori bere osotasun guztian aztertu bihar dala: fonologixia, morfologixia, sintaxia, aldaera lexikuak, lexikua bera, eta baitta azentua eta entonaziñua be.

Ikusi deiguzan hórrek ezaugarri danok banan-banan. Hona hemen, lehenengo taulan, mendebaleko zeintzuk arau fonologiko betetzen diran edo betetzen ez diran Debabarreneko hiru herrixetan:

Ezaugarrixak	Elgoibar	Mendaro	Mutriku
<i>-a + a</i> → <i>-ia</i>	+	+	+
<i>-e</i> → <i>-a</i>	+	+	+
<i>doia & daroia</i>	-	-	-
/i_ + V/ <x>	+	+	+
<s> & <tz> baiño ez	+	+	+
V + x & tx	-	-	-
-(c)ión → -(z)iñño	-	-	-

Gaiñera, Debabarrenian badira —edo izan dira (parentesi artian ipiñiko dittut galbidian dagozanak)—, mendebalian arrotzak diran ezaugarrixak. Hona hemen hórren taulia:

Ezaugarrixak	Elgoibar	Mendaro	Mutriku
<i>f</i> → <i>p</i>	(+)	(+)	(+)
afrikatuak (<i>juantzan</i>)	(+)	(+)	+

Gatozan, oraiñ, izenaren morfologixara, eta ikusi deigun mendebaleko zeintzuk ezaugarri betetzen diran eta betetzen ez diran Debabarreneko hiru herrixetan:

Ezaugarrixak	Elgoibar	Mendaro	Mutriku
Erak. sustrai berbera	+	+	+
Erak. ezker & eskuma	+ / -	+ / -	+ / -
<i>a</i> erakuslia	-	-	-
<i>neuk</i> sailla beti	+	+	+
<i>edo</i> + izenordaiña	-	-	+ / -
izen. + <i>edo</i> + izen.	-	-	+ / -
Soziatiboko <i>-gaz</i>	-	-	-
Adlatiboko <i>-rutz</i>	-	-	+
Adverbixuetan <i>-n</i>	-	-	-
<i>-txo-</i> txikigarrixa beti	+	+	+

Deba ibarreko euskeria

Mendebalian arrotza dan ezaugarri bat be bada Debabarreneko hiru herrixotan:

Ezaugarrixak	Elgoibar	Mendaro	Mutriku
<i>-tikan, -gantikan</i>	+	+	+

Gatozan, oraiñ, aditzaren morfologixara, eta ikusi deigun mendebaleko zeintzuk ezaugarri betetzen diran eta betetzen ez diran Debabarrenian:

Ezaugarrixak	Elgoibar	Mendaro	Mutriku
<i>egin</i> sustraixa	+	+ (& *ezan)	+ (& *ezan)
N-Ni irag.: oraiña+ N	+	+ (& zit-)	+ (& zit-)
<i>ari izan eza</i>	+	+ / (-)	+ / (-)
<i>jardun-en diardut...</i>	+	+	+
Irag. 3. pers. ø-	-	-	-
Aditzizenetan <i>-etan...</i>	-	-	-
<i>-n</i> → <i>-tzen (jakitzen)</i>	+	+	+
<i>-z</i> pluralgillia	+	+	+
2. pers. pl. <i>-(i)e</i>	-	-	-
<i>edun-en -o-</i>	+	-	-
<i>izan-en -a-</i>	-	-	-
N-N-N <i>eutsi</i>	-	-	-
N-Nori <i>j- (jako)</i>	+	+ / -	-
<i>edun-en</i> hitanuan <i>j-</i>	+	+	-
N-N-N hitanuan <i>j-</i>	+	+	-
Trinkuen hitanuan <i>j-</i>	+	+	-
<i>-ado</i> → <i>-au</i>	+	+	+
<i>-atu</i> → <i>-atu</i>	-	-	-
<i>-ido</i> → <i>-idu</i>	+ / -	+ / -	+ / -
Trinkuen irag. <i>-e-</i>	-	-	-
<i>urten, igon</i> iragankor.	+ / -	+	+

Mendebalian arrotza dan ezaugarri bat be bada Debabarreneko hiru herrixotan:

Ezaugarrixak	Elgoibar	Mendaro	Mutriku
<i>dijua, dixe</i>	+	+	+

Koldo Zuazo

Morfosintaxia da erakutsiko dan hurrengo saila. Hona hemen mendebaleko zeintzuk ezaugarri betetzen diran eta betetzen ez diran Debabarrenian:

Ezaugarrixak	Elgoibar	Mendaro	Mutriku
<i>-t(z)iarren</i>	+	+	+
<i>arren</i>	+	+	+
<i>-(e)na</i>	+	+	+
<i>ala & edo</i>	+ / -	+ / -	+ / -
Mugim. + inesibua	-	-	-
<i>bi</i> eskumatara	-	-	-
<i>baiño</i> 'baizik'	-	-	-
<i>lako & lakoxe</i>	-	-	-
<i>le[ge]z & le[ge]txe</i>	-	-	-
<i>barren</i> lokaillua	+	+	-
<i>etorri dator</i>	-	-	-

Mendebalian arrotzak diran hónek ezaugarrixok be badira Debabarrenian:

Ezaugarrixak	Elgoibar	Mendaro	Mutriku
<i>bezela & bezelako</i>	+	+	+
<i>kausazko nola</i>	+	+	+
<i>baldin</i>	+	+	+
<i>galderetako al</i>	+	+	+

Aldaerak erakutsiko dittut ondoren. Hona hemen mendebaleko zeintzuk aldaera betetzen diran edo betetzen ez diran Debabarrenian:

Aldaerak	Elgoibar	Mendaro	Mutriku
<i>-ain (arrañ...)</i>	+	+	+
<i>-d- (edur...)</i>	+	+	+
<i>narru</i>	+	+	+
<i>nasai</i>	+ (& <i>lasai</i>)	+ (& <i>lasai</i>)	+ (& <i>lasai</i>)
<i>baten & batian</i>	+	+	+
<i>ardau</i>	+	+	+
<i>hazur</i>	+	+	+
<i>barre</i>	+	+	+
<i>burdi</i>	+	+	+
<i>burdiña</i>	+	+	+
<i>burruka</i>	+	+	+
<i>ete</i>	+	+	+
<i>gaztai</i>	+	+	+
<i>keixa</i>	+	+	+
<i>kipula</i>	+	+	+

Deba ibarreko euskeria

<i>matrailla</i>	+	+	+
<i>puxika</i>	+	+	+
<i>suhiñ</i>	+	+	+
<i>esan-en -n- (diño...)</i>	-	-	-
<i>lebatz</i>	-	-	-
<i>mustur</i>	-	-	-
<i>ori(x)o</i>	-	-	-
<i>gitxi</i>	+	+ (& gutxi)	+
<i>hutzittu</i>	-	-	+ (& hustu)
<i>hotzittu</i>	-	-	+ (& hostu)
<i>baltzittu</i>	-	-	-
<i>nire</i>	-	-	-
<i>guzur</i>	-	-	-
<i>iruntz</i>	-	-	-
<i>kirten</i>	-	-	-
<i>sabai</i>	-	-	-
<i>urun</i>	-	-	-
<i>ule</i>	-	-	-
<i>untza</i>	-	-	-
<i>urten</i>	+ (& erten)	+ (& erten)	+ (& erten)
<i>ugarixo</i>	+	-	+
<i>usen</i>	-	-	(?)
<i>barri</i>	-	-	-
<i>bardiñ</i>	-	-	-
<i>txarri</i>	+	+	+
<i>baltz</i>	-	-	-
<i>zentzuna</i>	+	-	+
<i>premiña</i>	-	-	-
<i>mamiña</i>	+	+	+
<i>adberbixuetan -to</i>	-	-	-
<i>eskutur</i>	+ (& eskumutur)	+ (& eskumutur)	+ (& eskumutur)
<i>solo</i>	-	-	+
<i>-ain > -an (ezpan...)</i>	-	-	-
<i>jagi</i>	-	-	-
<i>irigi</i>	-	-	-
<i>eba(g)i</i>	+	+	-
<i>eraba(g)i</i>	+	+	-
<i>ese(g)i, ixigi</i>	+	+	+
<i>aizta</i>	+ (& aizpa)	-	+
<i>emon</i>	-	-	-
<i>be 'ere'</i>	-	-	-
<i>etzun</i>	+ (& etzan)	-	-
<i>barik</i>	+	+	-

Koldo Zuazo

Hona hemen, azkenik, mendebaleko zeintzuk berba erabiltzen diran edo erabiltzen ez diran Debabarrenian:

Lexikua	Elgoibar	Mendaro	Mutriku
Egunak (<i>martitzen...</i>)	+	+	+
<i>zeintzuk, zertzuk</i>	+	+	+
<i>aran & okaran</i>	+	+	+
<i>bekoki & kopeta</i>	+	+	+
<i>ume baiño ez</i>	+	+	+
<i>abade</i>	+	+	+
<i>apurtu</i>	+	+	+
<i>armozu</i>	+	+	+
<i>batu</i>	+	+	+
<i>ei</i>	+	+	+
<i>ezkutau</i>	+	+	+
<i>ganora</i>	+	+	+
<i>izara</i>	+	+	+
<i>itzal</i> ‘izugarri’	+	+	+
<i>kantzau</i>	+	+	+
<i>kerizpe</i>	+	+	+
<i>odoloste</i>	+	+	+
<i>osatu</i> ‘sendatu’	+	+	+
<i>oste</i>	+	+	+
<i>zela</i>	+ (& <i>nolatan</i>)	+ (& <i>nola</i>)	+ (& <i>nola</i>)
<i>zoro</i>	+	+	+
<i>zil</i>	+	+	+
<i>olgau</i>	-	-	+ (& <i>jolas</i>)
<i>zein & nor</i>	-	-	-
<i>ardi</i>	-	-	+ (& <i>arkakuso</i>)
<i>ugar</i>	-	-	-
<i>eztegu</i>	-	-	-
<i>berba</i>	+	-	-
<i>bihar</i>	+ (& <i>lan</i>)	-	-
<i>sama</i>	-	-	-
<i>pernil</i>	-	-	-
<i>pastore</i>	+ (& <i>artzaiñ</i>)	+ (& <i>artzaiñ</i>)	+ (& <i>artzaiñ</i>)
<i>itzartu</i>	-	-	-
<i>txarto</i>	-	-	-
<i>itxi</i> ‘utzi’	-	-	-
<i>gura</i>	-	-	-
<i>eska[ra]tz</i>	-	-	-
<i>eskeko</i>	-	-	-
<i>ira</i>	-	-	-
<i>artazi</i>	-	-	-
<i>miiña</i>	-	-	-
<i>atzamar</i>	-	-	-

Deba ibarreko euskeria

<i>lenengo, lelengo</i>	+	+ (& <i>aurrena</i>)	+ (& <i>aurrena</i>)
<i>adur</i>	-	-	-
<i>eruan</i>	+	+ (& <i>eraman</i>)	-
<i>eskuma</i>	+ (& <i>eskubi</i>)	+ (& <i>eskubi</i>)	-
<i>galtza</i> ‘galtzerdi’	-	-	-
<i>ostu</i>	+ (& <i>lapurtu</i>)	-	+
<i>gatzatu</i>	+	+ (& <i>mami</i>)	+
<i>piku</i>	+	+ (& <i>moko</i>)	+ (& <i>moko</i>)
<i>higuiñ</i>	-	-	-
<i>antxitxika</i>	+	-	-
<i>kirikixo</i>	+ (& <i>triku</i>)	-	+
<i>urriñ</i>	-	-	-
<i>aratuztiak</i>	-	-	+
<i>gatx, gaitz</i>	-	-	-
<i>larregi</i>	-	-	-
<i>orri</i> ‘hosto’	-	-	-
<i>ortozik</i>	-	-	-
<i>satx</i>	-	-	-
<i>ugazaba</i>	+	-	-
<i>jausi</i>	+	+	-
<i>aittitta & amama</i>	+	+	-
<i>ortu</i>	+	+	+ (& <i>baratz</i>)
<i>berakatz</i>	+	+	-
<i>prakak</i>	+	+	-
<i>ixotu</i>	+	+	-
<i>arrama</i>	+	+	-
<i>jaurti</i>	+	+	-
<i>itxuria</i> ‘nunbait’	+	+	+
<i>mailluka</i>	+	+	+
<i>satar</i>	+	+	+
<i>katuil</i>	-	+	-
<i>emendau</i>	+	+	-
<i>satandera</i>	+	+	-

Mendebalian arrotzak diran hónek beste berbok be badira Debabarrenian:

Lexikua	Elgoibar	Mendaro	Mutriku
<i>gaizto</i>	+	+	+
<i>bukatu</i>	+	+	-
<i>faborez</i>	-	+ (& <i>mesedez</i>)	+ (& <i>mesedez</i>)
<i>ilbeltza</i>	+	+	-
<i>otsailla</i>	+	+	-
<i>laga</i>	+	+	+
<i>berriz</i> ‘berriro’	+	+	+
<i>pareta</i> (& <i>orma</i>)	+	+	+
<i>ortz</i>	-	+	-

Koldo Zuazo

Hónetxek izan dira, ba, aintzakotzat hartu dittudan ezaugarrixak, eta hónek ezaugarrixok aintzakotzat hartzetik etorri da nire erabagixa: Debarrena *tarteko hizkeratzat* jotia.

5. Mendebaleko euskeriaren eta euskera kiputxaren arteko lehia Deba ibarrían

Saio honetan zihar behin baiño gehixagotan ikusi da Deba ibarreko zenbait ezaugarri belau-naldi batetik bestera aldatuaz jua dirala. Gehixenetan, euskera kiputxaren ezaugarrixak egin dabe aurrera eta mendebalekuak joan dira atze-atzeka. Eta badira hori aitzen laguntzen daben errezoiak.

Alde batetik, kontuan izan bihar dogu 18. mendia erdialdetik hona, euskeriak eta euskal-zaletasunak Gipuzkuan izan dabela inddarrik haundixena, eta hori dala-eta, euskera kiputxak bereganatu dau nagusittasuna. Jakiña, Deba ibarrera be iritsi da nagusittasun horren oihartzuna.

Elixia antolaketiak be izan dau bere eragiña. 1861 arte Kalahorrako Elizbarrutixan zan Deba ibarra, Arabarekiñ eta Bizkaixarekin batera. Gasteizko Elizbarrutixa sortu zan orduan, eta Araba, Bizkaixa eta Gipuzkua sartu ziran honen barruan. Honek be, nunbait, sendotu egiñ eban euskera kiputxaren nagusittasuna, ez dogulako ahaztu bihar Elixia izan dala euskeriaren esparru jaso bakarrenetakua. Horren eragiñorren barri emon euskun Sebero Altube arrasatearrak (1949: 202-3) Deba ibarraren gaiñian ziharduala:

(...) el Obispado de Gasteiz envía a las parroquias de esos pueblos, casi siempre, sacerdotes de Guipúzcoa, pero de toda ella, sin distinción de zonas lingüísticas: y los que llegan de Beterri (...) predicán y rezan en este su euskaldi, y aun los de Goyerri (o sea los de habla vizcaina [sic]) también lo hacen en guipuzcoano, que lo aprenden con facilidad durante su vida de seminaristas, al contacto, en el Seminario, con los euskaldunes de Beterri.

Toda la predicación y demás actos religiosos en las iglesias de los guipuzcoanos de habla vizcaina se efectúan, pues, con pocas excepciones, en el euskaldi guipuzcoano, y esto basta para que los habitantes de dichas zonas (...) lo entiendan sin dificultades, lo hablen pasablemente y, lo que es más interesante, lo prefieran en los libros de misa, en la Doctrina Cristiana y en toda clase de lecturas.

Dana dala, badirudi lehenagotik etorrela hau joeriau. Horixe aitortu eban behiñik behiñ Uriartek, Leintz ibarrían misiñuetan ebillela, Bonaparte dialektologuari 1859xan eginddako gutun baten (in Ruiz de Larrinaga 1954: 80):

El domingo pasado principiamos la misión que concluiremos el día 17. Predicamos en el dialecto guipuzcoano de Beterri, pues están acostumbrados a este dialecto en el púlpito.

Hillabete batzuk geruago hauxe oharrau egiñ eutsan Uriartek berak Bonaparteri (in Ruiz de Larrinaga 1954: 83):

Deba ibarreko euskeria

En Elgóibar sucede que la parte de la población, que se halla situada hacia Azcoitia, participa algo más del guipuzcoano, pero aún debe agregarse a Vizcaya, aunque esto no acomoda a los guipuzcoanos.

Sucede en todas estas poblaciones que miran con desdén el bascuence de Vizcaya y son muy apasionados al dialecto de Beterri: los sermones y pláticas se predicán en ese dialecto de Beterri, y muchísimas personas hacen estudio de este dialecto, por cuyo motivo hacen una mezcla; pero todavía no han podido guipuzcoanizar al vulgo.

Oso esanguratsua da Uriartek diñuana. Kontua, ba, ez zan bakarrik euskera kiputxa entzuzteratza egindda egozala. Hori baiño gehixago zan: euren jatorrizko berbetia gaitzetsi eta Beterrikoa ikasten ahalegintzen ziran. Egoera berbera erakutsi eban Bonapartek 1863an Etxenikeri egiñ eutsan gutunian (in Urkixo 1910: 257-8): Neuk euskeratu dot Bonapartek frantsesez iñuana⁵³:

Begarako bizkaieria, eta ez gipuzkeria, diñodanian, ondotox be badakitt hau berba egitteko modua ez dabela gustoko gipuzkoar garbi izaten ahalegintzen diran Begarako haundi jentia. Ez diñot ezetz, eta badakitt abade jakintsuenen sermoiak, eta baita iñoiz ondo hezittako jentia eguneroko jarduna bera be, euskera kiputxian, eta Beterriko euskera kiputxik garbixenian gaiñera, izan ohi dala. Baiña honek guztionek ez dau ezertan aldatzen nire ikuspegixa. Begararreri bizkaitarrak eta euren euskalkixa gustau zein gustau ez, kontua da (...) Begarako herri xehiak eta baserritarrak darabilen berbetia ekialdeko bizkaierari dagokixola hizkuntziaren ikuspegitik begiratuta.

Hónek lekukotasunok garbi erakusten dabe euskera kiputxa zabaltzen Elixia izan daberen eragiña, eta uste izatekoa da hori eragiñori indartsuagua izan dala mende honen erdialdian herrialdez herrialdeko elizbarrutixak sortu ziranetik aurrera. Muga administratibuen arabera osatu ziran elizbarrutixak eta, hartara, Donostiakuarekin batu zan Deba ibarra.

Bonaparteren lekukotasunak, gaiñera, Begarako —eta, ziurrenera, Begararen eragiñez Antzuolara be zabaldu dan— euskeriaren kiputxasuna aitzen laguntzen deusku. Inguruko berbeten aldia (Soraluze, Elgeta, Oñati, Arrasate) oso kiputx agertzen jakuz Bergara eta Antzuola. Honen errezoia jakitteko, kontuan izan bihar dogu Begaran aristokrazixa multzo bat izan dala, eta hori aristokrazixiori hein baten euskalzalia izan dala (gogoratu deiguzan 18. men-

⁵³ Frantseseko orijinalian hauxe iñuan: *Quand je dis biscayen et non pas guipuscoan de Vergara, je sais fort bien que cette manière de parler déplaît à Messieurs les Vergarais qui se piquent d'être de purs guipuscoans. Je ne dis pas non, de même que je ne nie pas que les sermons de leurs curés les plus instruits et que souvent même le langage ordinaire des personnes les mieux élevées soient non seulement en guipuscoan, mais même dans la variété la plus pure de Beterri. Tout cela toutefois ne change en rien à ma manière de voir. Que les Vergarais aiment ou non les Biscayens et leur dialecte, il n'en est pas moins vrai (...) que cette variété vergaraise telle qu'elle est en usage parmi le bas peuple et les paysans, appartient linguistiquement parlant au biscayen oriental.*

Koldo Zuazo

dian Erret Mintegixaren bultzatzaile eta babesle izan ziranak, edota danetan azkena izan dan Telesforo Monzon). Aristokrazia horrek, nunbait, bere mailla jasuari egoki etorren berbeta jasua bihar eban: Beterriko gipuzkeria. Hortik Bergarako herri xehiak erabiltzen eban berbetiaren eukan gutxiespena eta gaitzespena. Denporiarekin, jakiña, Bergarako herri xehiak be haundi jentiaren berbetia hartuko eban eredu.

Euskera kiputxak Deba ibar osuan aurrera egitteko beste errezoietako bat beraren antolake-ta administratibua be bada duda barik. Gipuzkuako Probintzixakua da administraziñoz Deba ibarra, eta *probintziano* izatiak *kiputx* izateko tartia be txikittu egin dau.

Hala eta guztiz be, *probintzixako* izate hori ez da betikua: 15. mende amaieran batu jakon Leintz ibarra Gipuzkuari, eta 19. mende erdixan, 1845ian, batu jakon Oñati. Alderdi hauxe da, hain zuzen, euskera kiputxaren eragin txikixena daukana.

Dana dala, berbeten jua-etorrixan era askotako gorabeherak izan ohi dira, eta ez dau bata beti gora egitten, eta bestiak beti behera. Ez da inñundik inñora be egixa mendebaleko euskera beti gainbehera doiala, eta gaillurrera begira beti euskera kiputxa. Mendebaleko bereizgarri batzuk indartzen dagozala ikusten dogu gaurregun: hurbiltze adlatiboko *-rantz* & *-rutz* morfemak, ‘*edo* + izenordain galdetzaillia’ sailleko izenordaiñak, *zeintzuk*, *zertzuk*, *nortzuk* izenordaiñak, eta motibatibo eta helburu perpausetako *-t(z)earren* morfemia dira horren adibide.

Bereziki nabarmenduko neuke *-t(z)eke* aditz atzizkixaren gorakadia. Deba ibarreko lau herrittan eta auzoko beste baten baiño erabiltzen ez dan hau atzizkixau ixa edozein euskaldunen ahotan —edo, behintzat, idatzittan— entzuten eta ikusten dogu gaurregun.

Deba ibarrera bertara etorrixaz be, mendebaleko ezaugarri zenbait zabalduaz doiazala ikusten da. Mutrikuko adiñekuak *sitzakon* esaten badabe sarri, *sakon* da gazterixiaren jardunian nagusi, eta Mutrikuko antziñakuak *daures* ‘daude’ esaten baeben, *dos* diñue orainguak.

Ez neuke esango hónek Mutrikuko gertakari bixok mendebaleko euskariaren prestijixuaren ondorixoz gauzatu diranik, hizkuntziaren berezko billakaerak be bultzatu leikialako horretara. Baiña kontua da estua dala Mutrikuk Ondarruarekin daukan hartu-emon, eta lehentxuago esan badot Mutriku dala aztergai neban herririk kiputxena, baieztapen horrek be badauka bere muga jakiña. Eta, gaiñera, Mutrikuko berbetia sakon aztertzen danian, hirigunetik baserri auzuetara aldia daguala ikusiko da, eta hirigunian galduta dagozan mendebaleko hainbat ezaugarri bizirik dagozala inguruko auzuetan.

Deba ibarreko euskeria

6. Arabako euskeria Deba ibarretik begira

1958xan argitaratu eban Mitxelenak Landuchio italiarraren hiztegixa. Lau mende lehenago, 1562 aldera, egindakua zan hori hiztegixori. Ez eban ipintzen ez nun jasotakua zan, ez nortzuk izan ziran Landuchiori hiztegixa osatzen lagundu eutsen hiru lagun euskaldunak. Baiña hiztegiko berbetia aztertu ostian, Gasteizen jasotakua izan zeikiala ikusi eban Mitxelenak.

Hiztegiko berbetiak baeukan Bizkaikuarekiñ antza, baiña baitta alde nabarmenak be, eta hori dala-eta erabagi eban Mitxelenak Arabako euskeria bestiengandik bereiztia, eta *hegoaldeko euskalkixa* deitzia.

Juan dan berrogei urtiotan, ostera, hainbat gauza aldatu dira. Alde batetik, Arabako izkribu gehixago aurkittu dira. Hórrek izkribuotako batzuk, gaiñera, Gasteiz baiño ekialderagokuak dira, eta Arabako euskeriaren ikuspegi zabalagua izatia ekarri dau horrek. Araba osoko toponimixia be jaso da, eta toponimixiari esker, bertan egitten ziran berbeten barri gehixago dakigu.

Mitxelenak erabilli zittuan alderagaixetako batzuk —oraiñ, berrogei urte geruago ikusitta— ez dirala egokixenak be esango neuke. Landuchioren hiztegiko euskeria batez be Rafael Mikoletarenarekiñ eta *Refranes y Sentencias* izeneko liburu batekuarekiñ alderatu eban, eta kontua da bilbotarra zala Mikoleta, eta Bilbo inguruetakua *Refranes y Sentencias*, eta, hartara, Gasteizko berbetia Bilbokuarekiñ alderatzia mutur bittako berbetak alderatzia da. Zuzenagua litzateke, nire ustez, Gasteizko berbetia Deba ibarrekuakiñ, esate baterako, alderatzia.

Dana dala, Arabako euskeriaren gaiñian orain dakiguna jakindda, Araba barruan be gorabeherak bazirala ikusten da. Hiru eremu nagusi ikusi uste dittut nik: sartaldekua, erdialdekua —hemen legoke Gasteiz—, eta sartaldekua.

Arabako berbetak aztertu ostian, ez da gauza berezirik, gaiñerako euskalkixetan ezaguna ez danik, agiri. Hizkuntza argibidiak ez eze, *oharmenezko dialektologixia* deittu ohi danak be horixe bera erakusten dau. Hiztunak euren berbetiaren gaiñian zer eritxi dauken hartzen dau kontuan oharmenezko dialektologixiak, eta Arabari dagokixonez, zera ikusten da: ez arabarrak eurak, ez Arabara jua izan diran kanpotarrak ez dabela sekula Arabako euskeria berezixa zanik aittatu. Eta berezixa balitz esango eben zertan zan berezi. Aittatuko eben bertako berbaren bat, edo esapideren bat, edo adizkiren bat, edo ebakeraren bat, edo osagai morfologikoren bat... edo zer edo zer, behintzat.

Hizkuntza argibidieri helduaz, Arabako sartaldeko berbetia erabat Bizkaikuaren antzekua dala ikusten da. Juan Perez de Betolatzak itzulittako kristau ikasbidia (1596) da horren adibiderik onena. Mitxelenak berak (1955) bilbotartzat jo eban hau itzultzailliau, baiña oraindik oraiñ, Betolatzta bertakua, Gasteiztik dozena bat kilometrora dagan herri txiki horretakua zala jakin dogu (Knörr 1986).

Arabako sartaldeko berbetia, ostera, nabarmen aldentzen da Bizkaikotik. Badauka harekiñ

Koldo Zuazo

antza, baiña baitta Gipuzkuan eta Naparruan egitten danarekin be. Gaurregun Burundan egitten dan euskeria ekartzen dau gogora, eta Burundakua *tarteko hizkeria* da bete-betian: mendebalekuaren, erdialdekuaren eta euskera naparraren tartekua. Burundakuarekiñ, eta baitta Lana eta Ameskoetakuarekin be, batuko neuke nik Arabako sortaldeku.

Arabako erdialdeko berbetia zelakua zan jakittek, berriz, Deba ibarrak lagundu deikegu. Ibar honetako berbeten artian Debagoienekua daguala mendebaletik gertuen esan eta erakutsi dot behiñ eta barriro. Eta hauxe galderiau egin deikegu horren errezoia argitze aldera: Debagoienak Bizkaixarekiñ hartu-emon estuak dittualako ete da, ba, hori gertutasunori? Debagoienak, esate baterako, Elgetak edo Eibarrek baiño hartu-emon estuaguak ete dittu, ba, Bizkaixarekiñ? Ezta hurrik emon be!

Debagoienak mendebaleko euskeriarekin daukan gertutasuna Arabarekiñ izan dittuan hartu-emonen ondorixua da. Gasteiz izan da, eta Gasteiz da, leintzarrak, aramaixoarrak eta oñatiarrak gertuen izan daben herri haundixa. Gasteiz da Bilbo eta, zer esanik ez, Tolosa edo Donostia baiño hurrago eta erosuago izan daben herri haundixa. Eta Gasteizen mendebaleku ez dan euskalkiren bat erabilli bazan, Debagoienian be izango zan horren oihartzuna. Eta, esan dogunez, oso bestela dira gauzak, duda barik Gasteizen bertan be mendebaleko euskeria egitten zan seiñale.


Hori dala-eta, Arabako sartaldia eta erdialdia mendebaleko euskalkixan sartziaren aldeku naiz, baiña ez dot horrekiñ esan gura Arabako berbetak eta Bizkaikuak ziharo bardiñak ziranik. Hegoaldeko ertzian dago Araba, eta berbetan be zerikusixa izan bihar horrek kokaguniorrek: arkaismuak gordetzeko batzuetan, eta barrikuntzak sortzeko bestietan. Eta, jakiña, Arabarekiñ hartu-emonak izan dittuen alderdixetan be hórrek barrikuntzok agertu egin bihar. Holantxe azalduko neukez, nik neuk, Goierri eta Debagoienian gaurregun diran zenbait ezaugarri, ez dalako ahaztu bihar Goierri be Arabarekin mendietan zihar izan daben loturia. Hona, jarraixan, Debagoieneko euskeriaren eta Arabakua artian diran kidetasun nagusixak:

(1) Debagoieneko berbeta batzuetan $-tza + a \rightarrow -tzaia \& -tzaie$ daguala esan da (§ 9.3), eta Araban be —Arabako erdialdian, batez be— *Aranzaia, Ardanzaia, Astobizaia, Bustinzaia, Elorzaia, Isuskizaia, Okaranzaia...* toponimuak dagoz.

(2) Debagoienian eta Debaerdiko berbeta batzuetan $p \& b \rightarrow f$ egitteko joeria daguala esan da (§ 5.1), eta Landuchioren hiztegiyan be *afia* ‘habia’, *errefaua* ‘gazt. rábano’, *ifini* agertzen dira. Arabako toponimixan, berriz, *nafar*, *Zestafe* (& *Zestabe*), eta Araba bertakua —eta beronen aldamenetakua— dan *zufi* ‘zubi’ aldaerak agiri dira.

(3) Debagoieneko berbeta batzuetan toponimuetan $-dui \& -doi$ aldaerak dagozala esan da (§ 9.5), eta hórretxek aldaerok (& $-di$ orokorra) dagoz Araban be: *Sagastuia*.

Deba ibarreko euskeria



MENDEBALEKO EUSKARA ZAHARRAREN GUTXI GORABEHERRAKO MUGAK

Egitza: Koldo Zuazo (1999)

Marraskina: Antóni Eiorbui

Koldo Zuazo

(4) Debagoienian partizipixuak silaba bittik gora, eta *-atu*, *-itu*, *-tu* amaieria daukenian, aditzizena *-ketan* dala esan da (§ 9.6b), eta bardin gertatzen da Landuchioren hiztegixan: *aginketan* ‘agintzen’.

(5) Debagoienian, Bergaran eta Antzuolan objektu pluralarekingo komunztadurarik ez daguala esan da (§ 9.8), eta bardin gertatzen da Landuchioren hiztegixan: *belarri andiak daukana*. Goierriko berbeta gehixenetan, Urretxun eta Zumarragan be ez da komunztadurarik N-N-N eta Nor-Nori sailletako adizkixetan.

(6) Debagoienian Nor-Nork adizkixetan ez dala *-it-* pluralgillerik esan da (§ 9.9), eta gauza berbera daukagu Zigoitian eta gaurregun Billerleko udalerrri barruan dagozan herri batzuetan (Nafarrete, Urbina, Urrunaga): *gaus* ‘gaitu’ (Gaminde 1984-1, Irizar 1992-1).

(7) Debagoienian *edun*-en iraganaldiko adizki batzuetan bokalarteko *-u-* → *-b-* gertatu dala esan da (§ 9.10), eta antzeko billakaeria daukagu (*-u-* (→ *-b-*) → *-m-*) Zigoitian eta gaurregun Billerleko udalerrri barruan diran herri batzuetan (Billerle bera, Nafarrete, Urbina, Urrunaga): *nemen* ‘nuen’, *gemen* ‘genuen’, *semen* ‘zenuen’, *semien* ‘zenuten’ (Gaminde 1984-1, Irizar 1992-2).

(8) Debagoieneko aldaera batzuek be Arabarekiñ egitten dabe loturia: *etzin* ‘etzan’ (ixa Deba ibar osuan, Ondarruan, eta baita Naparruan be badago), *gutxi* (EH osokua da, baiña *gitxi* esaten da Bizkaixan, Eibarren, Elgoibarren, Mendaron —& *gutxi*— eta Mutrikun), *madura* ‘padura & fadura’ (Elgeta, Bergara, Antzuola, Oñati, Elorriko, Segura). Landuchioren hiztegixan agertzen diran hiru aldaera berezi be ezagunak dira Oñatin: *kiltza* ‘giltza’, *pultzza* ‘bultza’, *txipi* ‘txiki’.

(9) Landuchioren hiztegixan jaso ziran hiru berba berezi be erabiltzen dira Debagoienian: *amarratza* ‘armiarma’ (Bergaran, Antzuolan, eta dirudienez, Bizkaiko berbeta batzuetan be bada), *eguzari* ‘jai’ (Bergara, Oñati), *garranga* ‘izotz kandela’ (baita Bergaran, Antzuolan, Zegaman, Burundan eta Ameskoetan be).

7. Bizkaieria VS gaiñerako euskalkiak

Aitzindarixak aitzindari, mende honetan zabaldu da mendebaleko euskaria gaiñerakuen aldi oso desbardiña dan ustia. Mendebaleko eremutik erdialdekora dagan etena batera-baterakua eta garbixa dala esan izan da, eta mendebaleko euskaria eta gaiñerakuak adar desbardin bittik sortutakuak dirala esan dabenik be izan da. Hizkuntzalari ezagunak be badira hórrek ustiok zabaldu dittuenen artian: Georges Lacombe, Henri Gavel, Uhlenbeck holandarra... Danen ordezkari, Deba ibarreko bizilagun batek esandakua dakart hona. Hauxe iñuan Koldo Eleizalde bergararrak (1911: 268):

quizá sería más propio hablar de lenguas euskéricas que de dialectos. Pero entonces las len-

Deba ibarreko euskeria

guas no serían ya tres, sino dos, puesto que el dialecto pirenaico podría agruparse con el vascón, y resultarían dos lenguas vascas: la bizkaina y la no-bizkaina; á esta última podría denominársela vascona. Yo creo que entre ambas hay tanta diferencia como entre el español y el portugués, por ejemplo.

Konturatu gaittezan *hizkuntza* deitzen eutsala Bizkaikuari, eta hizkuntza bi bereizten zittuola: bizkaieria eta baskoia. Harritzekua da nork eta bergarar batek hori esatia, ez dalako haiñ haundixa Bergarako berbetatik *baskoi* horretara dagan aldia. Saio honetan ikusittakuak erakusten dabenez, Debabarreneko berbetak egitten dabe mendebaleko euskalkixaren eta erdialdekuaren arteko loturia, eta baita, beste negurri baten, Antzuola eta Bergara aldekuak be. Hegoaldian, berriz, Arabako sortaldiak eta Naparruako Burundak, Lanak eta Ameskoa ibarrak egitten ebela loturia esan da. Mendebaletik erdialderako eta euskera naparrerako urratsa ez da, hartara, batera-baterakua eta erabatekua izan.

Etenik inun izatekotan Oñati eta Legazpi-Segura-Zegama artekua izan da. Errezoi orografikuak aittatu dira horretarako, eta errezoi orografikuak errezoi dira, baiña ez bakarrik eta nagusixak. Errezoi ekonomikuak gehitu bihar jakuez orografikueri. Kontua ez da Oñatitik Segurara juateko Aizkorri ziharkatu biharra. Kontua da Aizkorri ziharkatu eta gero, oñatiarrak ez ebela eurena baiño askozaz herri haundixagorik aurkitzen mendixaren beste aldian. Eta, aldiz, oñatiarrak ez dabe hegoaldeko mendixak —garaixak hók be— ziharkatzeko nagirik eta ardurarik izan, hegoaldeko mendixen beste aldian Gasteiz egualako. Goierritarrak, era berian, eten barik ibilli dira Arabara juateko Aizkorrin barrena, baiña nekez egin dabe Oñatira juateko urratsik.

Laburbilduz, etenik inun izatekotan, Gipuzkuako hegoaldian, Oñati eta Goierri artian dago, euskalki batetik besterako bidia maillaz mailla egitten da-eta gaiñerako alderdixetan. Baiña, dana dala, Oñatiko berbetiaren eta Legazpikuaren artian dagan aldia be ez da *hizkuntza bi* dirala esateko bestekua.

Euskal Herrixan hizkuntza bi —bizkaieria eta baskoia— dirala diñuanak hizkuntziarekin zerikusirik ez dauken errezoiak gaittik diño hori, Euskal Herrixaren batasunian siñisten ez dabelako, edo hori batasunori eragotzi eta zapuztu egin nahi dabelako. Dana dala, hau ez da hori korapilluori askatzeko une eta gunegokixa, eta hurrenguan jorratzeko itxiko dogu gaixa.

Koldo Zuazo

Hirugarren Atala: Euskalkixak etorkizunian

EUSKALKIXAK ETORKIZUNIAN

Deba ibarreko berbetetan betetzen diran hainbat arau erakutsi dira liburu honetan. Baiña hizkuntzen arauak ez dira liburuetan gordeta edukitzekoak. Eguneroko jardunian erabiltzekoak dira. Eta eguneroko jardunian erabili biharreko horretan, badittugu arauak geure artian.

Aldakuntza larrixak —benetako iraultzak, esango neuke— gertatu dira Euskal Herrixan oso denpora motzian.

Euskal Herri txiki honek euskera hutsezko irakaskuntza sare berezixa sortu eban 60ko hamarkadan: ikastolak. Berehala inddartu ziran, eta irakaskuntza ofiziala bera be euskalduntze bidian sartzia lortu da azkenian.

Euskal Herri txiki honek euskera hutsezko hedabidiak sortu ditu: irratixak, telebisiñuak, egunkarixa, eta azken hamarkadan sekulako inddarra lortu daben herriz herriko aldizkarixak.

Euskal Herri txiki honek euskera administraziñuan sartzeko urratsak be egin ditu. Asko da oraindik ibiltzeko daguana, baiña euskeriarendako itxitta egon dan esparru horretan sartze hutsa ez da izan lan makala.

Euskal Herri txiki honek hainbat dialektotan zatituta egoan euskera batu eta eredu estandar bat sortu eban 1968xan. Ha eredu egokittuaz eta hobetuaz jua da ondorengo hamarkadetan.

Gauza haundixak egin ditu, ba, milloierdi euskal hiztun baiño askoz gehixago ez zittuan herri txiki honek. Eta gauza hórretariko asko, gaiñera, Francoren diktadura militarren sasoiari egin zittuan. Agintarixen aldetiko laguntza eta baliabide gitxirekiñ, eta gainditu biharreko oztopo eta debeku askorekiñ. Herritarren borondate mugagabia izan da helmugara eruan gaittuana.

Egin dan horri ahalegiñ itzalorri esker, asko aurreratu da jua dan berrogei urtiotan. Nork esango eban 1960 inguru haretan honelako osasuna izango eba euskeriak?

1960 inguru haretan, Deba ibarrian be industrixiak gora egiñ ebanian, makiña bat gurasok erderaz hazi zittuen euren seme-alabak. Aurrerapenaren gurpillian sartuko bazan, erderaz egin biharko zala uste zan. Euskera eta atzerapena mendialdeko baserrixetan laga biharko zirala esaten zan. Harrezkero, erderaz izan ziran neskato-mutikuen jolasak eta neska-mutillen jardunak Deba ibarreko herri hazixetan: Arrasaten, Bergaran, Eibarren, Elgoibarren...

Eta egin dan horri ahalegiñ itzalorri esker, euskeriaren gainbehera geldittu egin da, eta geldittu ez eze, inddartzen be hasi da atzera barriro. Baiña dana ez da izan irabazixa. Zenbait gauzatan oker jokatu da, eta galdu be egin da. Sarrittan, askorik pentsau barik, bat be planifikau barik egin dira

Deba ibarreko euskeria

gauzak. Borondate onez, baiña ondorixueri larregi begiratu barik. Eta, hain zuzen, planifikau ez dan gauzetako bat, atzera egin dan esparruetako bat, euskalkixarena izan da.

1. Euskalkixak, euskeria zabaltzeko tresna

Gaurregungo gaztiak gai dira historixa, matematika edo fisikako azterketak euskeraz —eta euskera zuzenian, gaiñera— egitteko, baiña erderara joten dabe hasarratzen diranian, erderara joten dabe lagunarte giruan, eta neska-mutillak alkar ezagutzen dabenian, erderaz hasten dittue euren hartu-emonak. Nahiz eta euskeraz jakin, dakixen euskera horretan ez dagoz eroso. Euren ustez, zer edo zer falta jako horri euskeriorri: inddarra, piparra, une eta gune jakin batzuetan komeni dan ñabardura berezixa. Eta, euren ustez, erderiak badauka euskeriari falta jakon hori guztiori.

Orain berrogei urteko euskalzaliak, eskolia eta telebisiñua euskeraz edukiz gero, gure hizkuntza zaharra salbauta egongo zala uste eben. Baiña euskera hutsezko eskolia eta telebisiñua ez dirala nahikua ikusi da. Ezinbestekuak dira, baiña ez nahikua. Euskeria salbauko bada, beste esparru batzuk be landu eta bete egin biharko dira: familixia, lagunartia, aisialdixa, lana... Eta hórrek esparruotan ezingo da fisikako azterketan erabiltzen dan euskeria erabilli. Ezingo da ETB-ko albistegixetako euskeria erabilli. Ezingo da Eusko Jaurlaritzako Aldizkariko euskeria erabilli. Hórrek esparruotan euskalkixa erabilli biharko da. Eta zer gertatzen da euskalkixa gaitzesten badogu, eta gaitzesten dogulako lantzen eta trebatzen ez badogu? Ba, gaurregun ikusten doguna: hórrek esparruok erderiak bereganatzen dittuala.

Badira beste bide bat hartzen dabenak. Badira hórrek esparruotan be euskera batua erabiltzen dabenak. Baiña hori bidiori ez da begi onez ikusten Deba ibarra lako eskualde euskaldunetan. Lagunartian euskera batua erabiltzia oso pedantia eta oso dekadentia begittantzen jaku. Beste era batera esanda, sasiletraua eta petrala. Ziurrenera, euskera batua erabiltzia beste aukerarik ez da izango Naparruako, Arabako, Bizkaiko ezkeraldeko eta Baiona inguruko alderdi erdeldunetan, baiña iñundik iñora be ez euskeria bizirik dagoan lekuetan.

Eskualde euskaldunetan, ba, euskalkixa bultzatzia izango da euskeria gazterixiaren artian inddartzeko tresnetako bat.

2. Euskalkixak, euskeriaren osasuna sendotzeko tresna

Orain berrogei urteko euskalzaliak, eskolia eta telebisiñua euskeraz edukiz gero, gure hizkuntza zahar honen osasuna berehala hobetuko zala uste eben. Eta hobetu egin da, horretan ez da dudarik. Gaurregungo neska-mutil zenbaiten euskeria gutariko askok geure gazte denporan erabiltzen genduanaren aldi hobia da. Baiña alor honetan be dana ez da izan irabazixa. Euskeriaren osasu-

Koldo Zuazo

na, hizkuntziaren kalidadia makaldu be egin da. Eta zer dala-eta gertatu da hori?

Errezoiak bat baiño gehixago dira, baiña bada bat oso garbixa: gaurregungo guraso asko ez dirala euren seme-alaben irakasle. Eta goguan izan bihar dogu gorago esandakua: hizkuntza bat ez dala eskolan bakarrik ikasten. Familixan eta lagunartian be ikasi bihar izaten dira hizkuntzak. Holantxe izan ohi da herri normaletan, eta holantxe izan da gurian be oraintsu arte.

Ondo goguan daukat *Mari Karmeni ikusi detsat kalian* esaten neban bakoitxian gurasuak egitten eusten oharra:

-Zer ikusi detsak, ba? Belarrixa, ala? “Mari Karmen” ikusi “dot” esan bihar da, eta zeozer, belarrixa edo bekokixa, ikusten detsanian, orduan esaten dok “Mari Karmeni” ikusi “detsat”.

Oraingo hiztegirik eta enziklopedixarik ez zan sasoi haretan, gurasuak zuzendatuta ikasten genittuan berbak be: *kaballuak dagoz hor landan* esaten genduan guk.

Eta gurasuak: *Hórrek ez dittuk “kaballuak”; bihorrak dittuk hórrek, bihorrak!*

Eta etxian, gurasuak maixu genittuala, ikasi genduan apurka-apurka zuzen berba egitten. Baiña gaurko guraso gehixenak ez dabe ezer zuzentzen. Zer gertatu ete da, ba? Hizkuntziarenganako arduria galdu egin dala, ala?

Arduria barik, geure buruarengan konfianza galdu dogu. Eta guraso batek ezer zuzenduko badau, bere buruarengan konfianza osua izan bihar dau, ziur egon bihar dau. Eta zelan izango dau bere buruarengan ziurtasuna eta konfianza, darabillan berbetia txarra dala siñistu eragitten badeutse? Eskolako euskeria bada ona, telebisiñuan entzuten dana bada ona, euskaltegixetan erakusten dana bada ona, eta hori euskeriori berak darabillenaren modukua ez bada, zer egingo dau gurasuak? Gaurregun askok eta askok egitten dabena: batetik ixildu eta, bestetik, berak be bere seme-alaben moduan, telebisiñoko esatarixen moduan, euskaldun barrixen moduan berba egitten ahaleginddu.

Osasun oneko euskeria, kalidadeko euskeria nahi badogu, geure buruarengan konfianza berreskuratu biharko dogu, eta, horretarako, leku duiña izan biharko dau euskalkixak. Eta leku duiña izango badau, gaurregun debekatuta daukazan hainbat esparru iregi egin biharko jakoz.

Laburbilduz, euskalkixen alde egin bihar badogu, ez da erromantizismoz. Ez da gure aittitta edo gure amama zaharrak darabillan berba bat edo beste galdu ez daitten eta betiko gorde daitten. Ezta hurrik emon be! Euskalkixen alde egin bihar badogu, euskeriaren alde egin nahi dogulako da. Euskeria geure bizimoduko esparru guztietara zabaldu nahi dogulako, eta euskeria ona, jatorra, bizixa eta aberatsa nahi dogulako.

Deba ibarreko euskeria

3. Euskalkixen esparruak

Ez naiz egitasmo zihatz bat, planifikaziño oso bat egitteko gauza. Azken baten, gaiñera, egitasmo zihatz eta oso bat egitteko arlo guztietako adittuen lankidetzia biharko da. Dana dala, ardatz nagusi batzuk aittatuko dittut hemen.

Hasteko, egitasmo hau ez da Euskal Herri osorako. Gipuzkuan —edo, zihatzago esateko, kiputx herrixan— eta Gipuzkua ondoko herri napar eta lapurtar batzuetan ez da izango honen premiñarik. Eremu horretako euskeria ez da estandarretik askorik aldentzen, eta ez da aparteko arazorik be sortzen. Era berian, eremu erdeldunetarako be ez dau honek egitasmuonek balixo.

Bigarrenik, euskalkixak erabiltzeko esparru nagusixak lau dirala uste dot:

- Aisialdixa.
- Irakaskuntzia.
- Herri hedabidiak.
- Administraziñua.

3.1. Aisialdixa

Hauxe da euskalkixaren gune nagusixa eta hauxe da, aldi berian, euskalkixa lantzeko leku egokixa. Neska-mutillak eskolorduetatik kanpo egitten dittuen kirol saiuak, ikastaruak (pinttura, musika, dantza, argazkigintza, bideogintza, e.a.), ibillaldixak, kanpaldixak... sartzen dira saill honetan. Kontuan izan bihar dogu hónek ekintza guztiotan ahozko hizkuntzia erabilli ohi dala, nekez hizkuntza idatzixa. Nire ustez behiñik behiñ, hau esparruau ziharo eta erabat dagokixo euskalkixari.

3.2. Irakaskuntzia

Azkenaldi honetan gauzak zer edo zertxo aldatu badira be, eskolan hasi bezain laster sartu izan da euskera batua. Horrek ekarri dittuan kaltiak begibistakuak dira: etxeko berbetiaren eta eskolakuaren artian etena sortu da alde batetik, eta, bestetik, umiak eskolatik etxera juanda, gurasuen eta aittitta-amamen euskeria zuzentzen hasi dira. Hori dala-eta, zer erakutsi asko euken guraso eta aittitta-amamak, ikasle umill eta apal billakatu dira, eta dana ikasi biharra eben umiak, berriz, aginte haundiko irakasle egin dira. Burdixa idixen aurrian ipintziaz gaiñera, “idixak” lotsaz eta konplejoz bete dira.

Koldo Zuazo

Herriko berbetatik baturako bidia urratsez urrats egin biharko litzatekeela uste dot. Hasierako mailletan, Eskolaurrian, ahozko hizkuntzia baiño erabiltzen ez danian, herriko berbetia erabili biharko genduke ziharo eta erabat. Ondorengo mailletan, berriz, idazmena eta irakurmena euskera batuan, eta mintzamina herriko berbetan eta herriko euskera batuan (gero azalduko dot zer dan *herriko euskera batu* hori).

Honek, jakiña, oraingo politikia aldatzia eta zuzentzia dakar. Gaurregun, Andoaingo edo Sestaoko irakasle batek jardun leike Elgetan sei urteko umiekin biharrian. Andoaingo edo Sestaoko irakaslia, Elgetako euskeriaren gaiñian lorratzik jakin barik, izan leike bertako umien hizkuntza hezitzaillia. Eta kontua, jakiña, ez da andoaindarrereri eta sestaoarrereri Elgetan sartzia debekatzia. Herrittarrereri begirunia izatia, eta herrittarren beharrianerri albaitt onduen erantzutia da helburua.

Euskaltegixetako jokabidia be aldatu egin biharko litzateke. Euskaltegira juanda bere dirua eta bere denporia galtzen dittuanak emaitzak nahi izaten dittu. Euskaltegixan ikasittakua lehenbailehen kalia erabili nahi izaten dau. Eta zelan lortuko dau hori euskaltegiko euskeria eta kalekua oso desbardiñak badira?

Garbi dago euskera batua erakutsi bihar dala euskaltegixetan, baiña irakurmenaren eta idazmenaren bidez lortu leike hori. Berba egitterakuan, aldiz, herriko euskeratik ahalik eta gertuen dagoan berbetia erabili biharko litzateke.

Helburu bi lortuko dittugu holan jokatuta: euskeria ikasten diharduana lehenago eta errazago sartzia herriko bizimoduan, eta herrittarren ez sortzia euskeraz txarto egitten daben konplejua.

Eta euskaltegixetan hóneri helburu bixori begira ibiltzen hasten bagara, herri normaletan egitten dana egingo dogu geurian be.

Herri normaletan, eskolan edo akademixan bigarren hizkuntza bat ikasten daben ikaslia, behin mailla jakin bat lortzen dabenian, hori hizkuntziori egitten dan herrira juan ohi da. Makiñatxo bat dira Euskal Herrixan inglesa ikasi eta gero Irlandara, edo Inglaterrara, edo inglezegit gitten dan beste nonbaittera juaten diranak. Eta ez uste izan, gero, hórrrek euskaldunok inglesa *irakastera* juaten diranik. Bai zera! Prosodixia hobetzera, fonetikia lantzera, hiztegixa osatzera eta, azken baten, hizkuntza bizixa ikastera juan ohi dira. Eta euren irakasle, berriz, familixa bateko senidiak, hoteletako eta jatetxietako bihargiñak eta, azken baten, herrittar arruntak izan ohi dira.

Euskaltegixetan euskeraz ikasittako askok be horixe egitten dau: oporretan-eta herri euskaldun batera juan. Baiña badira beste asko behiñ agiriren bat edo perfillen bat lortu ondoren, dana dakixela uste dabenak, eta edozein lekutan biharrian jardun leikiela siñistuta dagozanak.

Eta okerrera da horretan uste usteloretan geuk siñistu eragitten deutsegula: oso meritu haundizat daukagulako erdeldunak euskeraz ikastia, eta oso euskera ontzat daukagulako eus-

Deba ibarreko euskeria

kaltegitetan erakusten dana. Eta badauka meritua, bai, euskeraz ikastiak, eta bada ona euskaltegixetako euskeria, baiña mundu zabaleko edozein akademixatan legez, oso oiñarrizko hizkuntza bat erakusten da eta ikasten da akademixetako lau hormen barruan.

Herri normaletako akademixetan, bestalde, irakasliak *natibuak* izan ohi dira. Eta akademi-xara doian ikasliak be horixe nahi izaten dau: nungo hizkuntzia erakusten daben, hangoxia izatia irakaslia. Fonetikia, prosodixia eta, azken baten, hizkuntza bizixa hobeto menderatu ohi dau hori hizkuntziori erabiltzen dan herrixan jaixo eta hazi danak.

Holantxe ikusten dira gauzak herri normaletan, baiña ez Euskal Herrixan. Hemen nahikua da glotodidaktikako ikastaro bat egittia euskaltegiko irakasle izateko. Bost ardura deutsa hemen zer fonetika daukan, zer prosodia daukan, berba egitterakuan zer erraztasun eta zer aberastasin daukan. Bost ardura deutsa hemen hizkuntziaren gainian zer jakitturixa daukan. Eta hori be bada zainddu biharreku. Ze hizkuntza bat ez da bakarrik berba eta arau sorta bat. Hizkuntza bat herri baten izaeria be bada. Baiña hemen, gure artian, glotodidaktikako ikastarotxo batekin konpontzen dogu dana.

Eta oraingo honetan be kontua ez da euskaltegixen ahalegiña aintzakotzat ez hartzia, eta euskaltegixak barregarri lagatzia. Inundik inora be ez hori! Herrittarreri begirunia izatia, eta herrittarren beharrizaneri albaitt onduen erantzutia da oraingo honetan be helburua.

3.3. Herri hedabidiak

Izugarri hazi dira herri hedabidiak jua dan hamarkadan. Hutsik egoan gunia betetzia izan da horren giltza. Inork ez eban lantzen herriko informaziñua, eta euskeriak bete dau hutsunia. Aldizkarixak, irratiak, telebisiñuak sortu dira hainbat herrittan, eta herriko kontuak jakin nahi zittuanak hórretxek hedabidiotara jo bihar izan dau. Saldu edo erosi egin bihar ebanak be hórretxek hedabidiotara jo bihar izan dau. Eta hórrek hedabidiotara jo dabenak euskeria erabilli bihar izan



dau. Euskeriak, aspaldiko partez, dirua egitteko balixo izan dau. Eta askozaz diru gehixago egingo leuke, gauzak bihar dan moduan antolatuko balira, baiña, tira, ez da gitxi dagoeneko lortu dana.



DEBA IBARREKO ALDIZKARIAK:

- ARETXABALETAKO Aretxagazeta**
- ARRASATEKO Arrasate Press**
- ELGOIBARKO Barren**
- BERGARAKO Berrigara**
- ERMUKO Drogeteniturrri**
- EIBARKO ...eta kitto!**
- ELGETAKO Goibekokale**
- OÑATIKO Kontzejupetik**
- SORALUZETAKO Pil pilean**
- ESKORIATZA eta GATZAGAKO nun barri?**

Deba ibarreko euskeria

Hizkuntziaren aldetik be bada zer hobetu eta zer aldatu. Hasteko, hedabidiak eurak sendotzia da lehenengo zeregiña. Edo halan biharko leuke behintzat, ezin dalako beti Administraziñotik datozen diru laguntzeri begira bizi. Ahal dan neurrixan, nork bere burua ordaintzia lortu bihar da. Publizidadia eta beste hainbat arlo landu bihar dira horretarako.

Baiña hizkuntzia da guri oraiñ ardura deuskuna. Irakurliarengana, edo entzuliarengana, edo ikusliarengana iritsi nahi badogu, erraza eta argixa egitten jakon berbetia erabilli biharko dogu. Oñatiko bizilagunari, esate baterako, zer edo zer esan edo saldu nahi badeutsagu, kalterakua da Zuberuako berbak eta egitturak erabiltzia, kalterakua 17. mendeko berbak eta egitturak erabiltzia. Danik eta ederrenak, eta danik eta jatorrenak izanda be, kalterako dira. Oñatiko bizilagunari berak ezagutzen daben berbetan egin bihar jako, gustoko daben berbetan, bere burua eroso ikusten daben berbetan. Ez dirudi euskal kazetari gehixenak konturatu diranik honetaz. Ez dirudi euskal kazetari gehixenak konturatu diranik hizkuntzia dala euren lan tresna oiñarrizkua eta nagusixa, baiña garbi dago erabiltzen dan hizkuntziak be badaukala zerikusixa salmentetan.

Ikuspegi komertzialetik ez eze, Euskararen Herrixa eraikitziari begira be, asko da herri hedabidiak egin leikiena. Oso konponbide onak izan leikez daukaguzan gatxak sendatzeko:

a. Hiztunak euren lotsak eta konplejuak baztertzeko, eta euren buruarengan konfianza eta ziurtasuna hartzeko, egoki etorriko litzateke herriko berbetia herriko hedabidietan ikustia. Berbeta jasua eta landua bai, baiña herrikua.

b. Gazterixiak bizitzako egoera guztietan euskeria erabiltzeko, egoki etorriko litzateke hedabidietan gaztieri zuzendutako saiua euskeraz egittia. Euskera garbixan bai, baiña gertukuan, herrikuan. Ze berarendako gertukua ez dana eskaintzen badeutsagu, arrotza eta hutsa begittanduko jako, eta erderia, berriz, etxekua eta inddarrez betia.

Herri hedabidietan, ba, herriko berbetia erabilli biharko genduke ahozko hizkuntzia darabilletan (irratixa eta telebisiñua), eta herriko berbetia eta herriko euskera batua hizkuntza idatzixa darabilletan (aldizkarixak).

3.4. Administraziñua

Esparru honetan be badira lortu biharreko helburu bi, behiñik behiñ.

Alde batetik, herritarrekiñ hartu-emon zuzena daukan jentia herritarren berbetia jakin biharo leuke. Pediatrak, udalzaiñak, basozaiñak, udaletzeko bulegariak... sartzen dira multzo honetan. Azken baten, euren eguneroko biharrian ahozko hizkuntzia erabilli bihar daben guztiak.

Herri barruko oharrak, agirixak eta ostiango idazkixak herriko euskeran egittia litzateke

Koldo Zuazo

bigarren helburua. Eta herriko euskeran ez danian, herriko euskera batuan.

4. Herriko euskera batua

Euskalkiak erabiltziak ez dakar inñundik inñora euskera batua baztertzia. Bataren eta bestia-
ren esparruak mugatzen jakittia da kontua. Eta badira euskera batuari dagokixozan esparruak.
DBH-ko ikasle batek, esate baterako, euskera batuan egin biharko littuke eskolako biharrak.
Baiña euskera batuaren inguruan be badira oker ulertuak.

Batek baiño gehixagok uste dau *jausi* barik *erori* dala euskera batua. Batek baiño gehixagok
uste dau *lagunarendako* barik *lagunarentzat* dala euskera batua. Batek baiño gehixagok uste dau
kantuan dihardu barik *kantatzen ari da* dala euskera batua. Batek baiño gehixagok uste dau *opo-*
rretan nengoela barik *oporretan nengoelarik* dala euskera batua. Batek baiño gehixagok uste dau
laster amaituko da barik *bukatzeaz da* dala euskera batua. Batek baiño gehixagok uste dau *ez dut*
irtengo, nekatuta nago-eta barik *ez naiz aterako, nekatutik bainago* dala euskera batua.

Eta holako uste ustel mordua daukagunez, euskera batua erabili bihar dogunian, goittik
behera aldatzen dogu geure berbetia. Azken baten, euskera batura *itzuli* egitten dogu geure
berbetia. Ze, jakiña, gure berbetako ezaugarriak euskera batukuak ez izatiaz gaiñera, txarrak
dirala be pentsatzen dogu.

Bada, ba, sasoia hórrek uste ustelok alde batera lagatzeko. Bada sasoia euskerazko berba
guztiak, edozein euskalkittakuak izanda be, euskera batukuak dirala esateko. Azken bolada
honetan bat be premiñarik barik barra-barra erabiltzen hasi garan erderakadak dira euskera
batutik kendu biharreko bakarrak.

Bada sasoia euskerazko egitura guztiak, edozein euskalkittakuak izanda be, euskera batu-
kuak dirala esateko. Geure eguneroko jardunian esaten dogun *neska bi* hori ez daukagu zertan
bi neska bihurtu euskera batuan dihardugunian. Gure eguneroko jarduneko hori egitturiori zih-
aro zuzena da, eta noiznahi eta nunahi erabiltzeko eskubide oso-osua daukagu. Erderatik sartu
jakuzan egitturak izango dira orainguan be baztertu biharrekuak, *nola ez dan etorri, ezer barik*
gelditu da edo *pozik nago, porke dana gainditu dot* tankerakuak.

Hori dala-eta, euskera batua erabiltzen dogunian be, geure herriko berbetia hartu biharko
genduke oiñarriztat. Geure herriko berberi, geure herriko esapidieri, geure herriko sintaxiari
emon biharko geunskio lehentasuna.

Zer dala-eta urriñeko *agian* erabili, etxian *beharbada & baliteke* izanda? Zer dala-eta urri-
ñeko *noski* erabili, etxian *bai horixe & jakina* izanda? Zer dala-eta urriñeko *iruditu* erabili,
etxian *begitandu* izanda? Zer dala-eta urriñeko *oihana* erabili, etxian *basoa* izanda?... Eta zen-

Deba ibarreko euskeria

bat gustatzen jakuzan guri hórrek urriñeko gauzok! Zenbat lilluratzen gaittuen gu hórrek urriñeko berbok! Izan be, gero, urriñeko intxaurrak beti dira etxekuen aldian gozuak. Baiña nor lilluratzen dau beti urriñekuak? Konplejoz beteta daguana, bere buruarengan konfianzarik ez daukana, bere etxekua estimatzen ez dabena.

Nik, jakiña, ez diñot *agian, noski, iruditu, oihana* hórrek ezagutu bihar ez dittugunik. Ezta hurrik emon be! Hangua eta hemengua, antxiñakua eta oraingua, ahal dan guztia ezagutziaren aldekoa naiz ni, eta ezagutu ez eze, erabiltzia be egoki etorriko da lantzian behiñ. Guk, Deba ibarrekuok, esate baterako, ez gara hasiko *aburu* esaten, *eritxi* eta *uste* jator askuak etxian izanda, baiña *aburu* hori be zer dan jakittia ondo etorriko jaku, eta *zenbat buru, hainbat aburu* esapidian egoki erabilli ahalko dogu.

Eta, azken baten, horixe da hizkuntza bat ondo jakittia: hizkuntziaren baliabide guztiak ezagutzia, eta hórrek baliabidiok noiz eta nun erabilli zuzen asmatzia. Deba ibarreko lagunarte giruan baten batek *ene aburuz, atzoko partida zuzendu zuen epaileak bost jokalaria bederen egotzi behar zituen aldagelara* esatia ez da euskeraz ondo jakittia; sasiletrau hutsa, pedante garbixa, petral galanta izatia da. Eta gure sasiletraukerixia zein neurritaraiñokua dan ikusi nahi dabena ez dauka gure herrixetako hedabidiak entzutia eta irakurtzia besterik. Ez dauka gure eskoletan eta euskaltegixetan egitten dan euskeria entzutia besterik. Eta harrituta, zur eta lur egindda, geldittuko da.

Gure alderdi honetan, ba, euskera batua erabilli bihar dogunian, geure herriko berbetan oiñarritutako euskera batua erabilli biharko genduke: batua izatiaz gaiñera, naturala eta bizixa. Hórretxek hiru baldintzok betetzen dittuanari deitzen deusat nik *herriko euskera batua*.

5. Hizkuntzako ohar batzuk

Juan dan urtiotan euskalkixen aldeko hainbat aldarri egin da han eta hemen, baiña ez dogu askorik aurreratuko hitzetan gelditzen bagara. Hitzta bitsa da, eta bitsaren azpiko ekintza da bali-xo dabena. Horixe dala-eta, idatzi dot hau liburuau euskalkixan. Baiña ez naiz iñundik iñora aitzindarixa, beste eibartar askoren tradiziñuari jarraitu besterik ez deusat egiñ eta.

Hori tradiziñuori izatiak asko erraztu dau nire biharra. Azken baten, Eibarko Udaleko Euskara Batzordiak argitaratu eban *Eibarreraz idazteko oiñarrizko erizpidiak* betetzen ahaleginddu naiz. Kontuan izan dot, gaiñera, Euskaltzaindixak argitaratu eban “Euskara batua, euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak” agirixa (*Euskera* 1979-1: 103-106). Hortxe oiñarrittu dittut, ba, neure irizpidiak. Eta beste batzuendako be lagungarri izan leikezalakuan, hona hemen zein diran:

1. Berbak oso-osorik idazten ahaleginddu naiz. Irizpide honen ostian bada errezoiz bat: mundu zabaleko berbeta guztietan gauza bat da ahoz ahoko jarduna eta beste bat idatzizkua.

Koldo Zuazo

Ahoz ahoko jardunak badittu bere legiak, eta baita idatzizkuak be beriak. Eta ez dira bardiñak batzuk eta bestiak.

a. Euskeriari dagokixonez, bokal arteko <b, d, g, r> sarri galtzen dira ahoz ahoko jardunian, batez be arin berba egitten dogunian. Idatzixan, ostera, ahozkuian ixiltzen diran hórrek hotsok agertu egiñ ohi dira. Nik be *begiratu* idatzi dot eta ez *beittu*, *gara* idatzi dot eta ez *ga*, *egiñ* idatzi dot eta ez *eiñ*.

Salbuespen gitxi batzuk badira, dana dala: *aittu* ‘ulertu’ idatzi dot, nahiz eta *aditu*-tik datorrela jakiñ, *be* ‘ere’ idatzi dot, nahiz eta *bere*-tik datorrela jakiñ, eta *ba* idatzi dot, nahiz eta *bada*-tik datorrela jakiñ. Kontua da *aittu*, *be* eta *ba* hórrek autonomixia lortu dabela, lexikalizauta dagozala, eta gure artian ez dirala hartzen *aditu*, *bere*, eta *bada*-ren aldaeratzat.

b. Ahoz ahoko jardunian *d* → *r* egitteko joeria dago gure artian: *eran* ‘edan’, (*etorri*) *ari* ‘hadi’, (*egin*) *doran* ‘dudan’... Idazterakuan, ostera, <d> erabilli dot beti.

c. Ahoz ahoko jardunian bokalak asimilau egitten dittugu iñoiz: *jun* ‘joan’, (*ekarri*) *bi* (*dau*) ‘behar’... Idazterakuan aldaera osuak erabilli dittut, baiña, hori bai, geure fonetikara egokittuta: *juan*, *bihar*.

d. Deklinabideko morfema batzuetan be izaten dira laburtziak: genitibuan *-aren* → *-an* (*lagunan* ‘lagunaren’) eta partitibuan *-rik* → *-ik* (*diruik* ‘dirurik’), esate baterako. Horrelakuetan be aldaera osuak erabilli dittut: *lagunaren*, *dirurik*.

2. Ortografixia euskera batuarena erabilli dot: gurian berba egitterakuan arrotza dan <h> erabilli dot, eta <z> & <s> eta <tz> & <ts> zuzen bereizi dittut, ahoz ahoko jardunian hori bereizketiori egitten ez badogu be. Baiña ortografixa kontu honetan salbuespen bi egin dittut:

a. Bustiduria. Berbetan esaten dittugun <ñ>, <ll>, <x>, <tx>, <tt>, <dd> hórrek idazterakuan be agertu egin dittut: *miña*, *ollua*, *ixilik*, *itxaso*, *aitta*, *inddar*. Horixe da Eibarren hartu zan bidia, eta niri neuri be zentzuzkua begittantzen jata, ziharo arrotzak —eta barregarrixak— diralako gure artian *mina*, *manifestazino*, *oilo*, *aita*... ikustia.

Jakiña, berbak batzerakuan sortzen diran bustidurak ez dittut adierazi: *einddogu* orde *egin dogu* idatzi dot, idazterakuan berbak bananduta idatzi dittudalako beti.

b. Azentuaren bidez bereizi ohi dittugu erakusle singularrak eta pluralak: *honek* *ekarri dau* / *hónek* *ekarri dabe*. Azentuak ezartzia erabagi zan Eibarren, eta bat nator horrekiñ erabagixorrekiñ, oso lagungarri gertatzen da-eta irakurtzerakuan.

Hónetan gauza guztiotan bat etorri naiz, gitxi gorabehera, oraiñ artian eibartarrak urratu daben bidiarekiñ, baiña bada oso kontuan izan doten beste irizpide bat be: eibartarra baiño lehen

Deba ibarreko euskeria

EUSKALDUNA naizela, eta Eibarko euskeria be EUSKARAren adar bat baiño ez dala azken baten. Zenbait aukera egitteko sasoian gogor heldu deusat horri irizpidiorri.

Eibarren, esate baterako, *dittugu & dittuguz & doguz* esaten dira. Idazterakuan bat aukeratu bihar, eta *dittugu* izan da nire aukeria. Eibarko adizki jatorra izatiaz gaiñera, beste baldintza bi betetzen zittuan horrek:

a. Zaharrena bera dala (*dittuguz & doguz* geruago sortutakuak dira).

b. Euskal Herrixan zabalduen bera dagoala, eta hauxe da, nire ustez, beste guztien gaiñetik daguan errezoia.

Eta iripide hori kontuan izanda, garbi ikusi dot Eibarko beste bikote batzuen aurrian be zer egiñ: *hemen & hamen, gara & garaz, dira & diraz...* Duda txikixenik barik, *hemen, gara, dira* aukeratu dittut.

Dana dala, bidia ibillixaz ikasten da, eta ibillixak erakutsiko dau hónek aukerok zuzenak ala okerrak diran.

Koldo Zuazo

BIBLIOGRAFIXIA

- Altube, Sebero. 1949. "La Unificación del Euskera Literario", *Eusko-Jakintza* 3-2/3: 181-204.
- 1960. "Eibartarrak eta euskera", *Euskera* 5: 61-65.
- Aranberri, Fernando. 1996. *Ermua eta Eitzako euskara*, Ermua: Ermuko Udala.
- Aranzadi Zientzia Elkartea [EAEL], *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa* (2 liburuki), Donostia, 1984-1990.
- Argoitia, J.A., Azkarate, N. & Gezuraga, X. 1995. *Eibarko euskeraren esakerak eta bestelako berezitasun batzuk*, Eibar: Eibarko Udala.
- Arrieta, Jose Agustin. 1974. *Un estudio sobre el habla vasca de Motrico*. Deustuko Unibersidadeko Lizenziatura tesina argitara bakua.
- Azkue, Resurreccion M. 1905-6. *Diccionario vasco-español-francés*, Bilbo. Berrarg. Bilbo: Euskaltzaindia, 1984.
- 1923-25. *Morfología Vasca*. Euskaltzaindia, *Euskera* 4hh.
- Bähr, Gerhard. 1926-1935. "Estudio sobre el verbo guipuzcoano", *RIEV* 17 eta hh.
- Bereicua, Ramon. 1972. "A Survey of Linguistic Variables in the Central Zone of the Deva River Valley", *ASJU* 6: 20-28.
- Bonaparte, Louis-Lucien. 1863. *Carte des sept provinces basques*, Londres.
- 1869. *Le verbe basque en tableaux*, Londres. Berrarg. in *Opera omnia vasconice (I)*: 221-242, Bilbo: Euskaltzaindia, 1991.
- Eibarko Aditz-Batzordia. 1998. *Eibarko aditza*, Eibar: Eibarko Udala.
- Eleizalde, Koldo. 1911. "Raza, Lengua y Nación vascas", *Euzkadi* 8: 243-276.
- Elexpuru, Juan Martin. 1996. *Bergara aldeko lexikoa*. EHU-ko Doktoradutza Tesi argitara bakua.
- Elortza, Jerardo. 1994. "Aditzaren izen-formak Deba Garaian eta Araba aldean". [R. Gomez & J.A. Lakarra, arg.], *Euskal Dialektologiako Kongresua*: 465-477. *ASJU*-ren gehigarriak, 28. zb., Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Elortza, J. & Ormaetxea, J.L. 1994. "EAEL eta Arrasateko hizkera". [R. Gomez & J.A. Lakarra, arg.], *Euskal Dialektologiako Kongresua*: 479-493. *ASJU*-ren gehigarriak, 28. zb., Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Elortza, J., Garro, E., Ormaetxea, J.L., Garai, J.M. & Plazaola, E. 1999. *Arrasateko euskara*, Arrasate: Arrasateko Udala.
- Erostarbe, Amaia. 1994. "Aditz izenak Oñatiko hizkeran". [R. Gomez & J.A. Lakarra, arg.], *Euskal Dialektologiako Kongresua*: 495-517. *ASJU*-ren gehigarriak, 28. zb., Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Etxaide, Ana M. 1984. *Erizkizundi Irukoitza*. Euskaltzaindia, *Iker-3* (2 liburuki), Bilbo.
- Etxebarria, Toribio. 1963-64. "Flexiones verbales de Eibar", *Euskera* 8-9: 53-130.
- 1965. *Lexicón del euskera dialectal de Eibar*. Euskaltzaindia, *Euskera* 10-11. Berrarg. 1986.
- Euskaltzaindia. [EJ]. "Erizkizundi Irukoitza", *Euskera* 7 (1926) eta 8 (1927).
- [EHP]. *Eibarko hiri-toponimia, Onomasticon Vasconiae*, 13. zb., Bilbo, 1995.
- [EHHA]. *Euskal Herriko Hizkuntz Atlas*. Argitara bakua.

Deba ibarreko euskeria

- Gaminde, Iñaki. 1984. *Aditza bizkaieraz* (3 liburuki), Bilbo: UEU.
- 1988. *Ahozko bizkaieraz*, Bizkaiko AEK.
- 1992. “Bizkaieraren esaldi denborazkoez”, *FLV* 24: 405-430.
- Irizar, Pedro. 1981. *Contribución a la dialectología de la lengua vasca* (2 liburuki), Donostia: Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala.
- 1991. *Morfología del verbo auxiliar guipuzcoano* (2 liburuki), Bilbo: Euskaltzaindia.
- 1992. *Morfología del verbo auxiliar vizcaino* (2 liburuki), Bilbo: Euskaltzaindia & BBK.
- Isazelaia, Jaione. 1997. *Linua, Ehuna, Artilea*, Bergara: Bergarako Udala.
- Izagirre, Kandido. 1956. “Oiñatiko liñagin-iztegitxo”, *Euskera* 1: 174-182.
- 1965. “Iztegirako gaiak”, *BAP* 21: 197-211.
- 1968. “Notas lexicográficas”, *ASJU* 2: 49-71.
- 1970. *El vocabulario vasco de Aranzazu-Oñate y zonas colindantes*, *ASJU*-ren gehigarriak, 7. zb., Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia. Berrarg. 1994.
- Knörr, Henrike. 1986. “Betolatzaren zenbait berri”, *ASJU* 20-2: 499-506. Berrarg. in H. Knörr & K. Zuazo (arg.), *Arabako Euskararen Lekukoak. Ikerketak eta Testuak*: 51-56, Gasteiz: Eusko Legebiltzarra, 1998.
- Larramendi, Manuel. 1745. *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence, y latín*, Donostia.
- Larrañaga, Jone. 1998. *Antzuolako hizkera*, Antzuola: Antzuolako Udala.
- Laspiur, Imanol. 1979. “Azentu diakritikoa Eibarko euskarari”, *Euskera* 24-1: 175-268.
- 1999. *Eibarrera jatorraren bidetik*, Eibar: ... eta kitto! Euskara Elkarte.
- Mitxelena, Koldo. 1955. “La *Doctrina Cristiana* de Betolaza (1596)”, *ASJU* 2 [1. aroa]: 43-60. Berrarg. in *Sobre Historia de la Lengua Vasca (II)*: 824-837, *ASJU*-ren gehigarriak, 10. zb., Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- 1958. “Introducción al Vocabulario de Landuchio”, *Dictionarium linguae cantabricae (1562)*, *ASJU*-ren gehigarriak, 3. zb., Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia. Berrarg. in H. Knörr & K. Zuazo (arg.), *Arabako Euskararen Lekukoak. Ikerketak eta Testuak*: 21-48, Gasteiz: Eusko Legebiltzarra, 1998.
- Mugarza, Pello. 1998. *Mallabiko euskara*. EHU-ko lan argitara bakua.
- Narbaiza, Antxon. 1990. *Eibarko gatzizenak*, Eibar: Eibarko Udala.
- 1998. *Eibarko euskara: gutxiespenaren historia*, Eibar: Eibarko Udala.
- Olañeta, Amaia & Urkiola, Argiñe. 1998. *Txondorrek, karobiak, elurzuloak*, Bergara: Bergarako Udala.
- Ormaetxea, Jose Luis. 1998. *Aramaioko euskara*. EHU-ko lan argitara bakua.
- Ruiz de Larrinaga, Juan (arg.). 1954. “Cartas del P. Uriarte al Príncipe Luis Luciano Bonaparte”, *ASJU* 1 [1. aroa]: 35-106.
- San Martin, Juan. 1958a. “Burdin laneko zenbait tekniku itz”, *Euzko-gogoa* 9-1: 39-51.
- 1958b. “Eibar’en erabiltzen diran burdin langintzako itz teknikuak”, *Euskera* 3: 141-158.
- 1959. “Eibar’en teknika gaietan egin dan eboluziñoari buruz”, *Euskera* 4: 127-139.
- 1981. “Eibarko aditz-laguntzailearen paradigmatik”. Euskaltzaindia, *Iker-I*: 331-342, Iruñea.
- 1990. “Botanika lexikoa Eibarren eta Toribio Etxebarriaren *Lexicon* lanari gehigarriak”, *Euskera* 35-2: 337-365.
- UNED. 1988. *Bergarako Euskera*, Bergara: UNED.

Koldo Zuazo

- Urkixo, Julio (arg.). 1910. "Cartas escritas por el príncipe L-L. Bonaparte a algunos de sus colaboradores", *RIEV* 4: 233-297. Facsimilea: Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1969.
- Urkiza, Julen (arg.). 1995. *Aita Gabirel Jauregi Uribarren (1895-1945)*, Bilbo: Ediciones El Carmen.
- Villasante, Luis. 1968. "Oñatiko Euskera", *Egan* 27: 80-94.
- Zuazo, Koldo. 1998. "Euskalkiak, gaur", *FLV* 30: 191-233.

Deba ibarreko euskeria

Koldo Zuazo

AURKIBIDIA

Atarikua	9
Deba ibarra	13
Saiuaren egitturia	17
I. Lehenengo atala: Deba ibarreko euskeriaren ezaugarriak	19
1. Mendebaleko ezaugarri orokorrak Deba ibarrian	21
2. Deba ibarrian betetzen ez diran mendebaleko ezaugarri orokorrak	28
3. Ezaugarri orokorrak edo kiputzak Deba ibarrian	32
4. Ezaugarri orokorrak edo kiputzak Debabarrenian eta Debaerdikuan	35
5. Ezaugarri kiputzak edo orokorrak Debabarrenian eta Antzuola-Bergara aldian	39
6. Ezaugarri kiputzak edo orokorrak Debabarrenian	44
7. Deba ibarreko bereizgarriak	52
8. Debabarreneko eta Debaerdiko bereizgarriak	60
9. Debagoieneko bereizgarriak	65
II. Bigarren atala: Ondorixuak	75
1. Deba ibarreko euskeriaren nortasuna	77
2. Deba ibarreko hizkuntza eremuak	78
3. Deba ibarraren lekua euskalkixen artian	80
4. Debabarreneko berbeten kokagunia errezoitze aldera	83
5. Mendebaleko euskeriaren eta euskera kiputzaren arteko lehia Deba ibarrian	89
6. Arabako euskeria Deba ibarretik begira	92
7. Bizkaieria VS gaiñerako euskalkixak	95

Deba ibarreko euskeria

III. Hirugarren atala: Euskalkiak etorkizunian	97
1. Euskalkiak, euskeria zabaltzeko tresna	100
2. Euskalkiak, euskeriaren osasuna sendotzeko tresna	100
3. Euskalkixen esparruak	102
4. Herriko euskera batua	107
5. Hizkuntzazko ohar batzuk	108
Bibliografixa	111

**Cer ete da andra erdiaen çauria?
Sagar errea, eta ardao gorria.
Alabaya, contrario da Milia:
Azpian lur oça gañean arria.**

**Lastur-era bear doçu, Milia.
Ayta jaunac eresten dau elia,
Ama andreac apaynquetan obia.
Ara bear doçu, Milia.**

**Iausi da cerurean arria,
Aurguitu dau Lastur-en torre barria,
Edegui dio almeneari erdia.
Lastur-era bear doçu, Milia.**

**Arren, ene andra Milia Lastur-co,
Peru Garciac eguin deuscu laburto:
Eguin dau andra Marina Arraçolaco.
Ezcon bequio, bere idea dauco.**

Milia Lasturkoaren kantua, Esteban Garibaik jasoa.

Esteban Garibai Zamalloa

Arrasate 1533 - Toledo 1599

Argitaratzailliak



Antzuola




Bergara




Leintz-Gatzaga



Aramaio




Eibar



Oñati



Aretxabaleta



Elgoibar



Sorluze



Arrasate



Eskoriatza